


Lino Ayesta

Ikusiak eta entzunak



Ikusiak eta entzunak

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Lino Ayesta

Ikusiak eta entzunak

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-52-6

Legezko Gordailua: S.S. 417/97

Argibideak

EZER baino lehen, nire neure bihotzeko poza eta esker ona agertu gura diet, alde batetik, nire osaba eta aitabitxi dudan Lino Ayesta, liburu honen autoreari, Zeberiko Uriondorik harako berri guzti honegatik; eta, bestetik, Antonio Zavalari, non zer dagoen jakin eta beste guztioi jakinarazten digulako etorkizuneko euskal izatearen norabidean.

Liburu honen balio multibalentea begien bistakoa da. Antonio Zavalak, Lino Ayestak herri-kutsuz idatzitako altxor hau, eralgi egin behar izan du irakurle arruntaren errebidetan, eta etno-texto eta arau literarioaren erdibidean jarri.

Hizkuntzalari batentzat, etno-textoa litzateke azterbiderik zehatzena, baina irakurle arrunt batentzat zailegia. Horrexegatik jo da erdibidera.

Baina kasu honetan lasai egon, hizkuntzalari! Zeberio euskara bizia eta ahorik hara jaso nahi duenak, badu aspaldiko lan luze eta sakon bat, nire neure Doktorego Tesia, hain zuzen *Zeberio Haraneko azterketa Etno-linguistikoa* deritzona, 1988an defendatua eta *Ibaizabal*-ek 1991an argitaratua.

Tesi honetan. Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoa bitarteko, Zeberio euskararen bokalismo, kontsonantismo, morfo-joskera, kontsonante elkarte, lexiko, azentu eta abar luze bat

aztertzen dira, etno-texto eta sonograma ugariz orniturik.

Lino Ayestaren lana eta nirea bitarteko, zorionean zaude, irakurle eta ikertzaile. Zeberio, bizkaieraren mendebaldeko ertza duzu; eta Zeberion, Uriondo mendebalderengo auzunea eta mendi barrukoa. Euskara aldetik, jakina, oso zaharra eta guztiz aberatsa. Berba baten esanda, ezagutu beharrekoa etorkizuneko euskararen aberasbidean. "Haltzaren ondoan, haltza erne"!

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Gure etxea

GURE etxea, izenez Urretzagoikoa, Zeberio-Uriondon dago, ego aldetik ezkutuan, auzuneko ermitaren eta Urretzabekoaren bitartean, iturri biderantz, egoera maldatsuan eta atx artean, auzune andi baten jarria.

Uriondo auzune orrek amazapi etxe eukazan. Euretatik sei bizitza bikoak zirean. Beste iru base-ri, euretatik aparte, alboetan, bat banaka.

Gu ez ginean etxagunak, errentadoreak baño, auzune orretan euneko larogitamar bezela.

Nire gazte denporan ia berreun pertsona edo bizilagun ginean. Gaur egun, barriz, bi pertsona bakar-bakarrik bizi dira bertan, egoitzez beintzat. Oneik dira Jesusa Ugalde eta beren gizona. Gauza oso tristea auzunea olan egon bearra, baia au egi santua da.

Gure etxearen leku baliagarria onelan zan, gitxi gora bera: eun ta berrogeitamar metro kuadrado; sarrerea, ipar aldetik, ia lurraren par, aldaparen bidez, kanpo aldetik.

Ezkerrera, orman, urten une bat, eun ta ogei zentimetroko altzaduraz, iturritik etozenak erradak jeitxiz pausada bat egiteko. Barrura sartuz, saloi aundi bat, berrogei bat metro kuadradokoa.

An iru kaixa, bi andiak eta bat txikia, eta beste mai andi bat kajoi edo tiradore bigaz, ederto landuak. Lenik, ugazabaren etxea zalako, enplegatzen zirean galgarauen kontserbagarri; eta bai kaponera bat be, beren ganean galdara kobrezko eder bategaz eta uren serbitzurako errada areikaz.

Teillatua lau uretara jarria. Baia sukaldea eukan ezkerrera. Eta aren aldetik segidan bi kuartu ogei metro kuadrokoak. Lenengoa, oe bi andiak eta erloju andi bategaz, ormaren alboan, aurretik kristal ederragaz, beren pisuak agiriñ auzela. Bost bat kilo bakotxak izango auzen. Zortzi bat egun gixienez pasatzen zirean jaso eta bera jeitxi ordurako, kanpai biziagaz lotiak gineanak itxartuteko. Bigarrenak, oe bi andiak eta armarioa, eta beste ontzi edo tresna guztientzako balda dotore bat; eta kuartu guztiak eukeen euren leioa.

Saloitik aurrez-aur jantoki ondo konpondu bat, ogei metro kuadrokoa, beren ateagaz balkoe eder batera. Au izaten zan etxean egoanik departamenturik inportateena, gaztainezko mai andi eta dotorez, kajoietan mai tresnakaz, lanka edo aurki luzeak, bizkarralde eta guzti.

Muebleak gaztain egurrezko sendoak, oe ta guzti.

Oeak kapaxezko lastamarrakaz edo artaburu azalakaz eginak, muelle barik baño.

Saloi dotore orren eskoiera, irugarren kuartua. Onek badauka misterio apur bat. Lenik esan dodan moduan, gure etxea leku maldatsu edo aldapan eginik dago, zimendurik geienak atxean daukazana. Baia esaten auden be aldeko orma ori lurrean edo zimendu samurrean dagoala, eta ori dala motibo arrakalatua egoteko. Gure ama beti egoan beldurrez jausi edo ezbearren bat izango gendula. Baia tira: aunditu zan, baia etzan jausi.

Sukaldea, esan dodan moduan, etxeari deustala, balkoe bategaz eta komunagaz, eskoiera.

Beraien eta etxearen arrimuan ollategia, kortara leioakaz. Balkoe atearen segidan, barrutik, labetxo bat, egur ikatzagaz sua eginez jateko berezi edo inportanteak ifinteko. Ezkerrera, azpira eder bat. Azpian armarioa, bi ategaz. Baia goian eukeen koska, egur bat ifinteko erdian, uruna galbaiagaz eralkiteko.

Gero amak ur bero eta gezagaz uruna oratuten auen, erraria egiteko eta labean erretzean jateko. Ekaitz edo leiagaz altzagarriari lagunduteko, beko atea zabalduz, talo burriña txingarragaz berotzen auden, ondo altza daiten.

Nik ezaguera artu nendunetik andi egin arte, baserrietako usuan, taberna gendun, bai, ta zein-bat bidar kazari edo beste edozein bazkaiten etorten zirean, eta gurean jaten audenagaitik zoriontzen auden gure amatxu, bestek ez lako erraria egiten auelako. Eta bai eroan be ogiak osoan etxera, ta barriz errariginean beartzen auden gure ama.

Azpiratik beko sulekura dagoen tartean, famili aundia ginean ezkerro, ifinten gendun kaja bat gal-tzerdientzako, egunez bustitakoak sikatzean ara pasatuz. Ez da zer esanik baegoala lanik asko orretan. Batez be prisaz sikatzen bazirean, oso gogorturik geratzen zirean, eta tauki edo enbor zati baten astintzen genduzan kolpeka, bigunduteko.

Beko suaren gain, tximini zabal bat, trapu gorri edo berde bategaz, bueltan jarrita. Albo bietatik orman zulutuz sartutako intzetatik eskegita, tala burriñ, burduntzi, trebera, barrilla, auspo eta sua-tsak. Aien aukera zan.

Talo burriñan taloa gogortzean oso baltzitu ez daiten eta obeto erretzeko pasatu barrillara. Trebera, beraren gain kazuela janariagaz ifinteko. Burduntzia, txitxi-burduntzi. Auspoak, barriz, putz egiteko.

Talogintza zer dan be argitu gura neuke zeozer. Gure etxean, jente asko ginean lez, talo asko bear izaten zalako, oneik egiten zirean urun eta uragaz, baia altzagarri barik preparatuz, momentu artan jaten zirealako.

Nozik beinean, errari edo ogiaren faltan, egiten zirean gari urunezko taloak. Oneik, errari orde bazkaldu eta afaltzeko. Oso gustora eta pozik jaten genduzan, samur egozalako. Bakotxaren erraziñoa talo bat inguru izaten zan jatorduko. Jakin gurarik nago zeinbat milla egin ote auzen gure amatxuk. Jaunak zeruan dagiala.

Esnea egosten egoala galdaile edo maskillu aundi baten, azpian txingarrak alboratuz, ifinten auzen talo burriña eta segidan barrilla. Esnea egozitakoan, ia bi edo iru talo egoten zirean eginak prestu, doblatu eta esne tartean sartu eta samurtzeko. Ni ifinten ninduan areik txikituten, besteai gosaltzen etorteko deitu baño len.

Egun baten —akordatzen naz—, ni eskolara joatean, amak esan eustan:

— Iluntzean ekar egik iru kiloko ogi biribil bat okindegikoa, errotaria ez dok etorri urunagaz eta.

Dirua emonik ori ekarteko, ni poz-pozik. Esandako moduan banentorren ogi ori besartean arturik; eta Amezdui deituten geuntsan lekuan aldatz andia egoan. Eskuetatik jausten jat ogi ori lurrera eta ariñeketan, gurpil baten moduan, bueltaka ia beko errekaraiño, ia kilometro bat. Nire negarrak, ogi orren atzetik, guztiz apurtu zalakoan. Baia tira: suertez ez zan apurtu, zati txiki batzuk baño. Eta ekarri nendun etxera, beldurrez beterik, txarto artuko ninduelakoan, negar eta sispuruz. Baia egun orretan ez zirean asarratu gurasoak, nai ta neba-arrebak barre ta burla egin.

Argiagaz be bada zer esanik. Jakina dan lez, garai artan ez egoan baserrietan argi indarrik.

Orduan argiak izaten genduzan kandelak, argizarizko zilindro moduko zuriskak. Baia areik erraz gatzatzen zirean, eta karu urteten auden.

Beste klase bat petrolio argiak zirean, latorrizko untzi batzuetan, elduleku bategaz, eta goi aldean tapoi bat metxagaz. Izitutean kea oso baltza botaten auen, eta argi eskasa. Petrolio kiratsagaz zikinak egoten zirean.

Bagendun beste argi klase bat: karburo argia. Onek funtzionatzen auen karburo eta uragaz. Bat edo batek esaten auen arriskutsua zala, ur asko botatzen bajakon; non edo non olango argi bat lertu egin zala, eta beldur izaten ginean olango argiak erosten.

Olan ibiltzen ginean, gure begietan negar anpu-luak zireala, ezer ikusi ezinik, batez be idatz edo irakur edo josterikan bazan.

Baita arriskutsua be, arañatela, lasto, galtzu edo bedar sikuagaz sua izituteko.

Aurrez-aur, sukaltarria leio ondoan. Onek be badauka beren serbitzua, tresnak garbituteko eta abar. Janari koipetsurik ez balego, errazago izango leiteke lan au. Baia neguan, txarria ildakoan, egosgarriak be ondo atonduak izango zirean koipe orreik garbituteko. Ura berotuten beartuak izaten zirean etxeakoandrak; eta, garbitu ondoren, alboan egoten zan balda andi bat etxeako serbitzurako, naitkoa tresna sikatuz artuteko.

Tollara edo mandioa, atean sartuz eskoiara dago, kortarako eta ganbararako eskilarak dagozan lekuan, ogeitamar metro kuadrado dauzana, troxa andi bategaz galgaraua gordetako eta bai kortako ganaduen jatekoak eukiteko. Baita zerra bat be galtzu eta artalastoak ebagiteko.

Gero, baztarrean gordeten genduzan esku erre-mintak: atxur, gako, laiak, eskuitilla edo eskuare,

para, kodaña, sega eta abar. Kortaren eskilarapean, sarda, gako, akulluak eta postetik eskegita uztarri, gantxo, ardi larrua, txilinak, tolet, igitai, trontza, aizkora, ziri, borra...

Sukalde ondotik asi eta eskilara bitartean, lerroan lau bei euren txalakaz, txarri bargasta batzuk eta makeraren bat. Kamiñotik urrin bizi ginean ezkerro, ez gendun esnerik saltzen. Txalei emoten geuntsen, etxeko janarirako bestea itxiz, amaren errapera askaturik.

Andi egiten zireanean, buruagaz beiei kolpez erabiltean, guk atzamarrak sudurretik estutuz, apur bat mantsotuten zirean. Ezpabe, amea botateko moduko burukadak emoten audezan. Errapetik kendutean eta beren lekura eroatean, erraria emoten geuntsen.

Batez be artoa emoten geuntsen txalei gizentzeko, oso ona dalako. Dezente gizendu orduan, saltzen genduzan, diru aldi bat artuz.

Etorren zirean arakinak; eta, betidanik, len aldiz diru gitxi agintzen auden, merke artu gurarik. Baia baserritarrak be jakiten genduzan geure tranpak. Baita zur ibili be prezioak jakiten, tonto tzar artean be baegozalako adar joleak.

Akordatzen naz: gure auzoko Juan Pedrok eukan txal bat salgai, eta etorri zan erosle bat, Antonio Txikie deituten geuntsona. Esan eutson Juan Pedrori eskatuteko zeinbat diru balio auen, eta onek erantzun:

— Igaz ez dok posible tratu egitea, eta ez.

Ainbeste erregu egitean Antoniok, eskatu eutson Juan Pedrok balio auena baño bi bidar geiago; eta erosle orrek, lotsagarritzko agintza ez egiteko, opatu balio auen baño geiago, eta saltzaileak esan:

— San Antoniok gorde dezala! Eurea dok txala!

Saltzaileak be bilatzen audezan neurriko zapatak.

Kortako ganadu edo abereak jarten genduzan sukalde ondotik beste aldeko tollara eskilara ondorarte lerroan, batak besteagaz borroka egin ez dagien, abereen artean be jan kontuetan ez dalako adiskiderik, bakotxari beren gelaunea preparatuz, oltzaduraren bitartez zutiko bat ifiniz aska ondotik saloiko frontalera, eta beste bat metro ta erdi atzerago, batetik bestera oltzatuz.

Azpi aldetik libre itxiz, metro erdiko altura, satsak atarateko errazago egon daiten.

Aurrean aska ganean inklinazioa ifiniz, atzean gora dala eta berrogei bat zentimetroko alturan egurrezko sare bat, egur batetik bestera amar zentimetroko bitarteagaz, agokada bakotxean larregi artu eta euliak kentzeko siñuan lurrera bota ez dagian jatekoa.

Txalaren jaiotzea be, beste animalia batzuen bezela, gauza oso ikusgarria da. Esan bearrik ez dago abereak be zeinbat gradutako laztan edo maitasuna daukien beren umetxuentsako; beren sabeletik urtendakoan, zelan minagaz zurruputzen dautsen ule ganean, ekarten dauan loidura guztia txupatuz, berotzean bizkortu daiten, bereala zutik gertuz, amaren errapera urreratu eta erroari oratuz esnea edanez mogidu al izateko.

Ondoren sartzen gendun alango gelaune baten, besteren bat an baegoan be kendu eta beren amaren ondoan ifiniz, atze aldetik esi bategaz, urten ez dagian, eta luzera aundi barik, gero amarraturik egoten ikasi dagian, ezpabe, kateari tiraka asiz, urkituteko arriskua izaten daudelako.

Lengo lerrora joanik, ganaduak goien egoteaz azpiak ataratea oso erraza izaten gendun, talde batek beintzat, pila aundia egin arte batez be. Gero gaitzago izaten gendun.

Baia burdiaren sarrera ganaduak baño berago genduelako, eta tira: dezente konponduten ginean.

Au da, kortarako sarrerea gendun mendebaldetik, lenagoko ugazabak larrena eukan lekutik. An be teillape bat gendun aldamenean.

Eskoiara egozan txarritegi bi, bata makerarentzat eta bestea bargastentzat. Aien ganean egur siku eta labrantzarako erremintak. Ezkerrera, mendebaldetik, ez egoan ormarik; eta, oltzaduraz zerrata, labea eta labaurrea.

Labe orretan erre aldia egiten gendun bost errendari edo familik txandaka, eta oneik ginean: Frantzisko Gotirena, Justo Amondarain, Juan Krutz Barañano, Anjel Barañano, oneik biok anaiak, eta nire anai zaarra, Manuel, Urretzabekotan bizi zana.

Etxearen zorua aldatza bera egotean, sarrera be bai, eta korta barruan, eskoiera, txakolindegia barrikakaz, etxeko labrantzan maastiak genduzan eta. Ni txikia nintzanean, ardiak genduzan kortan gaubaz; eta ardiren batek, atz egitean, zabaldu egin eutson barrikari giltza, txakolin dana lurrera jaus-tean alperrik galduz.

Gure etxearen labrantzako lurak oso emankor-
rak zirean, baia gitxi. Solo bat eukan ogeitasei
gizalangoa, eta bedarleku beste lau edo bost. Orre-
gaitik, alboan gendun Urretzabekoa baserria zaa-
rraren zaarragaz jausi zan, baia ugazabak barria
egin auen, eta nire anai zaarra ara ezkondu arte,
aien lurak be geuk erabilten genduzan.

Gero, 1930-ean, anaia ara ezkontzean, a barik
geratu ginean; eta, orduan be langabezia etortean,
luberriak egin genduzan, Goikolanda deituten dan
lekuan, luganez zarraturik, amar bat gizalan.

Arekin be gitxi izatean, guretzako beste etxe
bat artu gendun, Anakaikoa deituten zana, libratu
zan lez. Orduan lurragaz lasaitu edo emendatu
ginean.

Aurretik esanik daukat taberna be bagendula, baserrietako usuan edabe edo edari eta beste zeozer jateko, eta txikikeri batzuk saltzeko eta abar.

Ardoa ekarten gendün Bernardo Barroeta ardao saltzailearenetik. Paitarrak, Adan Abaitua-
renetik eta Bizente Gorritxurenetik. Txokolate,
azukre eta gozokiak, orreik danak Bilbotik. Taba-
ko edo erretzeko gauzak Zeberio-Arkulandako
estankotik.

Ardaoa aldi orretan zaragietan ekarten zan.
Zaragiak izaten zirean txalaren narruagaz josi ta
eginak, egaletan espartzu sokagaz eutsiak.

Aurreko ankaren narrua luze itxiz eldulekuz ser-
bitzeko, aietako bategaz kañabera bat sartu eta
kordelez estutuz andik utsituteko, eta tapoi kortxo
bategaz.

Ak pisututen auen eun bat kilo, eta kamiñotik
etxera burdian ekarteko oso neketsua gendun, bide
luze eta aldapatsua egoalako.

Ez dago esan bearrik tabernan badagozela aro
onak eta txarrak; errefrauak diñon lez, ardaoak eta
edariak gizonari indar andiak emoten dautsozela,
eta bai be egia esaten daudenak ordiak eta aur-
txuak diradela bakar-bakarrik.

Taberneru edo dendari izatea oso inportantea
da nor zelan bizi dan eta zer daukan jakiteko,
taberneruen kuadernoak agertuko balira. Ofizio ori
lo asko galtzekoa da sarritan, pertsona bat bakarra
dagoanean, jentea edabez kargaturik egotean. Baia
tira: egoten dira txantxa edo komeriak egiteko
txandak be.

Asieratik be baditu zer eginak. Lanka edo eserle-
kuak egin, ontziak zuzendu eta beste gauza asko
bear izaten dira, nai ta taberna mustur bat izan.

Tabernetan egunez ez da izaten estorbu andirik,
iluntzetan baño; eta orduan be ez askorik, asteburu

edo domekararte. Orduan urreratuten zirean kartetan, musean edo tutean, eta abar.

Baia orduan baegozan Uriondo aldean erbiak edo usoak edo zeozer, eta batenbatzuek ekarten auden zeozer meriendatzeko. Ondoren, baso batzuek utsitu eta gero, erromeria edo komeriak be erraz izaten zirean.

Orduan baegoan erronka edo panparroikeri eta indarrrik ugari, eta bein desafiatzen auden alkar bai pultsoan eta bai bertsoan, gero nozik bein burruka egiteko be.

Batez be gure etxean ganbarari eusten egoan age oso andi bat, eta arek eukazan gako pare bat, eta an egiten zirean apustuak, gizonak eskegi eta gero pultsoan goruntz igonik nork mosu geiago emon, eta baten baño geiagotan azkenean asarraturik. Beste batzuetan, ardo aldi andi bat edatean mozkortu be bai.

Azkenez, ganbara. Au izaten zan uztaldia kontserbatzeko tokia: bai artaburu, bai baba txiki, patata, bedar azi, frantzes sekulabedar eta, beste etxaldea artu arte, gariak be an joten genduzan, arlosa batzuen ganean kolpe emonik.

Ganbareak bearrezkoak ditu leio edo ormazulo asko, uztaldia sikatu eta kontserba daiten, nozik beiñez mugimendu bat emonez. Artarako aldi artan genduzan eskubare edo egurrezko eskuitilla batzuk, jenero guztieri buelta emoteko.

Ez zan komeni izaten artaburueri len-lenik kapaxa dana kentzea, eltxoak egiten jakozelako. Orduan noizik bein txanda egiten zan tarte bategaz.

Gariak garbituteko, ni txikia nintzala, ekarri auden makina. Onek, eskutoki bati buelta emonez barruan eukazan poleen bitartez aize aundi bat formatutean garbitzen auen garia.

Indaba edo babarruna, ider baba txiki eta abar, bakotxa kantidade txikian zalarik, eskuzko tresnak zirean, artza deituten geuntsena, aurre alde zabalik eta elduleku bigaz. Mogiduz goruntz botatean, jetxi orduko aizeak garbitzen auen.

Patatak be mogitzen zirean, ustelak kentzeko begiratzuz; eta zikinak garbitu be bai, geiago ez dai-tezan usteldu.

Bedar aziak sikatu ondoren sartzen zirean zaku batzuetan, eta eskegi nunbait aize agerian.

Galtzu, lasto, bedar siku eta abar goitegian gordeten zirean. Goitegia izaten zan teillatuari eusteko egozan age aien ganean, batetik bestera baranda sendo eta luze batzuk jarten zirean tokia. Oso arriskutsua zan ondotik ibilteko, suak artzeko erraza dan ezker; eta orduan ganbarara argitzat eroaten genduzan farol batzuk latorrizko farolagaz, eta bestea kristalagaz, zabaldu eta ixteko atetxo bategaz, baia ondo zarratua, batetik surik ez izituteko eta bestetik aizeak ez amatetako.

Gure etxea eskeko eta ibiltari guztien ostatua zan. Amatxuk esaten auen:

— Gurera bideratu edo jo alko dau baita Gorbeian begia ataratakoak be!

Eta gure aitak esaten auen:

— Nai ibiltari eta nai eskekoeri ostatua emotea obra miserikordiazkoa da, eta ez dagiola faltatu bear ori iñori be.

Orixe zan beren birtutea. Jaten otoruntzarik ez auen izango, baia lapikoko eta arto edo ogi zati bat emon barik iñok ez auen urten gure etxetik. Jente klase asko pasatuten zan ate orren barrura, eskekoetan asi eta eleizgizonetan amaituz, eta danentzat eukien zeozer.

Izenez aitatuko dodaz gaur akordatzen jatazanak: Benantzio Zeanuriko, ezgauzetua, oñez ibili

ezina eta zaldi ganean ebillena limosna bila; Jose Selas Torres, gallegu galdail-konpontzailea; Jose eta Pedro Sesma, orreik anaiak, Usansoloko gixajo batzuk; Joanikote Arrankudiagakoa; Justotxu, Arrigorriagakoa tarrañolerua, Arboledako gizontxu xelebrea; eta bai beste asko be, batzuk ganaduren baten bila etorten zireanak, eta bai be Gorbeiatik ango basabeiakaz naastean erratuta etorten zireanak eroaten Araba aldetik.

Alango pasadizo bat kontetan auen amatxuk. Beste seme-alaben gain nire arreba Leona, emezortzi ilabete auezala, besartean arturik, eta nigaz umedun egoala, suerte txarrez jausi eta besoa apurtu auen; eta aitak ekarri eutson etxera ostarari bat, denpora txarra egoalako, bai, ta erdalduna ganera, berak ez jakitean ezertxu be; eta oso bustita, goitik sartzan jakon urak betik urtetean, gauba ilundurik nun legortu ez eukala.

Atearen barrura sartutakoan, ez intentziño txarrez, baia esan auen:

— Ni emetik ez naue atarako goardazibilak be!

Eta amak, ori entzutean, txarto ulertuz, aitari asarrez:

— Atara daiala ori, gizon borrero ori, etxetik!

Aitak erantzun:

— Ez dau esan txar ustean, eta egon nasai!

Orretaz gizon ori konturatu zan zeozer txarto esan auela, eta barkatzeko.

Ala konpondu zirala; arropa zaar batzuegaz mudatuz eta berarenak sikatuz, eta sutondoan zeozer afaldu eta lo galtzu artean eginez, agurtu zala urrengo goizean, zelan eskertu ez ekiala arrera ona eginagaitik.

Gure etxean sartzan zirean aldi aretan, Zeberio-ko erritik pasatzen zirean abade guztien gain, beste

misiolari asko, eta bai limosna bila etorten zirean fraile legoak, batez be Deustoko San Felizisimokoak, gure aita kongregazio aretako errebistaren abonatua zalako; eta bai be Zornotza-Eubako pasionistak, karmeldarrak eta abar, ondo ikusiak zirealako eleiztar guziak.

Arako domeka goiz baten, betiko moduan joan nintzan Santa Gurutzetako ermitara, meza txikia esaten geuntsana entzuten; eta, andik etorritakoan, topo nenduzan sukaldean gosaltzen iru pertsona, aita eta beste bi, gure aitak beretzat eukan janaria jaten.

Oneik zirean Xabier Mendibil abadea eta Jose Montalban, Miraballeskoak, gurera bisitatzen etorritakoak.

Gure arreba Leona, barriz, usua zan moduan, joana zan Santo Tomas Olabarrietako eleizara, parrokia zalako, sepulturaren argiak ifinten, etxekoren bat il ondoren urtebetean joaten ginealako, eta etxean ez egoan iñor zeozer jaten ifinteko, eta aitak eukana guztientzat zan ezkerero, or konpon!

Aita kuartura arropak mudatzen sartutakoan, esan neutson:

— Aita, baia zelan joango zara orain, erdi armozaut, meza nagosia entzuten, andik etorri ordurako ia ordubatak izango dira eta?

Aitak erantzuna:

— Egon adi nasai! Jatordu bat eskasago egina-gaitik ez dok iñor ilten, mutil!

Antxinatik Uriondoko ermitan domekero egoan meza, abadea bertan bizi zalarik. Baia gero, au mantentzeko diru eskasiaren bidez, kendu auden, bakarrik bertako jai egunez meza emonez.

Ala jarraitu auden nire gazte denpora guztian, eta gero barriz ifini auden domeketan, Santa

Gurutzeko meza biak emon ondoren abadea Uriondora igonik ordu erdiko bidean gitxienez, ia eguerdian, eta etzala itxurazkoa a bazkaldu barik bialtzea ordu areitan.

Baia abadeak, konprenituz gure etxearentzat karga andia izango zala, pentsau auen domeketan etxe bakotxak txandaturaz emon egiola bazkaiten, eta kito.

Urte batzuk ala segiduz, suerte txarrez amaitu da dana, batetik jentek iges egin daualako, eta bestetik abade gitxi dagozelako.

Gaur eguneko jakitun asko
nai neukez nik ikusiak,
gai balirake ebatziteko
tamaña artako eskasiak;
bedratzi seme-alaba audezan
oso maitatuz aziak,
ait-ama onak izan nenduzan
Jaungoikoari graziak.

Gaubaz begiak joaten dira
merezi dauden lotara,
txarri ta beiak itxunik eta
ollo ta ollarrak otara.
“Zer kariñoa dodan!” esanez
ni jaiotetxe ortara,
sukalde, saloi, kuartu ta oe,
ganbara eta kortara.

Nire mundura etorrerea

AMABOST urtegaz asi eta irurogei ta iru urterarte lanean ibilitakoa naz, gazte denporan baserritar eta gero fabriketako langile.

Orain, irurogei ta amabost urte bete ondoren eta lanagaz nekatutakoan, pentsatu dot nundik eta nora izan direan nire munduko ibilerak liburu baten idaztea. Baia, faborez, irakurleak: nire uskeri edo ezjakintasunak ikustean, ez zaiteze ikaratu.

1921 urtearen irailaren 23-an jaio nintzan, Zeberion, Uriondoko auzunean, Urretzagoikoa baserrian, famili aundi baten, neba-arrebetan bederatzigarrena, bost anai eta iru arreben ondoren, aita Manuel eta ama Frantziskagandik, munduko argia ikustera.

Gure alderdian, ez asmo txarrez, baia usu zan izengoiti edo izen-burleaz deitzea. Orduan, nire aur-kentzailea edo komadronea zan Ramona, eta gizonari deituten geuntsan *Kantero*. Ortaz, Erramona Kantero. Ez egoan beste jakitun edo tituloko pertsonarik, auzoko andratxo maitearen borondatea besterik.

Aita ikazgin egoan etxetik kilometro t'erdi inguru basoan, baia bai etxetik begien bistan eta dei barruan, Kondebaso deituten zan basoan. Beragaz lagun eukazan anai zarren biak, Manu eta Boni.



Don Pedro Uria abadea eta Linoren aita, Manuel Ayesta.

Aldi aretan ez egoan eskolara joaterik, ez zalako egoten non-non eskola bat baño, eta gure errikoa egoan etxetik sei edo zazpi kilometrora, Zeberioko plazan. Eta, fabrikara lanera joatean, bide batez joaten zirean gaueko eskolara, ordu pare baten, gurasoak ondo pagatuta.

Gaur bi anai orreik ilak dira, eta Jaunak beragan dagizala. Zaarrena deituten zan Manuel, aita bezela; ni baño amasei urtez zaarragoa. Bestea, Bonifazio. Onek eukazan amairu urte nik baño geiago.

Baita be ilak dira arreba zaarrena, anai zaar bien bitartekoa, Juana eritxona, eta Juan, nire aurreko anaia. Arreba berrogei ta emeretzi urtegaz il zan, gaizo gaizto bategaz; eta nire aurreko anaia, gerra zibil gaizto aren frutuz, zazpi bider eritua izanik, ogei ta lau urtegaz, garairik ederrenean, mundutik aldatua. Azkenez ildakoa, barriz, Pedro, larogei urtegaz.

Aitari deiturik mugimentua egoala, esan eutsen anai biei zer egin eta zelan egin bear auden lana, eta bera etxera bereala. Ez auen tardatu amar minutu baño geiago. Baia etorri ordurako jaioa nintzan, Jaungoiko eta andratxo alien merituz, goizeko amaikak gitxi gora-bera zireala.

Aste pare bat pasatu ta gero, jaiotegunaren ondoren oitura zan-da, etxekoen artean bazkari eder bat egiten auden, aurraren ongi etorriagaitik eta amaren osasunerako, andrakariak ekarriz.

Orduan esan eutsen amak senide guztiei zeozer artega nengoala eta negar asko egiten nendula. Izeko batek erantzun eutsen, bederatzigarrena izatean ez auela eukiko titi naikoa.

Baia ez zan alan izan. Eroan ninduen medikua-gana eta arek esan eutsen etendun edo erniatua nengola. Orretaz ifini eustien gomazko sostentu

bat, eta segiduan osatu. Orduan, batetik gaixo nengoelako, eta bestetik etxeko seiña nintzalako, azi ninduen amak kuttun edo maiñatsuago. Jaunak beren erreñuan dagizala.

Aita-amak obe ezinak nenduzan, kariñu, maitatasun eta erlijioz.

Ama, irurogei urte auezala il zan, baserriko kolpe txar baten bidez. Auzoko beiak itur bidean beste batzuekaz borroka ez egiteko jagoten egoala, bei batek besteari ganera igotean, batak bultzatu eta zapaltzean gangreneak artuaz ila, ni soldaduskatik etorri eta etxean nengola permiso edo baime-nagaz.

Aita, barriz, larogeitazortzi urtegaz il zan, berak ainbeste maite auen gurutz bategaz aurrean gineanok bedeinkatuz, eta berak laztan egitean.

Mundura etor maiñatsu eta
gaizo aregaz penetan,
osatutzean bazan niregan
alaitasuna benetan.
Artatik geio bertso ta kanta
taberna, etxe, lanetan,
umore onik ez da faltatzen
ni nazan toki danetan.

Eskola

ZEBERIOKO erria, Ugaotik Arteara bitarte zabal eta luzea, basoz ez dakit zer neurrik daukazan, baia kamiñoz amaika kilometro dauzena da.

Gure gazte denporan automobilik ez egoan, eta umeak oñez joan daitezana, iru eskola egin audezan, danak zeozer ikasteko erea euki al izateko: bat, elbarrengo Santa Gurutzen, Ugaotik iru kilometro-ra; bestea, erriko plaza ondoan; eta irugarrena Ermitabarrin, ergoienekoak joan daitezana.

Santa Gurutzekoa egin zan 1924-an, auzo-lanean, Bizkaiko Diputazio eta erriaren bidez, baldintza edo kondeziñogaz etxe bakoetxeko gurasoak lau edo bost egun bear egiteko eskolaginean, beren umeak eskubidea euki dagizan eskolak ikasteko zazpi urte bete ezker, liburu, koaderno, lapitz, arbel eta abar diputazioaren kontura izanda: au da, umearen aitak pagau barik.

Eskola ori dago ezarririk, Zeberioko plazara goazela, ezkerrera, kamiño ganean, aldatz goran, Mintegira eta Azentzio ermita zaarrera bidean, ikasgela bitan, Mintegi aldekoari deituz goikoa eta besteari bekoa. Goikoa ipar-eguzki aldera oso leio ederrak dauzela argitasuna sartzeko; eta bekoak leio bardiak ego aldera. Atzekaldean, au da, ipar-mendabaldetik komunak, eta ikatz-lekuagaz suetea,

ego-mendebaldera dauala txapa eder bategaz egur eta arri-ikatzagaz su egiteko; eta aula edo gela bakotxean estufa banagaz, tubo andi bana teillatuperaiño ifiniz, keiak urteteko.

Arri-ikatz ekarlea zan Ugaoko Klaudio Larisgoitia. Zaldi-gurdi bategaz ekarten auzen zortzi edo amar zaku berrogeitamar kilokoak, zaldia al aude-na. Kaminotik eskolara bide gitxi zan, baia aldatza; eta, zaldia ezin igonik, lepoan altzau bear izaten zirean. Orretarako, maistreak deituten eutsen muti-ko indartsueneri.

Eta beste ganetikoak, nozik-bein, jolastuz erre-krean, agindu basora egur bila joateko, sua izitu-teko, eskola ondoraiño egoan basoa eta.

Eskola orreri toketan jakozan Asandiaga, Zal-dain, Elorribieta, Arbildu, Uriondo, Santa Gurutz, Mintegi, Larrakoetxe, Bertsuten, Arkulanda, Olazar eta Ariltzerartiño auzuneak. Au da, elbarren guztia.

Esaten dodan moduan, eskolara asten ginean zazpi urte bete orduan. Santa Gurutzen beintzat, eskola *mixto* edo mutil ta neskak batera. Geienak izaten ginean erderarik ez genkienak. Alan da ze sarrerea danontzako beti zan goiko eskolea, gela orretako maistrea euskalduna zalako. Oso pozik joaten ginean beragana. Ez gendun aiztuteko *señorita* Miren Aretxabaleta eritxona, euskeraz berba egiten euskulako.

Egia esan, aldi orretan maisu edo maistra geienak erdaldunak zirean, eta erdera ez jakitea problema gogorra zan; au da, norbere izkuntzatic kanpo eskolak ikasi bear izatea.

Ni asi nintzan 1928-an, urrilenengo edo iraila-ren 15-an, udako oporrak amaitu eta denporada barriaren asierean; eta, beste askoren moduan, Uriondora eguerdian joan-etorriak egiteko denpora-

rik ez gendulako, janaria eroaten gendun otza, edo maleta sikua, bai ogia txokolateagaz, txorizo-mutur bat, zeziña, urdai, pernil edo abar, bakotxak al auena.

Nozik-bein, etxean ogirik ez egoanean eroateko, erosi egiten gendun Arbilduko taberna edo dendan, panaderi edo okindegikoan, *ritxi* pare bat; eta, egunen baten etxean faltetan bazan erraria, gu pozik egoten ginean erosteko ontza bat txokolate eta iru *ritxi*. Alan jaten gendun ogi geiago, pastela lango gozoa zan eta. Prezio bardina eukan *ritxik* ta txokolateak. Au da, bakotxak txakur andi bat edo amar zentimo. Etxean lau txakur andi emotean, geuk egiten gendun gusto genduna. Etxean errari edo labe-sua astean baten egiten zan, eta aste azkenerako sikaturik egoten zan. Okindegikoa, barriz, egun aretakoa.

Alan pasetan genduzan lenengo iru urteak. Gero, beko eskolara pasau, erdera apur bat ikasita, beste maistreagana. Onei eritxon Maria Dolores González Gallego, eta zan erdalduna, baia eskolarakasle ona. Ugaon bizi zan, eta erri orretan eukan beren gizona, eskola-maisu. Orduko denporan oso automobil gitxi egoan, baia orrek baeukan eta andreari joan-etorriak egiten eutsazan.

Gu beko eskolara pasau ta laster, zoritxarrez, maistra ori kili-kolo asi zan osasunagaz. Ordurarte erderaz, baia kantik irakasten baeukan afeziñoa. Andik laster zabaldu zan bularretikoa eukala. Sarritan faltatuz eskolara, maistra barik egoten ginean, interina bat etorri arte: Estrella Lanz eta Maria Noguerado. Olan, bein bai eta bein ez, pasau gendun denporaldi bat maistra barik, gitxi ikasita, Margarita Fernández eritxon maistra titularra etorri arte. Jaunak zeruan dagiala bestea, il zalako.

Bien-bitartean, errepublikea jarri jakun, da etorri zan ordena, ez dakit nondik, urrineko umeak

kondeziño txarrean jaten gendula —kanpoan jan eta otza edo maleta sikua—, eta eskolea bearturik egoala suetean egosgarria ifini ta jateko, bakotxak berena eroanda. Orreik ginean gu, Asandiagako umeak, iru kilometro eukezanak kamiñoz eskolara, eta bai Zaldaingoak, lau bat kilometro kamiñoz; eta Uriondo eta Mintegikoak iru, basabidez.

Sasoi orretan, maiatza zan da laborantzan labradoreak euken bearra buruz gain, umeei eskolea galerazoteko guraso askok, bai itaurreko, bai aziak ereiten, arto, indaba, erramolatxa, kalabaza eta abar; eta ekarri iturriko ur freskoa, sein zain eta abar.

Ori dala-ta, eskolak utsik geratzen zirean. Joaten ginean apurrak, oso lotsor izanik maistraren aurrean, jaten ez gendun eroaten egosgarririk. Maistrak, barriz, su ta gar, kastigu emon guri, jan barik egoten.

Egun batzuetan olan aguantau genduan, lagunak jan-apur bat emonik. Baia maistrak, enteratuz, lagunak be kastigatu. Alan, ez egoan beste erremediorik, egosgarria eroan baño. Justo etorri zirean ereintzakoak, eta danok atrebidu ginean, da kezkek amaitu edo akabau.

Egosgarria izaten zan eskubete indaba, patata bat, urdai, txorizo-mutur, zezin, okela edo olango gauzaren bat, eta ogia edo frutaren bat euren denporan, bakotxak al auena, batak bestearena ez jateko señalatuz marka bategaz bai morral eta bai janari, goizeko sarreran sueteko mai ganean itxiz.

Urdei-okelak zati andiak ez zirean izaten; baia askoren artean egosgarri oso ondua jaten gendun. Lenengo, ogiaz eginiko zopa, eta gero indabak zeozegaz; ur trago bat ganean, eta saltoka urteten gendun.

Sueteko arduradun, maistreak ifinten auzen eguneroko neska bi eguerdirarte, bazkariak ifinten,

ta beste bi arrastian, tresna eta garbikusiak eginez, urrengo egunerako garbi eta prestu itxiz suetea.

Gure denporan ez egoan gaur egun beste kopla edo lelokeri ez jan-kontuetan, ez soiñeko jantzietan, ez diruagaz eta ez ezertxugaz be.

Esan bearra daukat negu edo denpora ekaitz-tsuetan, paraje afruntaduetatik, basa-bidez, lupe-tzez beterik, euri, edur eta aize otzagaz pasa bear izaten gendun, burutik zaku bat txotiño ifinirik, eta aurre-alde guztia ezertxu barik, alan-olango oiñeta-koak abarka larruzkoak etxean eginda, edo beste dendan erosiko auto-gurpilaren gomakaz eginak; galtzerdi ardi-lanazkoak, orpotik apurtuak; praka erremendatu edo kutxillotuakaz; otzez dardar, bidean busti eta soñean sikatuz. Ez da mirari gaur erreumaz beterik egotea. Abarka barriak urten auden gomazkoak, baia karu zirala ta erosi ez. Guardasolagaz be bardin: aizeak buelta emonik apurtuko genduzala eta erosi ez.

Bidean bustiko zaku orreik ezin eroan eskolara, eta eskola ondoan bizi zan Pedro Larrinagaren etxean itxiten genduzan gozetik iluntzerarte.

Dotriñea ikasten gendun euskeraz. Abadea gendun errikoa, Don Domingo Sagardui eritxona, gizon sendo eta abila. Dotriñea irakasten euskun eleiz portalean.

Orretara, bera etorten zan eskolara, danok joan gaitez. Eleizea dagoan lez eskolatik Arkulandara bidean berreun bat metrora, bera etorri ezik, ume asko joan barik geratuten zirean. Alan, eskolatik segidan, errezkadan eroaten ginduzan.

Ala ta guztiz be, batzuek ospa egiten auden, eta abadea asarre egoten zan orrez gain.

Egun baten, akordau jakun geuri be ospa egitea. Aurrera arin joanez, Gregorio Garai, Simon Egiluz, Gregorio Larrakoetxea ta ni, ostendu ginean zubiko

orma ostean, abadea ume guztiakaz pasau artean, da gero ixilik ospa egin.

Baia batenbatek ikusi ginduzan, eta abadeari esan. Urrengo egunean izan zirean kontuak! Lenik aspertuta eta gureak ganez egin eutsan. Lau mutikook ifini ginduzan belauneko, besteakgandik aparte, eskuak zabalik gurutzean genduzala, eta esku zabalaz emon belarrondokoak. Abadea morrosko sendoa eta indartsua zalako, maistrea bildurtu egin zan, eta esan eutsan umeak alan ez joteko, azurren bat apurtuko euskulako.

Ez ginduzan jo geiago, baia etxera bialdu, erre-kadua esanez zer egin gendun; eta, Jaunak beren erreinuan dagiala, gure aita oso eleiztarra zan eta beste belarrondoko batzuk artu nenduzan etxean.

Gaur egun, maistra-maisuak ezin daude umerik jo. Baia gure denporan joten ginduezan, bai, eta batzuek asko.

Akordatzen naz, beste askoren moduan, egun baten Gregorio Larrakoetxea eta ni, Lino, okerkeriren bat egiteagaitik, eskuak gorantz zabal ifinirik, erregeleagaz jo ginduzala maistreak.

Egia esan, umeak ume dira Madrillen be, eta okerkeriak egiten daude; baia or errespeto andia egoan.

Jazoera batzuk ifiniko dodaz orain emen.

Aurretik esanik dagoana, aldi aretan oso automobil gitxi egoan. Panadero edo ogi-saltzailearen aparte, Zeberioko errian ez egoan, Aldamatar aien kotxearen aparte, kamioi bi baño. Bat eukan Juan Jose Gotik, eta bestea Julian Urrazak.

Kamioi biok zirean *Uesa* markakoak, gurpil edo txirrinka mazizo edo aize bakoak, eta kabinea libre eukienak. Euria zanean, toldo bategaz tapetan zirean txofer eta lagunak. Abiadura edo belozidade oso eskasekoak.

Ori dala-ta, guk karran koxiten genduzan, eta kama ganean pasauta joaten ginean. Baia gero, jeit-xikeran, egoten zirean ezbear batzuk.

Santa Gurutzeko eskolapean, kamiñotik erreka bitarte, egoan landa eder bat. Erreka orrek dauka otxin bat, eta an udan uger egiten gendun.

Egun baten, batzuek arrapada bat eginik, berbaz gengozan lagunarte bat; eta beste mutiko txiki batzuek errekan uger ikasten. Orretan, Zaldaingo Anjel Azkueta eritxona sartu zan urpera. Nik ez nendun ikusi. Baia nire ondoan egoan Karlos Otxoa, uger ondo ekiena, ak ikusirik, salto egin eta atara auen ito baño lenago, bizia salbauaz.

Beste baten, eskolatik etxerantza giñoiazala, bidean topau genduzan gizon ezezagun eta itxura txarreko bi; eta guk, malizi barik, alkarrri esaten zelan libretarako dirua emon geuntsan maistreatari. Baita il orretan beste batzuetan baño geiago.

Gizon orreik gure atzetik segidu Uriondorarte, eta zer esan gendun dana entzun.

Esan dodan moduan, gure etxean geunkan baserri usuko taberna edo denda moduko bat, zeozer saltzeko. Nik, eskolatik etxerantza, Arbildun artuta ekarri nendun iru kiloko ogi bat. Gizon pare orrek, gure etxera sarturik, eskatu auden:

— Ezer badago jateko...

Eta gure amatxuk erantzun:

— Gura badozue, ifiniko dautzuedaz bakotxari arraultza pare bat txorizo bategaz.

Konforme geratu zirean gizonok. Ezarri eta jan audenean nik ekarriko ogiagaz, asi zirean biraoak: ak, ogi ak, jaboi kiratsa eukala eta ez joiazala pagetan.

Martxaurik, gure amatxuk esan auen:

— Doiazela Jaungoikoagaz!

Ilunabartu auen, eta gau aretan eskolan ostu
edo lapurtu auden egoan diru guztia, maistreak
konfiantzara itxitakoa. Diru ori zan ogetazazpi edo
zortzi pezeta. Gaur ez da asko, baia orduan bai.

Euskaldunaren kontzientzia
ifin guraz argitua,
librea dala izkuntza eta
errian espiritua.
Kapitulu au irakurtean
dago ondo garbitua,
estudio barik idazteak
euki leiken meritua.

Justu-justuak lau erregelak
nire jakintzak daukona,
bertsoetako grazi apur bat
gure Jainkoak emona.
Sustraiz euskaldun guraso eta
aitita eta amona,
euskera eta Euskadigaitik
daukat amore sakona.

Guraso eta andiagoaz
geuk gendun errespetoa,
gaurko gazteak diño dala
diktadura konpletoa;
bardina dala txikia edo
norberaren menpekoa,
galduz dotriña, sexoa libre,
artuz droga pendejoa.

Labrantza

BASERRIAN jaio garean guztiontzako, nire ustez, umetatik asten da labrantza, bai itau-rreko, botxoetara azia botaten, indaba, iturriko ur preskoa ekarri, errekaduak egin eta ganadueri euliak kendu.

Oso artega geratzen zirean areik, euliak pikatutakoan. Batez be ganadu asko egoten zirean ezkerro, euliak orreingana ugaltzen zirean.

Norbere janariak be tapatu bearra egoan. Ezpabe, jana artera jausten zirean. Orduan amatxuk esaten eustan:

— Artu egik eulorri bat, eta uxatu orreik, euli pendejook!

Akordatzen naz zelan Bilbotik ekarten audezan euliak pegaturik geratzeko miurazko bizka. Sukaldean eskegita ifiniz, an geratzen zirean ezin askaturik, durundu baten, erlauma baten moduan.

Labrantzan eskolatik urtetean sartzen ginean oso-osoan, nai ta, beste opizio batzuen moduan, arek ere bear audezan jakituriak eta maliziak, guraso edo anaje zarrenengandik ikasiak. Esakera dan lez, “lanbrotik formatzen da euria, eta mutikotik gizona”.

Orain asi naitean gari ereintzagaz. Orretarako garairik onena zemendia izaten zan; eta il orretan amaitzen ez bazan, abendua.

Orretarako, Arratia edo Zeberio aldean, lurrak landuteko erremintarik onena, duda barik, laia izaten zan. Gaurko gazteak ez daude jakingo laiak zer zirean. Laiak zirean bean kakoak eta kanpo aldetik eldulekua eukien erreminta batzuk. Au da, anka biak burriñezkoak eta eldulekua egurrezkoa, aretan buru biribila sarturikan, esku opoaz zapaltzeko.

Lurrak laiatuteko edo laietan egiteko, bi lagunetik gora bear dira. Bost edo sei arte be bai. Beko barrenean dabillenari *zoparrego* deituten jako; eta goi aldekoari, *zopurua*. Bean dagonak dauka misiñoa zoia ebagiteko beren tamañan; eta zopuruak, lenen laiak sartu eta besteei erakutsi zoiaren neurria. Orretaz zoparrenak jo bear izaten dau birritan. Aretarako bear dau sendo edo indartsua izan.

Nire anai nagosiak gerrara joan zirean arte, baegoan gure etxean nork zoparren egin. Baia gero tokatu jatan aretan ibil bearra ugari. Alan da ze badakit nik zertzuk direan laiak. Ezkondu ta gero be, aitaginarrebaren etxean egotean, baserri oso-oso laiatu nendun emazteagaz.

Zoia da laiakari orreik bueltatuten dauden lur zatia. Au da, ogeitamar zentimetroko zabalerean ebagiten dan zatia, eta ogetabost zentimetroko sakonerean bueltatua.

Beste labradore askoren moduan, gure aitak eukan oitura, laiatu baño len, azal urrutu edo udelandu bat egitea lurrari are edo goldeagaz, arto sustrai edo bedarra edo lastorik baegoan zotaskarra botateko, lurraren azpian geratzean satsa biurtzen da ta. Agaitik, mutikoak gura izaten zirean orretarako.

Zemendi eta abenduan eguna oso eskasten da, eta prisaz ibili bear ereintzan. Fabrikara genbizanok sarritan gaubaz joaten ginean laietan neska-mutil mordo bat, farol bategaz argi eginez, eta ilaririk baegoan be bai.

Gaurko neska-mutilak eroango balira gaubaz solora laietan, lo egingo leukie ederto. Gu, barriz, oso gustora ibiltzen ginean, nai ta izan lantegi neko-soa, neskatxakaz bide batez kontu goxoak kontetan.

Zoritzarrez gerrara mutilak eroan eudezenez, oso tristaturik geratu ginean. Andik, bakoitza egoan lekutik, kartaren bat etorten zanean, erantzuna emoteko juntatzen ginean gaztedi geiena, batez be gari ereintzatik kanpo, etxe uts baten, inok entzun ez dagian zer ifinten gendun karta orreitan. Nozik-beiñean idatzi bear izaten nenduzan iru karta segidan, talde guztiaren barriakaz.

Gobernuak ifinten auen tranpa edo estafetaren numeroa, ez jakiteko soldaduak nun zirean. Orrez ganera, ezin gendun edozer gauza esan, batez be politika kontuetan, kartak zensuratu egiten audez-lako. Baia guk amodio kontuak idazten genduzan.

Oneik dira neskatxa arrein izenak: Milagros eta Rosario Salcedo; Juliana eta Dominga Urrutikoe-txea; Julia, Abelina eta Zeferina Aiesta, nire lengusuak; Esperantza eta Maria Salcedo, Teodora Barañano; eta neure arrebak, Florentina eta Leonor.

Mutilak, barriz, oso gitxi: Juan Jose Salcedo, Dionisio Barañano eta nire gain, noz edo noz zauriturik gerratik etorten zanen bat. Besterik ez.

Noz edo noz bat edo batek faltatzen auen bai kartak idazteko eta bai gaubaz laietan joateko be. Baia zelan edo alan juntatzen ginean gitxienez zoi pare bat edo iru, eta arlo dezenteak laiatzen genduzan iru bat orduan. Ori eta egunez laiatuz, sarritan amaitu be bai soloa. Urrengo egunean, bei buztarri edo idi buztarriagaz sokilak apurtu, eta segidan garia erein.

Gari ereiteko lurrari ez geuntsan koplak andirik egiten, artoari bezala. Gari azia ereiten gendun, beratu edo kare edo sulfatoagaz untatuz. Artoa,

barriz, beratuta barik. Garia naastu edo lurperatuteko, pasatzen gendun bederatzi agineko golde edo tragesa, eta guk mokilik andienak atxurragaz apurtuz atondu.

Tragesa edo goldea da bederatzi agineko erre-minta bat. Agin orreik dira arearen aginak, baño luzera geiagokoak, lurra landuteko. Beko puntan, kollara moduan zorrotutakoak, aginak, lau aurreko langan eta bost atzekoan. Agin orreik joaten dira bata bestearen erditik, eta olan batetik bestera bitarte txikia ixten daude. Pertika luze bategaz buztarriko gurtedean sartu; eta zulo bi dauzenez atze eta aurretik, toleta sartzen jako.

Area da bost egur kuadradoak, metro bat baño zeozer luzeago aurre aldean, eta atzean bi trabesaiño, egurrari zuloa egin eta ondo josiak. Egur orreri burriñezko ortzak edo aginak esaten geuntsen, ogeitamar edo berrogei zentimetro luzekoak.

Areik errementariak egiten audezan, eta guk bada-ezpada erreserban eukiten genduzan are eta golde zaarrak edo amutzagoak, len pasadak orreikaz emoteko, eta azkenez zorrotzagaz, zelan bear alan egiteko.

Gure amatxuk esaten auen gariak bear bat bakarra eukala ona: jatea. Besteak, prisazkoak, nekosoak, zikin eta oso gogorak. Baia guk, eginalaz be, zelango pozez igaroten genduzan nekaldiak!

Gaur, zaar eginik eta kalean biziz, akordatzen naz sasoi aretako batasunaz, ikustean eskilara bereko pertsonak ez agurtu ez alkarri aurpegira begiratu barik pasatzen gareala albotik, animaliak lez, etsipenakaz. Baserrietan, barriz, orixe zan alkar laguntze eta maitasuna. Batez be gaizo edo ez bearren bat agertzen bazan auzoan, nork beren lana egin barik itxiz joaten ginean auzoari serbitzen.

Suerte edo desgraziz ni auzune andian jaio eta bizia nazelako, eta garai aretan danok famili andiak

ginean ezkerro, esate baterako aur txikiakaz egoan andratxoari zeozer ezbear agertzen bajakon, bai bularrak gaizotu edo beste malenkoniren bat, ariñeketan prestatzen zirean beste andra batzuk aurrari titia emoteko.

Baita be, ez da zer esanik, gaizo gogorren bidez ilten bazan auzoren bat, prestu ginean danok zergura eta aixe egiteko, bai ereintzetan eta bai beste edozein eginbearretan. Ez zan geratzen inor laguntzen joan barik auzolan orreitara. Pobreak eta beartsuak ginean modu batera; baia bai aberatsak be bestean.

Egia esan, aldi aretan genduzan sasi medikuak, edo baita jakituriz eskasak be. Baia auzoaren partetik orduan medikuak gizon inportanteak zirean. Bibote andi eta jaka ebagiagaz etorten zirean zaldi ganean.

Baserrietara bakarbide asko egoan ezkerro, lagundu egin bear izaten geuntsan joan-etorrian; eta, gaubaz eske joaten baginean, purrustari.

Gariaren arira itzuliz, erein eta ernetakoan laster negua sartzen dan ezkerro, martirarte ez da zer eginik. Orduan, eskuare edo esku itaillagaz pasatzen genduzan, mokil arreik apurtuz, errezago egoten diran lez, neguko edur eta leiaren gisan, eta ganean egoten diran arta sustraiak kenduz.

Gero, eldu arte, ez dau zer eginik emoten. Baia errekondu edo bean lenago elduten da garai edo altuetan baño, egun gitxiren diferentziz. Oso presaz ibiltzen ginean, egun bat be faltatu barik, igitaiagaz ebagiten zirealako danak; ez, gaurko moduan, uzta-makinagaz, lan guztia berak egiten dauala.

Aldi aretan, domekean lan egitea oso debekatua egoan Eleizagandik, eta abadeari baimena eskatu bear izaten geuntsan, meza santua entzun ondoren, gariak ebagiteko.

Suertez, egun aretan jente asko urreratuten ginean: fabriketan langile ebizan anaiak eta baita arreik ekarten audezan lagunak.

Gero, guk, astelenetik aurrera, eguzkiak galtzuak sikatutakoan, bizkor ibilten ginean eskutadak eginez, zutik ifinteko metatuz, lenengo meta txikietan egun batzuetan, eta gero meta andietan, arbi lanak egiteko libre itxiz.

Oso presaz ibili bearra egoan, batez be ebagi eta metatu arte lurrean ixtean, ernetzeko arriskuaz, euria egiten baauen; eta eskutadak egiten atzamarrak urruturik ibilten ginean, galtzu sikatuak eskuak zauritzen dauzelako.

Oraindik falta jaku lanik astunena edo gogorre-na; au da, gari jotea. Orretarako, len-lenik eguraldi on edo eguzki beroa bear da, gure alderdian eskuz joten ziralako, arri losa baten ganean kolpe emotean. Zeinbat eta bero geiago, orduan eta samurrago galgaraua soltetako.

Gure auzune oso ona zan, atxarte bat dalako, eta ori geiago berotzen da. Ondoren, zabal-zabal ifiniz, ederto sikatzen dira.

Lan nekosoan dan ezkeron, komeni zan etxe ondoran ez bazirean, gari solotik etxera eroatea gari talde bat, larregi nekatu ez daiten orreik eroaten etxe ondora, eta gero porrot egin.

Orrelan ibil bearra egoan egun askotan, amaitu arte. Inoiz jo genduzan berrogei anega, garbitutakoan neurtuak, eta ez da txantxa a.

Garia jo ondoren, galtzua geratzen da altzau barik, eta baztertzen da ganbara edo tollara edo goitegira. Gari jotzaileak, galgaraua arri losaz kolpez kendu ondoren, botaten dau atzerantz, plegatzaile bati. Aretarako be bear izaten dira mutiko edo pertsona abilak. Ezpabe, zabal ixten badira, toki edo leku andia bear daude.

Gari orreik jotakoan, gure denporan be baegozan makina garbitzeko, elduleku barruan engrane baten bitartez pala andi batzuekaz aizea formatuz garbitzen audena; bi alditan pasatuz makina aretatik oso garbi ixten audena. Bera botatean garia galauts eta guzti, trabatu egiten zan a; eta, ori jazo ez dagian, makinistak eskuagaz libretan eutson, bear zan tamañan.

Makinak botaten auena garbitu ondoren, mutiko edo beste pertsona batek eskutorraz atzeratuten auden aien azpira, sartu eta berriz zikindu ez daiten. Niri beintzat makinatxo bat aldiz tokatu jatan lan ori.

Garbitutakoan, gorde ondo kaixa edo toki on baten, errotariak ioaz ogi ederra jateko. Eguraldi ona ez zanean, galondoa landu bear izaten gendun. Galondoa da arbia ereiteko prestatu bear dan lurra, garia ebagitakoan.

Len-lenik, area motz bategaz pasada bat emoten geuntsan, bedarra kendu eta erretzean kentzen dana enbarazutik; eta gero, are zorrotzago aregaz beste bi pasada emonik, oraindik gitxi bazan, golde edo itailagaz beste pasada bat botxatuz arbia ereiteko.

Arbiari satsa ugari bota bear jakon ezkerro, aretan amaituten genduzan kortan zireanak danak. Sats arreik ataraten be bazan lanik asko. Sarritan berrogei burdikada edo geiago ataraten genduzan.

Orreik soloan partitzen genduzan pila txikietan, errazago egon daiten sardeagaz zabaltzeko. Eta or be mutikoak burdi arrastoak bardintzen baeukaten lana.

Irran edo zabaleran ereiten bazan, ez zan ainbeste sats bear izaten. Baia botxora ereitean, azia bota ondoren, esku biak bete botaten geuntsan, eta burdikadea erraz amaitzen zan.

Arbia ereiteko, askok esaten auen gure alderdian:

— San Lontzotik San Rokera.

Au da, abuztuaren 10-tik 16-ra; Baia 24-rarte be sasoi ona dala.

Arbi azia oso delikadua da, eta aldea izaten da goizean erein edo arrastian erein; eta bai euritsu edo guren etorten bada, landarea z anbrotu egiten da ta.

Batzuetan, botaten dan azi guztia ernetzen da. Baia beste batzuetan utsune andiak geratzen dira erne barik; eta, jakina, arreik oso indartsu etorten dira, eta bai apostuak egiteko motibo be, zeñek andiagoak daukazan.

Orain noian artoarengana. Au da landare bat mimotsu edo oso ondo tratatu bear dana, bai ereintzan eta bai jorran.

Lurrak laiatuten asten ginean, batez be libre egon ezkeru, martian, eguraldi otzak edo lei eta euri eta eguzkiz, lurra samurtu daiten.

Artoa ereiteko sasoi da maiatzean. Aretarako be, lur azala urrutu edo bedarra igartu daiten pasadatxo bat emonez, gero laiatutean zotaskara botateko, ori abonua dalako lurrarentzat.

Laiatu ondoren, are motz bategaz pasatzen da, mokiltsu geratu ez daiten, ze artoak bearrezkoa dau auts asko eta mokil gitxi. Mokil askok urten ezkeru, emoten geuntsan narrarekin pasada bat, areik apurtzeko; eta, oraindik be geratzen bazan geiago, mokil porragaz eskuz.

Gaurko gazteak ez daude jakingo nar ori zer dan. Narra da lau taket, batetik bestera ogetamar zentimetroko tartea itxiz esitu egiten dana. Au da, ori egiteko, obe da sartu taket orreik lurrean zutik, esia egin arte.

Esia egiten da urretx edo gaztain txibitakaz. Gero, amaitutakoan, ebagi lurrean sartuta egon diran zatiak; eta, narraz eroateko bei edo idi buzta-
rriagaz, kate bategaz gabitik narrera lotua.

Mokil porra altzezko egurrez egiten da, metro erdi luze eta ogei zentimetro zabal. Bazterretan, zentimetro ta erdiko lodiera, eta erdiko bizkarrean iru zentimetro. Erditik, zearkatuz, zuloa egin eta kirtena goruntz daudena, gerria larregi makurtu ez egiteko.

Ondoren, are zorrotzagaz bi pasada; eta beste bat golde edo itailagaz, auts ugariko lana eta sako-
na izan daiten, artoak sustraiak sakon bota ondo-
ren, uztaila eta abuztuko eguzki bero eta legor
aldean eutsiteko.

Satsa zabaldurik kantidadez dezentean, botxatuz artoa erein. Azia botaten gendun eskuz bai arto eta bai babarrun edo indaba, kalabaz, erremolatxa eta abar.

Garia, erein orduko, beratu egiten da. Baia artoa, indaba eta kalabaza ez, eta bai erremolatxa.

Indabak botaten zirean iru botxoko bat, eta kalabazak non edo non bat, eta erremolatxea irran edo zabaleran. Orreik erein eta aste bete barru erneten zirean, eta iru aste barru jorratu len aldiz. Bigarrenez jorratzen zirean, arta landareak ogeita-
mar zentimetro luze eukiezanean. Eta irugarren jorraldia, iñondik al izan ezkerro, landareak metro erditik gora izanik.

Frantzes azi edo sekulabedarra ereiten zan arto artera, bigarren jorra pasatuz, euria egiteko itxura-
rik baegoan, a erne dagian; eta bai non edo non arbi bat be.

Gero, garbeak urtendakoan, ganaduaren janari-
tzat kentzen jakon, eta aizeak lurreratu ez dagian artoa.

Gero, artaburuak bizar beltza jarten dauanean, kanila be bardin, sendo eta zutik egon daiten, artaburua ondo kontserbatzeko indabagaz, eta azpian erneten diran frantzes sekulabedarrak eguzkia ikus dagian.

Indabak eldutakoan, soloan batuten zirean, pixka bat lenago zoliten zirealako artoak baño. Ganbarara ekarririk ondo sikatutakoan, txibitagaz jo eta garandutakoan, gero amatxuk garbitzen auzen, aurretik esan dodan moduan, *artza* deituten geuntsan erreminta edo tresnagaz.

Eta, artoa eldutakoan, bai artaburua kapatxagaz eta lasto barik, edo lasto ta guzi, bai lepoan, bai burdiagaz etxera sartu; eta gero, lasto ta guzti zireanak gaubaz apartetan genduzan ordu pare baten. Ganbarara igon eta leioak oso zabalik itxi, aixeak sikatu dagizan.

Onelango lan guztiak orain Euskal-Errian amaitu dira, solorik geienak bedar leku itxita. Areik ebagiteko be, makina modernoakaz. Fardatu be, fardagailluagaz. Gero tratoreagaz kargatu eta ganbarara.

Artoak be bardin. Izerdirikan bota barik ereiten dira. Braban bikoitz edo irukoitzagaz bueltatu, eta area barriakaz atoa apurtzen daudez mokil guztiak. Jorratu be jorragailluagaz.

Bada propagandarik naikoa, telebista, irrati eta abar, artoak dituan bentajak, margarina eta beste gauza askotarako alimentutzat.

Baia, alan ta guzti be, gaurko gazteak ez daude joan gura baserrira lan egiten, ondo jan eta edan ondoren gozatzea baño, beren kotxe eta automobilakaz aalguztidun jarrita.

Penagarri da, baia esan bearra daukat: zer esango ote leukie lenagoko guraso askok, beren baserriak dagozan itxuran ikustean?

Azpigarria zer dan be esan daigun. Azpigarria da ganadueri azpietara botaten jaken ira, bedar edo orbela. Bedar berde, arbi, kanil eta abar jatean, ganaduak txixa eta bekorotz bigun asko egitean mantxatu edo busti ez daitezten, azpietara edo ankapetara lo egiteko botaten jake gauza sikua.

Gure alderdian, aresti, pagadi edo gaztaiñadien aparte, ira asko egoan gure garaian, eta orreik ebagiteko denpora urrilenengo edo irailaren 10-etik gora izaten zan.

Baserri bakoitxak berenak auzen lurretan edo basoetan ez baauen naikoa, erri basoetan ebagiteko artzen genduzan enkante edo subastak, dirurik geien pagetan auenak artzeko. Orrein eguna ifinten auen udalak urrilenengoaren 8 edo 10 inguruan. Au da, lenago ebagi ezkeru, eldu barik egoten zan irea, eta urrengo urterako indargetuten zan.

Garai artan ira ebaten joaten ginean, etxean lagun bat itxi ganaduak gobernetako eta beste guztiak basora, batzuek igitaiagaz eta beste batzuek kodañagaz. Guraso batzuek ez auden ikusi gura be onelango erremintarik, gitxiago aprobetxatzen diralako irak, eta azpelak egiteko be oso zaila geratzen dalako. Eta ezpabe, igitaiagaz ebagi eta alde bietara bardin botatean, gero azpelak erraz egiten dirala.

Orain esan gura dot, ez dakienak argitzeko, azpela zer dan. Azpela da ira edo bedarragaz egiten dan besarkadea, ondo moldatua. Baia segeagaz ebagiteak oso bentaja aundia eukan, gitxienez iru bidar geiago igitaiagaz baño. Ezpabe, irak bustirik egozanean, igitaiagazkoak erraz bustiten zirean, eta besteak ez, segeak kirten luzea eukalako.

Gauza oso inportantea da baserrian azpelak ondo egiten jakitea. Aretarako, gure aitak, ori ikasteko, segeagaz ebakitako bedar txikiagaz erakusten euskun zelan egin, eta erramalagaz karga egin eta

ekarten genduzan ganaduak jateko; eta, ondo ez egitean, errementatuten auden kargak, eta barriz egin bearra, etxera eramango bazan.

Iru edo lau egun eguzkiagaz eta aixeagaz ebagita pasatutakoan, joaten ginean goxaldean, leiagaz freskatuta egozan irak pilatuteko, lagun pare bat aurretik; eta atzean orgari edo karreteroan bei edo idi buztarriagaz, areik batutakoa etxera ekarten.

Pila bat egindakoa, aldatza baegoan, goi aldetik atxurragaz zulatuten gendun, lau edo zelai geratu daiten burdia.

Burdia kargatuz mogidutakoan, batak ganaduak giatuz, besteak egurrezko zatai bat sartuz palanka eginez eutsitean itzul ez daiten, eta basoan geratzen zireanak batzean, arrastian barriz beste burkada bat ekarteko; eta ondoren ira ebagiten geratu basoan, etxera etorri barik gauberarte.

Orretarako, antxe neska edo mutikoren batek eroaten eutsien bazkaria, lapiko bete indaba, sebo edo zezin edo urde apur bategaz; eta edateko, ura.

Udagoien garaia zalako, sagar, maats, iko edo abar jan ondoren, siesta apur bat egindakoa, barriz ira ebagiten, burdia etorri arte.

A kargatu eta etxera etortean, iluntzean, ira pila andi bat egiteko, sardeagaz batek goruntz bota eta besteak plegatu eta sakatu.

Olan ekarten genduzan ogei bat burkada, negu guztirako azpigarria eukiteko ornituz.

Irak ekarteko bideak konpondu bearra egoan ezkerre, deituten geuntsen andik pasatu bear auden guztieri; eta, batenbat etorten ez bazan, multa seinalatu be bai.

Garrafoi bete ardo ekarriz, amaitutako iluntzean parranda apur bat egiten gendun, lan arreituan ibiltzen gineanok.

Gero, burdiak preparatzen zirean taket berriakaz, eta bai aurreko taket bietako puntan batetik bestera langa edo estrabe bat ganadueri ipinten geuntsen, iregaz ipurdian minik ez artzeko, luze kargatzen zan burdia eta.

Gure alderdiko burdiak eukien egurrezko gurtzila, eta kargatutakoan oso irrintze asko egiten auden.

Auzune aundia ginean ezkerro, sarritan iluntze askotan juntatzen ginean dozen erdi burdi kargatuak lerro edo errezkian. Goiz partean gitxiago, batzuk oso goiztar ibiltzen zirealako, batez be Mariano Bilbao, Upoko basotik.

Bakotxak beren arloetatik ekarriz, urreratuten ginean, esate baterako, Uborotako landan: Juan Salzedo beren Gabiardatzko basotik; Juan Pedro Salzedo Iartuetako basotik; Juan Krutz Barañano Akitebarritik; Anjel Barañano, orren anaia, Atxon-dotik; Bonifazio Ugalde Ezkurritik; Agustin Aiesta, nire osaba be Ezkurritik; eta gu be Iartuetatik. Eta urrengoko kurtzeroan, Goiko Landan, Makatzagatik etorrita, Juan Jose Salzedo Mortxogandik; Juan Jose Larrakoetxea Makatzagatik; Tiburtzio Lekue Arminetatik, eta abar.

Goiko landatik Solobarriondora, Bidezurieta deituten dan lekuan, aldatz andia egoan; eta ganaduak aurretik eroan ez dagizan, galgau egin bear zan burdia.

Galga orretarako ifinten zan kate zati bat, puntak amarratuz, burdiaren langa edo trabesainotik eskegita. Orduan, galgearen egurrezko palu lodi bat, burdiaren zabalerako luzaera eukana, eta palu ori sartzen zan katetik aurre txirrinkari palanka egitean lotuteko beste puntatik, erramalagaz tiratuz zelan bear ala.

Andik urte batzuk barru, agertu zirean beste galga klase batzuk, burdi pertika edo burkamaren

puntatik asi eta galgaraiño azpitik zijoana, erdian biribilduta, burdiñezkoa, aurretik buelta emotean txirrinka biak galgatzen auzena.

Baia noian lengo arira. Egundo lengoz gure errian fabriketako langileri oporrak emoten asi zireanean, aste bete zirean opor orreik, eta gure etxean beintzat ederto etorriak zirean, labradore genbizanori lagunduteko. Anai bi edo iru ibilten zirean ezkerro kanpoko lanean, sasoi oneko iru lagunek aste betean lan asko egiten auden.

Anai oneik zirean Boni eta Pedro, gaur Jaunagan dagozanak, eta Jose, adindua, baia oraindik Uriondoko jaiotetxean eta soloetan zeozer egiten dauana.

Arboladi inguruetan irak ebagi barik ixten genduzan, arein orbelak aixeak eroan ez dagizan. Jakina, udagoienez jausten dira orri edo orbelak; eta neguan be nozik-bein, ilbeltzetik aurrera, egoaixeak urten ezkerro, eguraldi epel edo aizetsuak egitean, orbelak ekarteko aroa izaten dau; eta, esan dodanez, ebagi barik itxitako iragaz batera azpelak egin eta kargatuz ekarten genduzan orbela burkada batzuk, ez udan lez, baia zeozer.

Au bai: alboetatik jausi ez daiten, inarra zuri edo abar batzuk ifiniz, pintxo-pintxo etorten ginean, orduan ez egoalako basoan geratu bearrik bazkaltzeko.

Baia ori bai: bideak ez zirean ederto egoten, eta areikaz atzerapen batzuk izaten genduzan, lupetz artean sartuz bei eta gurdi, eta ezin andik urtenik. Iñoiz edo bein suertatu jakun auzoeri deitu bearra, aurre idi egin eta andik urteteko, eta geuk beste batzueri be bai.

Orain dala irurogei bat urte, ni gaztetxua nintzala, baserrietan baegozan usadio jakingarri batzuk maiatzetik bagilera bitarte, eta bai San Juan bezpera iluntzean be.

Erri zabaletan, nozik-bein auzune batera joaten zan abadea, soloetan egozan arto edo gariak bedeinkatuten, tormentaren batek arriagaz lorrindu edo ondatu ez dagizan uztaldi edo kosetxak, edo uriolaren batek eroan ez dagizan narras lurrak.

San Juan, oraingo moduan, bagilaren 24-an da. Usadio zaarrak diñoskun ezkerro, santu au da laborantzako uztaldiaren abokatu edo jagolea; eta orregaitik, bezpera iluntzean, galtzu eskutadak artuz, sutan dirala, solo inguru guztietatik buelta emonez kantetan gendun auxe kanta au, solo guztietan errepikatuz:

San Juan bagilean,
denpora ederrean,
sapoak eta sugeak erre,
artoak eta gariak gorde,
San Juan bezpera gaue.

Gero, etxe ondoan egiten gendun su tzar andi bat, eta aren ganetik saltoka eta inguru guztitik bueltaka ibiltzen ginean jira eta bira, txorakerian.

Segidan urreratuten zirean trikitixa edo alboka edo pandero soiñu eta abar, eta kanta eta jantza. Baita, lapiko edo beste ontziren batzuk ekarriz, txokolatada andi bat egin. Ori jan eta gauerdi edo goizalderarte egoten ginean poz-pozik, lotara joan arte.

San Juan goxeko egunsentian ekarten zirean lezarrezko arbola gazte edo errama batzuk; eta, orreri ebagi bat egindakoan erdian, andik sartu beste egur landu zati bat gurutzea formatuz, ifiniteko etxeko sarreran goi aldetik arkua eginez, arrosa eta erramu edo beste lore eder batzuekaz. Baita beste ate edo leioren bat baegoan be, eta batez be balkoan.

Orrez gain, erri batzuetan bazan beste oitura bat: Erramu egunean bedeinkatutako erramuak,

eta bai Santa Gurutzetan bedeinkatzen zirean
arantzazko gurutzeak be, ifinten zirean etxetikan
aparte solo guztietan erdian, jagon dagizan Jesus
Jaunak gurutzearen bitartez.

Uztaldi danak bedeinka daizan
San Juan jaiaren oiturak,
sasoi batean zirean emen
atseginezko benturak.
Gaur arrokeri ta inbidiaz
doguz ariman loidurak
diruagaitik saltzeko prestu
izenak eta deiturak.

Errentadoreak

LENAGOKO denporan, baserrietan, etxaldearen errentea pagetan zan urtean bein, au da, San Tomas egunean, abenduaren 21-ean. Egun orretan pagetan jakozan ugazabari urte guztiko zorrak. Batzuk, diru señaladuaren aparte, egoten zirean bear-turik emoten ollasko pare bi, edo zelemín bi edo iru intxaur, dozena pare bat arrautze, sagar eta abar.

Jeneralean, orreik gauzok eroaten jakiezan bezperan, da San Tomas egunean gizonak joaten zirean, errentako dirua aldean audela, mezara. Gero, meza ostaien, bazkal aurretik, ugazaba bako txaren errentadoreak moltsoan, kontuak egiten ugazabagana, mantso-mantso. Kontuak eginik, gero errentea igon, edo amenazuak be bai konforme ez zanarentzat. Ugazabak, beren partetik, egun orretan ifinten eutsen bazkari ona ta ugari.

Gure errentadore lagun artean, beste leku batzuetako moduan, egoan txantxa-zale bat, eta —zegaitik ez?— gixajo bat be bai. Gixajoa gendun oso triperoa. Orduan txantxa-zaleak diñotso gixajoari:

— Ni or ugazabagaz kontuak egiten egondakoan, komunerako atxakian arrimau nok sueteko atara, ta or ez jagok besterik, kazuela ta lapiko batzuk zopa eta egosgarriagaz baño.

Danak errentea pagau orduan, ugazabak deitu eutsen bazkaiten, jarri daitezcan maian; da, jarririk

eperdi garbitzailea edo itxu aurrekoa alboan auela, asi jakien matrakan batzueri, ta errentea altzau be bai. Ta errentadore gixajoak ez eukien beste bengantzarik, janean kendu baño.

Alango baten asi zirean bazkaiten, da triperoak iruntsi bearrez ataraten eutsen guztia: lenengo zopea ta gero garbantzua azeagaz, ta gizon ori bete zan agoraiño.

Baia a zan tristezea, ikusi orduan kazuelakadak okela ataraten ugazaba-andrea, ta berak ezin jan! Txantxa-zaleari errua bota ta negarrez asi zan, esaten:

Alde batetik errenta altzau,
bestetik amenazuak,
errentadore koitaduantzat
dagozan makilazuak!
Egosgarriaz beteta okela
ezin janaren kasuak,
negar eginik amaitu dira
pazientzian plazuak.

Ermandadea

ALDI aretan, baserritarrak ermandadeak eukiezan, alkarri lagunduteko.

Ermandade batek ditu maiordomo edo nagosia eta beste iru tasatzaile. Oneik kanbietan dira urteagarrenean, eta ganaduak tasetan dira iru ilabetetik iru ilabetera. Denpora txarren bat izan ezik, atara bear izaten zirean batzarrera, bai malortuko zelaira eta bai elaurtara. Denpora txarra baegoan, kortan bertan tasetan audezan.

Abuztuaren lenengo domekan, urtean bein, batzarraren osteian, zelebretan zan ermandadeko meriendea, garrafoi bete ardaogaz. Janaria, bakotzak beren etxetik eroana.

Merienda orretan berba-bide zirean urte guztiko goraberak, eta nozik bein egoten zirean ezbardintasun batzuk edo eztabaidak. Baia tira: sarritan ez zan gizona berba egiten auena, ardoa baño. Orduko interan ez zan lez edaten Gabon, Azentzio edo egun andietan baño, ta alan efekto geiago egiten eutsen ardaoak.

Abuztuaren lena izaten zan piper barrien edo txorixeruen denporea, ta orregaitik afan andia egoan merienda orretara. Batek besteari erakutsiz, esan eutsen:

— Badaukaguz piperrak, ba, auzune guztian ez dagozen modukoak.

Besteak:

— Bai. Ederrak daukazuz benetan.

Mutil gazte bi egozan andik urrin barik, eta entzun eutsen zer esaten eutson batek besteari armoni orretan, da diñotso batek lagunari:

— Goazan orren erronkoso orren piperretara, eta kendu piperrik onenak, geuk mutil gazteok merientetako.

Artu zaku bat eta badoaz. Kendu piperrik onenak eta gorde kamaran, gero eurak tabernan jateko.

Mutilak tabernan afaiten dagozela piper ok, baetozan agurok tabernara; ta, ikusirik piperrak jaten, esan eutsen:

— Geuk be badaukaguz piper ederrak ba.

Mutilak opatu eutsezan piperrak probetako, ta agureak artu be bai. Ta diñotso orretariko mutil batek:

— Bai, bai. Jan piperrak, zeureak direan lez.

Agure ori ez zan konturatu momentu orretan, baia bai urrengo egunean, joan zanean piperrak ikusten da topau danak utsiturik.

Balio andia daukan ezkeronai bei, txal eta idiak,
ermandadea bearko daude emen auzune guztiak.
Gaizoa sarri etorten bada eta tragau desgraziak,
ondatu eta miseri baten direalako jausiak.

Artzantza

NIRE garaian, ardiaren frututik etxe bizitza bat mantentzeko, bearrezkoak izaten zirean gixienez berreun buru eukan artalde bat; eta gure etxean geienez izaten zirean larogei.

Orduan, famili andiak gineanok, eukiten genduzan bost edo sei basabei eta beste orrenbeste bei kortakoak, euren txal edo bigantxakaz, txal-zekorrak arategirako okela saltzeko eta bigantxak biziterako.

Bei orrein esneak izaten zirean etxeko janari edo mantenu, opil, errari eta abar zopa egingez jateko.

Aita edo nire kasoan anai zarrenak buru zireala, izendatzen euskuen arlo edo zer egina; eta mutiko edo txikiak izaten ginean jagoleak.

Ardiak udan, antzutu orduan, eta janaria bonbon edo ugari, indartzen dira atoa, eta zeloan jarri edo arkaratu be bai batzuk aurrenik; eta, sasoi txarrean edo neguan arkumak edo artxoak egin ez dagiezan, arittoa etxeratu egiten zan ardien tartetik, uztailaren lenengoetatik urrilenengoaren azkenerarte. ondo gobernatu eta pentsua emonez, galgarau, artagarau eta abar, sendoturik egon daitezcan ardiak ernaltzeko.

Ardiaren ernal denpora da justu bost ilabete. Esate baterako, ardia arkaratu eta ernaltzen bada

urrilenengoan, artxoa jaioteko denpora da marti lenean. Orixe da garairik ederrena.

Udea izaten zan pastoreak zer eginik gitxiena izaten auena, eta denpora orretan baserrian baegozan gero esango dodazan zer eginik asko.

Udagoiena izaten zan garairik onena ardientzako, gure alderdian baegoalako aresti, gaztañadi, pagadi, artadi eta abar. Eukazan ezkur edo frutuak izaten zirean ardien zoragarritzko janariak, eta orrein bitartez egoten zirean sendo eta indartsu negu baltza igaroteko, bear izana eukielako.

Gaztaiñak batuten genduzan basarteetan egozan lezarrezko baranda luze areikaz. Jakina, batzuk zirean laburragoak, besteak baño. Au da, gizonezko trebeak igonik gaztain ganera, erabilten audezan laburrenak; eta beste indartsu edo gizon sendoak lurretik baranda luze areikaz eraisten audezan. Pertsona zaar edo andrazkoak, barriz, soloan urkaitxakaz xexto edo otarre batzuekaz pilatu gaztañak esi batera, kirikiño guztiak an usteldu daitezcan, garauak apartatzeko.

Gure alderdian aldi aretan oso gaztain asko egoan. Orduan, etxerako bear zana itxiz, beste ganekoak saldu egiten zirean, ondo garbituz eta onenak eskojiduz salmentarako, oneikaz zeozer diru bilatzeko, bear izanik asko gendun eta; txiki eta marazenak, barriz, txarri edo beste etxeko abereen mantenu.

Garai aretan bazan diru eskasi eta bear izana ugari aldeko arropa zar ta urdaileko tripazorriaren bidez, soñean genduzan jantziak adabu eta mendel altzitu areikaz.

Gaztañak etxean jaten zirean iru jatorduetan, bai danbolin bete gazteentzako erreta, eta bai zaar edo agin gitxi eukiententzat egosita. Txarria il arte zeinbat gose kendu ote gendun janari aien merituz, gura neunke nik jakin.

Ardieri be gustatzen jaken oso; eta indartsuenak, agina sendo eukielako denpora gitxin gaztain asko jaten auden ezkerro, estomaua lertu egiten jaken.

Ezpabe, auxe izaten zan ardiak zeloan jarri edo arkaratuteko; eta aritoak, oneikaz ebizan ezkerro, borrokatzeko be bai, besteren bat agertzen bazan.

Uriondoko baso baten, Urrusti deituten dan tokian, nik amar urte nenduzala, egoan gaztaiñadi eder bat Frantzisko Gotirena. Baia beren maizterrak gozatzen auden, eta oneik zirean Justo Amundarain eta Tiburtzio Lekue.

Batez be eguraldia bazan egoaizeagaz, ardiak atoan jeixten zirean goiko mendietatik gaztain jaten; eta, artalde bi bildurik, bata zala Joakin Aiestarena eta bestea gurea, borroka asi aritoak eta alkar bentzitu ezinik, nai ta banatu bi edo iru bidar, iru egun pasatu auden alkar joten, nozik beinēan deskantsatuz.

Zoritxarrez, andik urte gitxi barru, aurretik esan dodanez, gaztain guztieri sartu jaken gaizo osa ezin bat, eta danak sikatu zirean.

Baita ugazabak lurralde areik aprobe txatu be, pastoreen arerioa dan piñu baltza sartuz, pastorearen bizitza ondatuz.

Aritoen borrokak seinalatuz esan gura deutzuet beste jazoera bat. Au zan Uriondoko auzunean, ia ogei lagunek ikusia.

Aurretik esan dodan moduan, arittoa aparte eukitean ardi tartetik, eroan nendun domeka egun baten solora, bedar gozoa jateko; eta solotik aritoga gaz etortean, topau nenduzan auzoko Juan Krutz Barañano eta Zeberrioko beterinario famatua, don Rufino Goti, Juan Krutzen arittoa ondoan eukiela; eta esan eustan Juan Krutzek:

— Lino, ifini gura dituk aritoak borroka?

Nik esan neutsan ezetz, nirea txikiagoa zalako. Eta don Rufinok barriz:

— Ifini egik.

Asi zirean kolpeka arito biak, antza emonez alkarren buruak apurtu bear audela, berrogetamar bat kolpe emonik, eta gureak irabazi auden; eta beterinario jaunak esan auden ez audela ikusi olako ikuskizunik, eta Zeberiko jaietan ez zala faltatuko arito borroken txapelketa; eta ala izan zan urte askotan.

Andik zortzi bat egun pasatuz, etorri zan Larrango Olinpio Solatxi —Larragan da alboko baserri bakar bat—, beren arittoa adarretik kate bategaz amarratuz. Jakitun egoan zer pasatu zan Juan Krutzen arittoagaz. Progatu gura auen beraien arittoaren indarra, eta esan eustan ea gura nendun borroka ifini arittoa.

Erantzun neutsan baietz. Baita asi zan proba ori, eta aiena be nerea baño astunagoa zan, baia a be bentzitu auen gureak laister.

“Domu Santuetan, edurra mendietan” da erre-frau zaarra, eta izan be alantxe da. Orduan ardiak gauba pasatzeko etxera ekarten genduzan goiko mendietatik bada-ezpada, edurtzaren batek ez ustein arrapatu ez dagiezan mendi gailurrean, eta gero ekar ezinagaz goseak il eta tragau. Zoritxarrez, nai ta bizkor ibili, nozik bein jazoten zirean alango desgraziak. Jaunari eskerrak, neri ez jatan olangorik jazo.

Negua izaten zan urteak daukonik urtarorik baltz edo gaiztoena pastorearentzat, batez be edurtza andiakaz. Edurtza txikerra zanean edo ardiak etxetik atara al izaten zireanean, eroaten genduzan Altzaga erreka edo Zaldain erreka ondoetara.

Edurra zuria dala kolorez, baia izatez oso baltza da, batez be pastore pobre eta txarto jantzientzat;

eta aurreko urtean ildako txarriaren janariak amaitu badira, geiago.

Famili andietan beartuak ginean ardi zar batzuk ilten, eta arein benedeziñoz igaro urrengo txarria il arte, odoloste batzuk eginez eta sebo apur bat edo koipe ondakinakaz lagunduz, oneik ez eukielako gitxi baño.

Eta geiago bear bazan, basabei zaarren bat il, zezina jateko. Bai be beraren narruagaz oñetarako abarkak egin, narru au ganbaran ondo tiraturik, untzeakaz josita.

Abarka orrein neurrietarako, plantilla bat bilatzen euskun aitak; eta gero, ezten bategaz zulatu ta kordelak ifiniz, etxean egindako areikaz serbitzen ginean, dendatikan ekarri barik, diru eskasia egoalako batetik; eta, bestetik, dendan erosiak izaten zirean automobillen gurpiletako goma zatiak, eta oso gogorak be bai.

Baia batak zein besteak etzirean urratu be egiten gaurko oñetakoak bezela. Eta batez be bost zentimetroko edurra baegoan, goi aldetik sartzen jakun, eta beti oiñak bustirik. Makina bat bidar sikatzen genduzan aldean oñetako eta arropa bustiak. Agaitik ez da mirari orain zaar eginda erreumagaz makurturik egotea.

Galtzerdiak be etxean egiten zirean. Jakina dan ezkerero, guraso eta bederatzi seme-alaberi galtzerdiak egiteko baegoan naikoa zer egin, eta amatxurentzat ezinezkoa zan.

Orduan, baktxari ifinten euskun amak beren arloa, batez be edurtza andiak egoten zireanean. Eguna labur eta gauba luze, iluntzean beroaren inguruan urreratuten gineanean, mutileri artilea iraun edo ardatztu, eta neska edo arrebak puntu egiten, txikieri puntu lisua edo zuzena, eta nagosierri orpoak eta galtzerdien amaierak.

Ez da zer esanik, irakasle moduan ibili bear andrazkoak, ainbeste lagunakaz etxean, nai ta garai artan orain baño errespetu geiago izaten gendun geure guraso areikaz.

Aitarentzat, erregali andi bat bezela, domeka eta jai egunetarako, erosten auzen amatxuk dendan saltzen zirean mantar batzuk, eta areikaz ederto ibiltzen zan. Baia astegunak danontzat zirean bardinak.

Aitaren iluntzetako lantegia egunero izaten zan sutondoan artoa garanduz errosario santua erreza-tea, eta beste guztiak erantzun errespeto andian. Ezaguera nendunetik aita il arte, zeinbat errosario errezatu, eta zeinbat jatorduetako janarien bedeinkaziño, eta zeinbat kilo arto garandu ote auzen? Jaunak beragan dagizala.

Errefrauak diñon moduan, danontzako ez dago feri gaizto edo txarrik, eta alde batetik guretzako be alaxe zan. Edurtza andiren bat egiten auenean, lenengo bearra izaten zan sutarako egurra preparatzea. Ordurartiño txikitu barik itxitako enbor eta mukur-egur gogorren bat txikitu.

Artzen genduzan aizkora, trontza, ziri eta borra, eta jo ta ke otzak kentzen genduzan bi aldiz: bata egurra txikitutean eta bestea sutan egoanean.

Orrez gain, etxetik auzoko etxeetara be bideak ebagiteko, burriñ palak artu eta edurra kendu. Ortura eta solora be bardin, arbi edo zeozer janari etxera ekarteko, abereak jan dagizan, janari orreik leirik baeukien geldarrastatuz.

Ardiena izaten zan oso zaila, batez be egun askotako edurra baegoan. Etxe ondoko arteari, errama batzuk ebagi eta ekarri, eta janaritzat emon orria. Gorostia be bardin, al bazan, ze ganbara edo lastotegian eukiten genduzan bedarrak ez zirean naikoa etxeko abere guztientzako.

Ezpabe, pentsu apur bat emoten geuntsen: bai artagarau, bai galgarau eta abar. Baia ardi batzuek ez ekien ori jaten, eta orduan erakusten beartuak ginean, bizirik atara gura bagenduzan.

Len esan dodanez, garai bakotxak dauka beren txanda, eta mutikoak be bai eurena. Zelan ez? Gu, mutikoak, geu be bardin. Zepoak arturik, oso trebe ibilten ginean txoriak koxiten. Txikiak be gustatzen jakuzan; baia aitak esaten euskun itxiteko libre areik, eta andiagoak artzeko.

Egun batzuk pasatuz edurragaz, segidan etorten zirean bai zozoak, bai birigarroak, bai durdureak, eta belak eta usoak be. Ai ze gozoak lumatu eta jateko kazuela bete, aietakoren bat jausten bazan.

Baia askozaz geiago beldurrezkoa. Nozik beiñean goseak ilik etorten zirean azeri eta otsoak, Gorbeia-tik gurutzatuta, etxearen ondora, eta noz edo noz be bai basurdeak.

Azeri eta otsoak koxitea, naiz izan bizirik edo ilik, eukan baserritarren aldetik beren soldata edo saria. Etixerik-etxe joaten zirean bila. Eta iñoz edo bein koxiten bazan basurderik, orduan izaten zan jan eskasiagaz, zelango banketea jente pila batek!

Aztu ezina daukat alango egun triste baten etxetik atara ardiak eta edurra botaten asi zan segidan ugari; eta orduan guk erabilten genduzan soñeko, jantzi eta oñetakoak baeukien naikoa zer desiatu.

Zaku bat burutik txotiño ifinita, eroan nituan ardiak Auntzezietara zeozer jan dagizan, goian edurra egoalako. Au jazo jatan amabi urte nenduzala, 1933-ko abenduaren erdi inguruan. Eguerdia baño len edurra loditu auen, eta pentsatu nendun ardiak etxeratutea, ezpabe gero ezingo nendula.

Mogidu nintzan, aurrendaria lenen ifinirik, eta a zan desgrazia: aldatz andia egoanean, ardiak bidatu ezina, uleetan edur bolak formatzean. Artu nendun

argalena lepo-bizkarrean eta bidatu goruntz, besteri deituz. Bai segidu be indartsuenak beintzat, apur bat bidea zabalduz. Orduan, beste ezin korritu audenak, lena bezela, lepo-bizkarrean, eta olan errepikatuz iru edo lau txandatan.

Axe bai zala konta ezinezko poza artu nenduna gauba egiterakoan justu etxean aurkitzeaz neu eta neure ardiak. Edurra izango bada, bearrezkoa da otz egitea; baia arrats aretan ez nendun nik otzik pasatu.

Ez dakit zelango itxura ekarriko nendun; baia badakit aririk ez nendula siku; eta, ikustean, amauxuk esan be bai:

— Ene semetxua! Ik dakark busti aldi edo boga-dea!

Ama errukitu zala entzutean, negarrez asi nintzan; eta beste neba-arrebak an zireanak barre egin auden, nenkarren itxura ikustean. Amatxuri gitxi gustatu jakon, eta atoan ixildu auzen, esanez:

— Au ez da txantxetako gauza, pulmoniren bat artzeko arriskuan dago ta! Emon oneri arropa sikuak!

Orduan nasaitu nintzan zeozer. Ez dot uste erabiltze gaiztoagorik edo nekaldi andiagorik artu dodanik neure bizitza guztian.

Gaur egun, mutikoak urietan edur eske egoten dira, edur bolakaz alkar joteko. Baia guk derrigorrean egiten genduzan edurragaz bola andiak sarritan, iru edo lau lagun eginik lurmenduten, ardiak zeozer jan dagien; eta oso pozik aldatz apur bat baegoan. Alan, posible izaten gendun bola ikaragarriak egin eta ardiei zeozer jaten emon.

Nai ta oraindikan ostikada batzuk beragan izan negu baltzak, asto gaiztoen moduan, eta ekaitz batzuk egin, udabarrira urteerea oso zoragarria izaten zan pastoreentzako. Alan orain sartu gura dot martira edo artxoan jaiotzera.

Esan dodan moduan, axe izaten zan pastoreak senperrenik geien pasa edo nori begiraturik geien eukiena.

Orretarako artzen auden anai txiki edo mutiko edo neskaxa baten laguntasuna. A izan zan nire eta beste askoren asierea pastore, eta eskolara eskolak ikasteko biali baño beste zer egin edo bear izan geiago dauka gizonaren bizitzak.

Aldi orretan edo zezeilaren azken aldera, artxoak egiteko dagoan ardiak euki dagizan beren artxoarentzako aiña esne, lagundu bear jako gaubaz legorreen lo egin arazoz eta bedar edo jatekoa emonez. Orretarako, pastore nagosiak serbitzen zirean gugaz.

Goizean ataraten genduzan ardiak larrara, nai ta jateko gitxi izan neguko edur eta leiakaz, zeozer jan dagien. Nongo alderdiko solora eroan bear zirean, ango alderdiko basora eroatean, bai Iturrietara, bai Goikolanda, bai Botozaar, bai Basatxi eta abar, gero soloko bedarrari leia kendutean eroateko ara jaten.

Orretarako etorten jakun guraso edo anai nago-siren bat. Baia bien bitartean, gure auzune andia zan ezkerro, jente asko ginean eta olgau edo jolasten ginean: Dionisio, Pedro eta Justo Barañano, Kandido Ugalde, Pedro eta Juan Jose Solatxi, Rosario Salzedo eta abar, neska eta mutil pila bat, trapuzko pilota, burdin txirringola, txirikila edo marroka.

Soloan euki bear izaten zirean ardiak, jataldi on bat egin arte. Nai ta norbera goseagaz egon, berandu joaten ginean bazkaiten, batez be jatekoa murrizturik egoten bazan. Andik atara ondoren, barriz be larrara.

Baia artxo arrak saltzeko izaten zirean eta ez zan komeni kanpoan saltoka ibiltea, ez zirealako gizentzen. Salmentarako orduan sartzen genduzan urretx paluakaz egindako esi biribilaren barruan.

Baia orrein amak baekien non egoan beren artxoa, eta gura auden ikusi eta esnea emon, eta anka egiten euskuen gitxien deskuidatzen gineanean. Jagon ezinik senperrenak pasatzen genduzan, baita sarritan negarrez be.

Olan apiril erdi edo azkenerarte, basoan jatekoak urten artean. Orduan, basora bialtzean, artxo arrak, geienak, salduta izaten zirean, eta aien amen esneakaz gaztaia egiteko, esne bila joan bear izaten gendun goizean eta arrastian. Orretarako, bizkor ibili bearra egoan. Goizean anaia edo aita joaten bazan be, arrastian gure ardura zan.

Eskola orduak bederatzietatik amabietara zirean goxean, eguzkiaren orduan; eta ordubi ta erdietatik lau ta erdietara arrastian.

Baia itzuliz lengo arira, alan sartzen ginean bagila edo udan. Sasoi orretan zan denpora artilea mozteko. Au be oso lan neketsua da. Ardiari elduz, ifinten gendun eserita, lenik tripako uleak mozteko. Gero, lau anak lotu kordel bategaz, eta segi *traba-traba* artaziakaz mozten, amaitu arte. Lan au zoruan egiten gendun; eta giltzurrunetako minagaz, zutik jarri ezinik aurkitzen ginean.

Au egin ondoren, artxoak ez auden ezagutzen ama, eta beeka asten zirean lenengo egunean. Baia erraz konturatzen zirean amaren usainagaz.

Biziterako zirean urrixak amagandik aldatzen zirean, antzutu eta zeloan urten arte, berriz ernaltzeko; eta arkumak solora ekarten genduzan denporaldi baten, aztu dagien amaren esnea.

Ardia da animala epel edo argala. Ganera, ule asko eta luzea daukan ezkerre, oso erraza izaten dau, sasiak ule euretatik oratuz, askatu ezinez geratutea. Eta nozik beñean jazoten dira kasoak, erreka txarkoren batera amilduz jaustea edo olango desgraziak.

Orregaitik, pastoreak be bearrezkoak dauz, beste opezio batzuetan lez, jakituri batzuk euki. Esate baterako, neguan ardiak etxera edo kortara ekarten joaten danean basotik, apur bat pilatutakotan, kontatu bearra izaten dau, ea ardi danak dagozan edo ez; eta, kontatutakoan, faltatzen bajako batenbat, konturatu bearra dauka zein ardi dan faltatzen dana, begiraturuz inguruetan, agiri bada.

Baia atoan, gaua ilundutean, aurrean dauzanak ekarri eta begiratu zein ardi faltatzen dan. Ez da izaten on artzekoa, batez be euri edo edurra botaten egon ezkerero, farola argia eta arran bat eskuetan arturik, ardi galduen bila barriz basora joatea, bee eginez, ea erantzuten ete dauan baztarren batetik, ze garai orretan ardiak ernari egoten diran, eta astun be bai, orduan gau guzia jarrera txarrean aurkitzen dana tragau egin litekelako.

Oso gauza inportantea izaten da pastoreentzat, goxean etxetik basora eroandakoan, norantz larratu dauzan eta iluntzerarte zer ibilbide izan dauden kontuan artzea, gitxi gora-bera nundik nora joan jakiteko ardi galduen bila; eta andik joatean, beti ez, baia bai batzuetan, desgraziak be pasatzen diran ezkerero.

Nik sarritan bilatzen nenduzan sasi arte baten, urten ezinik; eta poz-pozik ekarri ardiak etxera, nai ta arropa eta oñetakoak oso bustirik dar-dar etorri otzagaz.

Beste batzuetan, zoritxarrez, galtzen dira betiko, bai jausi eta tragau diralako, edo errasturik itxi barik galduz. Non edo non lapurrak be egoten diran ezkerero, ibilaldi andiak egin eta guztiak alferrik. Pastoreak be beste faltso askoren goseak kendu bear izaten dauz, nai ta berak bear izan andiagoak pasatu.

Orra emen ardiaren bizitza. Bertan esan gura dot, guk, pastoreak be, egunero alkarregaz genbi-

zan ezkerro, maitasuna artzen geuntsala; eta, nai ta zer egin asko izan, ezin banatuak gerala alkarregaz.

Alan segi nendun, arik-eta soldadu eroan ninduen arte, azkenengo ardiak salduz Juan Jose Urrejolari, Arrankudiagara.

Artxo ta gaztai ta ulegaz
udan saritzat salgaiak,
eta neguan barriz aldrebek
danak genduzan galtzaiak.
Azeri eta otsoaren gain
edur ta leia etsaiak,
sasoi orretan fraketan larri
izaten dira artzaiak.

Ur bazterreko txoriak maite
altz landare ta mimena,
pastore artean maitegoa
edurtza baño lurmena.
Esaten daude edur urtea
lurrak dauela onena,
ez dot nik uste pastorengandik
emon leukenik baimena.

Etxunik ausnar ardia nasai
bedar on urtsuak janta,
eta artxoak salto ta brinko
nai beste esne edanta;
Zuatz ganean txoriak alai
pozez txorrotxio kanta,
negu beltzaren ostikadari
martiak atze emanta.

Basabeiak

EZAGUERA dodan ezkeroztik ezagutu ditut basabeiak gure etxean, ez asko, baia bai batzuk beintzat.

Basabeia da animalia bat zer egin gitxi emoten dauana, basoan mantentzen dan ezkeru urterik geiena, negu gogorrean izan ezik. Neguan be, gaubean etxera etorten dira, baia ez jake egiten kopla andirik.

Etxera etortean, guk gariak eskuz joten genduzan ezkeru, galtzua eultzitu barik gendun osoan, eta esku artean igurdiaz emoten geuntsen artamatar pare bategaz. Goxean be bardin apur bat lagunduteko, eta kito.

Ardieri begiratzean, bide batez ikusi be bai basabeiak; eta, txala egiteko denpora zanean, euki bear izaten gendun kargu apur bat, ondo egozala jakiteko, aren jaiokeran batez be.

Basabeiak susara urteten dauanetik, edo ernaldutakoan, etxeko beiak bezela, txala egiteko bederatzi ilabete bear ditu, eta jeneralean udabarrian egiten daudez txalak; au da, abuztuaren lenean ernaltzen bada, apirilaren lenean egin txala.

Agertu gura neunke basabeiak daukien ezaguerabat. Txala egin eta gero, amak umea jagoten dau, ama guztiak bezela. Baia esnea emondakoan, lo

itxiten dau baso baztarren baten gordeta, eta andik ez da mogitzen, ama barriz etorri artean.

Ori gorderik itxitakoan, ama joaten da beren lagunakaz edozein lekutara jateko bila; eta pasatu arte ordu pare bat edo berak eretxia daukan denpo-rararte, ez da etorten txalagana. Beizainak be itxa-ron bear izaten dau, a ikusi gura badau.

Iñoz edo bein jazo zan garai artan, erbi zakurrak erbia esturan eroatean, toki aretatik pasatzea. Aren zarataz ikaratuz, itxartu; baia, alan ta guztiz be, amari andik deituten dautse orroakaz, eta ez alde egin ama etorri arte.

Baso eta janariaz aberatsa zan gure alderdia. Baegoan arboladi naikoa, baia basabei asko be bai. Baegozan etxean ogeitamar bei eukezanak; eta abarora joatean, edo albotik pasakeran, borroka egiten auden.

Baso areik izaten zirean Artanda menditik asi eta Mandoiararte: Upo, Gabiardatz, Lekubaso, Bar-gas, Argizte, Ezkurri eta Armineta, pagadi ederra eukana.

Baia bero aundiakaz ez egoan freskura naikoa, eta eroaten genduzan Gorbeiarda, udagoienerarte, Bagilaren asieran edo olan, eguzkiak asko berotzen auen orduan; eta, jabeak eroan ezean, eurak mogi-zen zirean eskapa Gorbeiarda.

Betidanik kamiñoa arriskutsua dan ezkerro auto-akaz basaganaduentzat, ez genduzan bakarrik itxi gura izaten, eta atoan preparau martxa.

Gorbeiarda eroateko egun artan, bide oso luzea gendun, eta mogitzen ginean goizaldeko iruretatik lauetara, joan-etorria egiteko egun berean, beiak mendian itxiz, basabideak aprobe txatuz, kamiñoa gurutzetu. Ariltzan pasatu Untzelabasotik gora, Iru-mugarrietatik Pagomakur, Arrabako Landa eta Baz-talarrararte.

Gero, ikustera joaten ginean amar egunetik baten edo alan. Guk eroaten genduzan geureak osaba Agustin Aiestarenakaz batera, eta aldizkatzan ginean. Au bai: etxe bakotzeko taldeak eukan beren señaleara edo marka, bai belarrietan akats, bai laitegi edo abar. Orrez ganera, samako uztaian untze metalezkoakaz letrak eginda.

Zoritxarrez bat edo bateri amildurik mainkatzen bajakon ganaduren bat, alderdi artako pastore eta ikazginak zur egoten zirean albisteak zabaltzeko. Gitxi gora-bera, akats edo uztaietako letretatik jakiten auden norena zan, eta aldi aretan Benantzio izeneko ezgauzetu bat —Jaunak zeruan dagiala— korritzen auen Arratia guztia limosna bila zaldi ganean, eta ak ekarten audezan albiste guztiak, zeozer sari emoten jakelako.

Beiak ikustera joaten ginean oiñez Mandoiatik Artea edo Kastillora goxeko seietako tranbia artzen Zeanurira joateko; eta gero, barriz oñez, andik Gorbeara; eta etorteko bardin.

Goxetik joan bearra zan. Ezpabe, berandu joanda, abarora sartzen zirean eta arranik be ez auden jotzen, eta orduan ezin ikusiak izaten zirean.

Olan pasatuz uda guztia, barriz ekarten genduzan urriaren erdi inguruan, ekaitzak edo eguraldi otzak sartu baiño len; eta garai aretan, eguna laburtzen doan ezkerre, joan-etorria egun baten egiteko, polainak jaso bear izaten genduzan.

Azkenez, suerte txar baten medioz, geratu ginean txal txiki bategaz, amea ezin eroanez, il audelako Ugaon; eta ori idi aundi egin da gero saldu gendun, besteak galduta. Au izan zan 1936-ko gerra zibilarren frutua.

Frentea pasatutean, aurrean eroan audezan gure basabeiak, eta beste batzuenak, geiago begien bistan ikusi ez egiteko, kontzientzi bageko batzuek.

Barru dirala beor ta auntzak,
ardi eta basabeiak,
liburu andi bat egiteko aiña
notizi badu Gorbeiak.
Ez dakienak pentsatuko dau
areik zirala deslaiak,
gerra amorratu baten sariak
ebagi gure alaiak.

Ikazgintza

IKAZGINTZAK baserrietan egiten zirean labrantzaren parean. Au da: udagoien, eta neguan be, denpora ona edo zeozer lan egiteko aro edo sasoirikan baegoan, joaten ginean aretx, pago edo gaztain botaten, artuz aizkora, trontza, ziri eta borra, eta egur-talde bat txikituten.

Segidan eroaten genduzan etxeko bei edo idiak buztarrian, orreik narra bategaz urreratuten txondorra egiteko tokirantz. Narra da gurpil eta gurtetxe bageko gurdia, narras eroateko egurrak, enborzati, mukur eta abar.

Txondorra egiteko leku edo tokia lendik badago egin barik, zelaitu bearra dago, batez be aldaparik bada. Au da: goi aldetik atxurtu eta bean taket edo barandagaz egindako esiagaz lotuz, goiko lurra zapaldurik formatu zelaikada bat biribila, zulo edo bitarterik izan ez daiten jazo lur orretan. Ezpabe, zulo orreatatik txondorrak aizea artzen badau, senperrenak pasatu bearko dauz txondorra maniatzen ikazginak.

Egur guztiak urreratutean, txondorra kargatu edo egiteko egun aietan, bear dira iru edo lau gizon. Mukurrak andiak izaten diran ezkerro, areik jaso eta mogitzeko indar asko bear da, eta txondorraren erdian itxi bear da zulo bat, gero sua izituteko.

Amaitutean, txondor ori tapatu bear izaten da, bai ira berdeagaz edo bai zoiagaz. Zoia izaten da landa-zelaietan atxurragaz bi zentimetro inguruko lurra bedarragaz ebagiten dana, bai biribila edo bai luzangea. Au izaten da ira berdea baño obea.

Zoi areikaz tapetan da txondor guztia, tellakaz tellatua lez, goikoa beko aien ganean dala, bitarte edo zulorik itxi barik, gero ganetik iduri kapa bategaz estaliz, eta egurrezko borra zabal bategaz zapaldu edo estututa, aixerik inondik artu ez dagian txondorrak.

Txondorra izitu baño len, gaubaz lo egiteko edo egunez siesta apur bat bota edo abar, bearrezkoa da txabola bat egitea txondorretik ur edo aldamenean.

Aretarako artzen dira urkatz pare bat metro bi luze daudezanak; eta bean metro ta erdiko zabalera arturik, sartu lurrean oin pare bat; eta, goian bat eginik, arbol baten ondoan ifini zutik, aien urkatetik atzerantz iru metroko baranda lodi bat, eta orrein azkenean beste urkatz txiki bi, jauskera apur bat izan dagian. Gero, alde bietatik, taket batzuk oin baten distantzian, zoiakaz tapetako.

Goiko gailurrerako ebagiten dira zoi luzangak, arein erdian ifinirik tellea bezela, goikoak bekoa apur bat zapaltzen dauala, barruan azpitik inarra andi barik, bai ira sikatuagaz edo bai bedarragaz zeozer bigun egon daiten.

Ur baegoan basoa, nozik bein egosgarria jaten gendun, eta ezpabe janariak.

Janariak gorde bearra egoan, ze, jakina dan ezkerro, basoan bitxo edo pizti asko dagoz, eta danak jan gurarik. Orregaitik eskegiten genduzan arboletatik, morral baten sartuta. Ezpabe, baegoan nok jan ugari, batetik saguak, suge, sugandila, sopo, txori eta abar; eta, bestetik —zelan ez?— txakurra.

Au txabolara sartzen bazan, arkakosoak be, kitarra joz beren ankagaz, itxiten auzen barruan.

Janari orrek oso sikaturik geratzen zirean, eskegita egotean. Baia basoko lana betidanik oso gogorra da, eta apetitu faltarik, Jaunari esker, ez gendun izaten, gaurko moduan beintzat, danok gagoz zer jan ez dakigula ta.

Akordatzen naz: ni gaztea nintzan ezkerro, aginak eta ortzak zorrotz neukazan. Baia nire aitari, irurogei urtera arrimatua egoan ezkerro, areik falta jakozan; eta inoiz edo bein ikusi nendun jan aurretik ogia ur artean bustiten, gero jan al izateko.

Uste dot irakurleren batek au ez dauala sinistuko. Baia egi santua dala seguru egon daiteke, gure gazte denpora ez zan gaurkoa lako erraza ta.

Ejenplu bat ifini gura dot kontuan artzeko. Esate baterako, 1930-ean, bi zaku ikatzari deitutuen geuntsen karga bat; eta areik, zaku biak, edo karga bat, pagatzen eutsoen gure aitari pezeta bat. Gaur eguneko soldata normal baten, barriz, kostatuko litzake milla duro edo ogerleko. Orain begiratu bizitza zeinbat aldatu dan.

Aldi aretan, ugazaba batzuek beintzat eukien usua errentaren gain onelango zer eginetan beartu errentadorea; eta gu olan ginean lez, soldata txikiagoak artzen genduzana beste ikazgin batzuek baño.

Euskal Erriko gaztain arbolak gaixotu zirean zoritxarrez, eta igartu gaztaiñadi arlo andiak. Orduan gaztain arbolak estimazio andia izaten auden ol edo oltzar egiteko, balio audenak gizaldiak irauten audezalako. Botaten edo ebagiten zirean erreskan, eta ustel edo balio ez audenak, egur ikatz.

Eta aretx edo arestiagaz bardin: balio audenak, trenbide aietarako trabesak egiteko. Norteko edo Españako trenbide zabaletarako bear zirean metro bi ta erdiko trabesak; eta euskal trenbide edo estuetan, metro bikoak. Oneik egiten zirean baso-zerralekuetan ebagita; au da, esku-zerra areikaz.

Baia sarritan jazoten zan, lurraren par ebagi ezkerro, ez zirean neurriko. Baia ingurutik lurra kendu eta susterretatik atara ezkerro, bai; eta, nai ta izan lan neketsua, ori egiten auden, gero balio geiago audelako. Gero idi buztarri pare bategaz urreratuten audezan zerratokira.

Eltzen eutsien zerrariak. Aizkora andi bategaz landuten auden enborraren alde bat. Nondik ebagi jakiteko, eukien marmit baten ur baltz eta loia. An bustiten auden korda luze bat. Nondik nora markatzeko neurtuz, akats egin; eta, areitatik eutsiz, jaso korda eta laga kolpez markatzen. Gero ifinten auden zerratokiaren ganean, zerratzekeo prestu.

Zerra a izaten zan metro bat zabalean, eta metro bi luzean, rektangulo bat formatuz, goi eta bean eldulekuakaz; eta erdian zerra. Zerrari bat jarten zan enborraren ganean, eta bestea lurrean, bean, bat-batean mugimenduak egitean, goruntz utsik eta beruntz ebagiz.

Izaten bazan enborren bat zerraren kuadroak artzen ez auena, beste zerra bat eukien, armazoi barik eta trontzea bezela, arpana eritxona, baia eldulekuak gurutzean eukazana.

Gure alderdian zerrariak izaten zirean Martin Ugalde, Pedro Zalbidea, Juan Jose Eguzkiza, nire aita eta abar. Ergoienean bazirean geiago: Martzelino, Gregorio eta ainbat, danak Jaunaren erreinura pasatuak.

Trabesaren lorra andik kamiñoraiño izaten audenak: Tiburtzio Lekue eta beren seme Pedro; Juan Pedro Salzedo eta beren seme Eusebio eta Juan.

Ordurako begien bistako da ikatz egiteko gertzen zala egurrik gogorren edo eskasena, batez be aretx-buru, gartzain-buru eta abar, ikazginari uneak atarateko. Baia alan ginean lez beartuak, ez egoan atzerantz egiterik eta segi.

Gure alderdian ikazgintzak egiten zirean udan, gariaren lanak bentzitudean txondorrek izituz. 1933-an, Azentzioko ermitaren ondoan, Kortabaso deituten dan tokian, ginean ikazgin. Jakina danez, eskolan be oporrak izaten genduzan uztailaren edo garagarlearen 15-etik urrilenengoaren 15-era, eta ni aitatuagaz ikazgin.

Inguru orretan ez egoan iturriko uragaz kome-
nentzirik; eta aitak, txondorrari kargu artuko eu-
tsola-ta, bialtzen niñun egosgarritan etxera. Ni be
pozik, nai ta egoan iru kilometroko bidea.

Iluntze baten pasatu jatan amatxu porru landa-
rak ifinten egotea, aro ona egoalako, ilundu arte;
eta gero, afaria ifini ordurako, berandu egin zan.
Baia nik afaria eroan bearra nendun ezkerro, ez
egoan ezetz esaterik.

Mogidurik afaria orregaz basorantz oso ilundu-
rik, ezer be ikusten ez zala, biderdi inguruan egoan
erreka txarko bat, ur jausiagaz eta altza arbolez
tapaurik. Geure guraso edo auzoko pertsona adin-
duei entzuten geuntsen toki aretan sorginak egoten
zirala; eta ez dakit pentsamentu orregaz joatea ala
zer izan zan, baia argi bat begitandu jatan. Nik artu
nendun beldurra! Aitari esan neutsan zer pasau
jatan, eta geiago ez nindun bialdu gaubaz.

Urte orretan txondor dezente bat egin gendun,
baia ez zan ondo egosi, azpitik aizea artzeagaz lar
arin edo presaz egostean. Orduan, itxi auzen ilinti
eta beste egur batzuekaz, txondor txiki barri bat
egin eta ederto ikaztu zan; eta eroan audezan ika-
tzak Tiburtzio Lekuek eta beren seme Pedrok.

1934-an, barriz be ikazgin, Akitebarri deituten
jakon basoan. Alboan genduan, gu bezela, Juan
Kruz Barañano, beren seme Dionisio eta Pedro
lagun audezala.

Baia urte aretan ni apur bat libratu nintzan,
ezpatajantza ikasten asi ginealako; eta orduan joa-

ten zan nire aurreko anai difuntua. Jaunak beragan dagiala.

Ezpatajantza orretan gendun irakasle Justo Amundarain semea, ze aita eta semea bardin deituten zirean, a be ikazgin zalarik.

Errepublika denpora gendun, eta apur bat mogidu ginean Euskadiren gauzak izituten. Entrenamentuak egiten genduzan iluntzetan, erakusleak be zer egin asko eukalako. A etorri baño len, prestu egoten ginean itxaroten, beren etxe ondoko Malortu deituten jakon zelaian. Alango talde bat preparamen kostatzen da. Baia ilusiñoa dagonean, dana izaten da posible.

Txondorra sututakoan, tapau; eta suak be aldetik goruntz dauan ezkerro indarra, betegarria emon bearra dauka egunero goiko aldetik. Orregaitik, bearturik dago ikazgina egurra preparatu ta urreraturik eukiteko, txondorrak eskatzen dauanerako. Ori izaten da señailea: txondorrari goiko gallurra bajatzen jakonean, orduan ikazginak, bizkarreko tapa kenduz, zilagea esaten jakon baranda luze bategaz kiñaturik, egurrez betetzean tapau edo estali, barriz eskatu artean.

Baia oso zur egon bearra dago, sarritan engañatzen daualako. Egun baten, ni aitagaz ikazgin nengola, Elorri deituten dan baso baten txondor oso andi bat sutan gendula, ez jakon gailurra jeitxi eta, ez daualakoan bear, betegarririk emon barik lotaratu ginean.

A sorpresea itxartutean! Suaren zarata eurakaz polainak jaso genduzan, txondor a gobernatzan. Goiko gailurretik urtetan auen iru metro inguruko suak, eta eskerrak bagenduala egurra preparaturik aldamenen eta lagun bi izan gineala. Ezpabe, ez dakit erreko ote zan txondor osoa. Guk bota gendun izerdi aldia gau orretan!

Txondorra andia danean, sutan eroaten dauz zortzi edo amar egun, guztiz ikaztu ordurako. Ikaz-

turik, aretx bardagaz igurditzen da azaletik, apur bat otzitu daiten. Gero, ikatza ataraten asitakoan, bakotxean apur bat kanpoan zabaltzen gendun otzitu daiten. Baia mukur areik barruan eukien iroa, eta barriz sutan jazoten zan.

Egina daukat proba, iroa daukan ikatza bost edo sei bidarrez be ur artean sartuta, eta barriz sutan jazoten da.

Txondor ak emon euskuzan berreun eta emere-tzi zaku ikatz, edo eun eta bederatzi karga ta erdi, ze gure alderdian kargea izaten da bi zaku ikatz.

Au izan zan 1936-an, nik amalau urte nenduzala, eta aitak ia irurogei edo zeozer geiago. Akordetan naz au zala urrilenengoaren asieran, sasoi orretan, esan dodanez, Elorri deituten dan baso aretan ikazgin genbizala iru bizitzako familiak edo auzoak. Bata zan Justo Amundarain; bestea, Frantzisko Urrutikoetxea; eta gu, aita eta ni, Juan Jose Gotirentzat ikazgin.

Gerra denpora zan ezkeron, arrasti baten etorri zirean lenengo aldiz Bilborantz aeroplano bi, Francoren alderdikoak; eta, *bueno*, ez zan ezertxo pasa.

Baia gaueko amabiak inguruan itxartu ginean berbalots edo iskanbilaren bitartez, apur bat ikaratu. Andres Madrazo, Galdakaoko Arteta auzunean bizi zan Diputazioko baso zaitzaileagaz, etozen milizianoak mordo bat, aeroplano ak jausi zireala eta guk zer ikusi gendun preguntaz.

Oso ondo tratatuak izan ginean, eta garai aretan emen, errepublikanoen aldetik, ardo eskasia egoan. Baia areik baeukien ugari, eta trago batzuk edan genduzan eta esan egia: guk ez gendula ikusi aeroplanorik jausten; eta, *bueno*, itzuli zirean barriz.

Lengo arira joanik, baso aretatik kamiñoa urrin dago, eta ikatzaren lorra izaten zan idi buztarria

eukanarentzat. Orreik izaten zirean: gure auzoko Tiburtzio Lekue edo beren seme Pedro Lekue. Uga-zabak be eukiten auzen lortariak izendaturik, beren kontura ordainduz, ez zalako gure ardurea.

Garbitasunean be ez egoan erremedia bide andirik. Batetik, txondorraren suaz keiatu; eta, bestetik, aren autsa ugari. Ulea luze, baita bizarra be, eta jaboirik ikusi ezaren gain ur eskasiaz, egoten ginean orraztu eta arpegia garbitu barik.

Garbitu naian, ur apur batez pasatu eta bustiten gendun arpegia. Baia ezin kenduak izaten zirean guk genduzan loitzeak. Arropak be ez dago zer esanik zelan aurkitzen zirean, batez be izerdi asko bota ezkerro. Eta egun askotan garbitu barik egoteaz, ez zan milagro zikin kiratsagaz egotea.

Auzoko Justo Amundarainek —Jaunak bakean izan dagiala— esan eustan egun baten berari jazo-tako kaso. Lekubasoko Kezkain deituten zan baso aretan ikazgin egondakoan, lana amaitzean, joan zala Usansoloko bizartegira, ulea kendu eta bizarra konponduten.

Baia an egozan bizar kentzaile aren bezeroak begirune iluna ifini eutsiela, eta berak itxaron auela areik danak konpondu artean, eta noz edo noz eldu jakola beren txanda.

Konpondurik ulea eta bizarra, eta ez da zer esanik autsa be bai ugari, itandu eutsola zeinbat zor auen; eta erantzuna:

— Erreal bi, asko kostatu jakun ezkerro.

Berak esan eutsola:

— Artu egizu pezeta bat, arrera ona egin daustazulako.

Eta ule konpontzaileak argitu:

— Serbitzu normala izaten da erreal bat; eta barriz be etorri, ondo artua izango zara eta.

Ona emen gaur egunero baiñatzen diranak artu
dagien leziñoa.

Begien bistan ikazginaren
bizitzak daukan aldatza:
mantenu txar ta garbitu ezaz
botaten dauan kiratsa.
Janariaren gordegela du
morrall batean zugatza,
sari gitxiko produziñoaz
egurra biur ikatza.

Gaurko gazteak bizitza ona
betiko goza dezala,
baia ez bizi Jaunagaz aitzuz
erjaun baziña bezala.
Dirdira danak ez dira urre
ta asko jana mazala,
arimaz ustel izan laiteke
nai eta fiña azala.

Azkenez, beste auzo batzuk be errentadore zirean
ezkero, eukiten audezan zer egin batzuk, ugazabak
emonik, eta egiten audezan gaztain ikazgintzak.
Auzo orreik zirean Juan Pedro Salzedo, Agustin
Aiesta nire osaba, Mariano Bilbao, Juan Jose Salze-
do, Bonifazio Ugalde eta abar.

Zoritxarrez, Juan Pedro Salzedok alango txondor
baten ezbear bat izan omen auen. Egurrezko borra-
gaz estutu edo konponduten ebillela anka orpoa
sartu eta erre jakon; eta geroztik orpo ori lurrean
ifini ezinik geratu jakon.

Baegoan beste ikazgin bat be, Anjel Barañano
eritxona eta Azentzio Barandika kontratistarentzat
ikatz egiten auena. Baia arek, fabrikako langile
batek bezelako soldata eukan.

Ikazgintzagaz, okindegietako labeakaz eta urietan bear zirean egurrakaz, ez zirean basoak utsituten zugatzez. Baia Laudion ifini auden bidrio fabrika bat, eta aren labeak erre audezan inguruetako errien baso guztiak. Erri oneik zirean Orozko, Baranbio, Luxaondo, Amurrio, Errespalditze, Okondo, Laudio, Zeberio, Ugao, Zollo, Arakaldo, Arrankudiaga eta abar.

Zugatzik barik itxitean, a bai zala aukera piñu baltza erjaun jarteko, aberatsak geiago aberastuz, eta ikazgin eta pastoreak lurperatuz.

Arlo au akabetako, ikazgin eta baserritar baten jazoera kontauko dot.

Aldi aretan ikazgin batzuk Gorbeian, Pagomakurre deituten dan lekuan ebizen, ikatza egiteko pagopak bota ta txondorrerako egurrak prestatzaile ta abar, orixe zalako euren bizibidea.

Beste baserritar bat inguruan ebilen, ango alderdikoa, basabei batzuk eukazana.

Ez zirean alkarregaz oso adiskide, txal bat faltatutearen gain. Baia baserritarra ezkontzaz aldetu zan andik urrinera, eta urte askotan ez auden alkar ikusi.

Egun señalagarri baten ikazgina etorri zan baserritar ori bizi zan lekura, ganaduren bat erosten; eta, eguerdia eldurik, tripa zorriak be bai. Zeozer jateko, sartu zirean bera ta beren laguna an baserritarren auzunean egoan tabernara; eta, abuztu azkena zan ezkerro, piper denporea. Ikusirik otzara bete piper, eta esanik tabernereari ifiniko baleukez, eta orrek baietz esan, ezarri zirean beste baserritarren ondoan, da ori orditurik.

Asirik ikazgina ta laguna ogi apatz, ardao eta piper prijidu jaten, baserritarra bakarrik berbaz, eta lantzean bein botaten auen bertso moduko bat, esaten:

— Lapurtxua zara ta izango zara. Niri jan daustazu txala. Ezpanak baltziturik zu joango zara.

Tabernerea nozik bein etorten zanean platerka-
da piperra ekartera, esaten eutsan baserritarrari:

— Mesedez zu ixilik!

Ta besteak:

— Bai. Ni ixilik egongo naz, baia oneri ezpanak
apurtu ta gero.

Alango baten, ordi ori arrimau zan ikazginaren
ondorantza, jarlekua arrastaka auela; eta, akabau-
rik ikazginaren pazientzia, diñotso tabernereari:

— Patrona, ken egidazu emen aurrean dauka-
dan kutxillo edo kaltzairu au, ze nire odolak bero-
tuten doaz ta.

Orduan tabernereak eldu ordi orreri besotik ta:

— Ala etxera zu, ze ez dakizu besteari txarto
esaten baño!


Orrek, baserritarrak:

— Bai. Ni etxera joango naz, baia orreri ezpane-
tako batzuk emon da gero.

Eroanik au etxeraño, etorri zan tabernerea, ta
ikazgin orrek esanez:

— Ondo mereziduta daukazu, eta eutsi baliaga-
rria eta bai eskupekoa, eta mila esker. Ta banoa
emetik, Jaungoikoarren, ze, ostera badator, ez dakit
zer pasauko dan.

Egidun nor dan ez dakigula
agertu da diskordia,
errefrauz dira bakarrik kapaz
umeak eta ordia.
Bitatik batek baleuke sutan
jakitun dan alderdia,
auzoentzako eleuke itxiko
duda edo biderdia.



Neba-arrebak, ezkerretik: Jose, Boni, Pedro, Manu, Lino, Leona eta Florentina.

Gerrako ibilerak

FRANCOREN soldaduak Lemoatxeraiño urreratu zireanean, aireplano alemanak ainbeste bonbakaz zapalduz, guri, errepublika alderdian gineanori, etorri jakun ordena agintariengandik: moro baltzak emakumeak bortxatuten audezala; eta bai gizoneri be arrera oso gogorra egiten eutsiela; eta ebakuatu edo alde egin bearra egoala, errepublikeak aireplano asko ekarri arte, gero barriz etorteko.

Zoritzarrez, ez zan olan izan. Baia, dana dala, mogidu ginean Bilbo alderantza, erderaz *Peñascal* deituten dan toki edo atx artera.

Bilboko Iturrigorin bizi zan nire koñatuaren anai orde bat, Emilio Blanco eritxona, eta arein etxera joan Zeberiotik bost famili, momentuz olganean edo nonbait be lo eginda be.

Areitatiek iru etxetakok edo familiek genduzan ardiak: Juan Salzedo, Remijio Abrisketa, nire koñatu, eta gureak.

Baia Remijio *Euskalduna* fabrikako langilea zan, eta a egoan militarizaturik. Ezin faltatua zan lantegitik. Alan nik jagon bear nenduzan arein ardiak be. Baita Juan Salzedorenak be, alaba txikia nigaz naastean, beraienak jagoteko mutilak, Juan eta Pedro, frentean ebizelako.

Remijioren beste anaje bat, Tomas izenekoa —gaur irurak Jaunarengan dira—, gidari arturik, mogidu ginean gaubaz ardiakaz, egunez aireplanoak bonbakaz ilten audelako jentea.

Eldu ginean goxalderako Bilbo alboko atx arteko baso artara, eta paraje artan bazan pastorerik asko, gu baño len etorriak urrinetik: Elgeta, Elorrio, Otxandio eta alde ortakoak guztiak. Baegoan milla-ka ardi, basabei eta etxeko ganadu.

Atxarte edo paraje ori zan mina tunelak eukazana, eta Bilboko jente asko joaten zan ara, aireplanoen bonberi eskapa.

Dana dala, len esan dodazan bost familiak mantentzeko ardien esneagaz, asko falta zan; eta ardiak, olan ibiltean, esne gitxi. Beartua izaten nintzan Iturrigorriko uragaz ugarituten.

Ganadu larregi urreratutean, eta janaria eskas, pentsatu gendun bako txak zeozer bilatzea; eta gure osaba Agustin Ayesta beste bide batez aldatu zan Sodupeko Urteaga deituten dan auzunera, eta akordau jakun ara joatea.

Au zan bagilaren 11-n. Egun artan, aireplanoak, Artxanda bonbardeatuz gain, itxasontziak asi zirean kañoikadak botaten Bilbora; eta oso beldurturik mogidu ginean arantza, goxaldeko lauretan, ardiakaz, Pagasarri eta Ganekogortan zear, Sodupera, nire lengusu Julia gidari arturik, baekielako bidea, eta nire auzoko Milagros eta arreba Florentina lagun.

Ganekogorta zearkatu ordurako, eguzkiak berotzen auen, eta ardiak beroagaz ez dau gura izaten bidatu; eta, batetik aireplanoak zirala, eta bestetik ardiak mogidu ezinak, ez dakit nik egun artan zeinbat kilometro korridu nenduzan atze-aurre.

Bueno, toki ortara allegau ginean arrastiko irurak inguruan; eta, ardiak gaztaiñadi eder baten

itxiz, joan ginean osaba egoan etxera, lengusu Juliak ifinitako zeozer jan ondoren, siesta apur bat egitera etxunik mantar baten ganean.

Oso kantsauak eta logura ginean, baia ez zan itxartuteko despertadorerik bear. Bostak edo zeozer geiago izango zirean. Agertu zirean bederatzi aireplano, Francoren alderdikoak, danak iru motorrekoak; eta ez dakit zeinbat izango zirean kazakoak edo txikiak. Baia Zaramillo, La Cuadra eta Sodupe austu audezan momentu baten. A bai izan zala sarraski edo apurtutea!

Begien bistatik kendu ezinak dodaz an ikusi nenduzan kuadroak, berrogetamabost urte pasauta be. Orduan esan nendun nik:

— Pasa daitela pasa bear dauana, baia ni emetik atzerantz ez noa emoten pausorik.

Urteaga paraje ederra zan, bai ardientzat eta bai guretzako be. Agaitik, urreratu jakuzan nunbaitetik Milagros, Errosario Salzedoren aizpa, Zeferina, gure lengusua, nire arreba Florentina eta anai Juan, au eritua egoala atzapar batetik, gaur Jaunagan dana.

Urrengo egunean be bai auzo artako mutil bi be: bata, Luis Saratxo; eta bestea, Boianko deituten geuntsana.

Gure osabak eukan auntz talde andi bat; eta, aieri begira gengozala, akordau barik, gu gengozan tokia baño apur bat gorago, “¡Viva España!” didar ginez erreketekak.

Orduan orreik, mutilok, frentetik ibiliak zirean lez, ostondu zirean eta esan euskuen gaubaz jana-ria eroateko.

Arik urrengo egunean, soldaduak pasatu ondoren, Boianko deituten geuntsanak, esan auen:

— *Bueno*, orain bizarra kendu bear dogu oso zearo.

Eta, ardiak arturik, aurretik, pastoreak zirean lez pasatuz, itzuli ziran Zeberiora, iñok aintzakotzat artu barik.

Nik lagundu neutsan osabari idi buztarriagaz ekarten beste an zirean gauzak, eta danok batera barriz Uriondon pasatu gendun ilabete, orreik militarretara presentatu arte, eta soldadu joan zirean kartzelatik pasatu barik.

Itzulitean enteratu nintzan gure basabeiak zelan galdu genduzan. Anai danak frentean eta aita zaar eginik egotean, lotsa bako batek aurretik kendu eta eroan.

Langiletza

AMABOST urte neukazala, 1937-ko martian, domeka goiz baten, joan nintzan, betiko moduan, Santa Gurutzeko ermitara meza entzuten.

Andik urteteen, juntatu nintzan neure eskola lagun izandako Pedro Madariagagaz, eta esan eustan ze gura banendun langile joan Miraballesko Ramon Praderaren fabrikara. Beren aita, Pedro Antonio Madariaga —gaur biak Jaunagan daitezala— oso langile jatorra eta ondo ikusia zan fabrika aretan, eta ori langile bila ebillela.

Erantzun neutsan ni pozik joango nintzala; baia nire anai guztiak, gerra gaizto aren bitartez, munduz erratu ebizela, bai kartzelan eta abar, eta etxean bearrezkoa nintzala pastore, labradore eta abar. Dana dala, gurasoakaz itzegin da gero, arrastian egongo gineala berriz.

Etxera joan eta, besterik barik, esan neutsan amaxuri, eta amak aitari. Ni solora ganaduentzat janari bila; eta, andik etorri eta bazkaltzen asirik, aitak esan eustan ea zer albiste ekarri nendun. Esan neutsan Pedro Antonioren semeak esanikoa, eta aitak erantzun:

— Zelan konponduko gaituk ardiakaz?

Nik esan neutsan, fabrikan zortzi ordu bakarrik lan eginda, neuk gobernaturako nenduzala ardiak goiz-iluntzeetan. Eta aitak:

— Ala bada, egin zak euk gura dokena.

Bazkaldutakoan, arropak kanbiatuz, joan nintzan neure lagun Pedro Madariagagana, eta onek esan be:

— Aituik: ni ezin nintekek joan lan orretara.

Ze osaba Juan Jose Goikouria be fabrika aretako langile zala, alargun gertatzen zan bonba bat Francoren soldaduak sueteko mai ganean itxita; eta, zer zan ez jakinez lertutean, izekoa il zalako. Orretaz, arein morroi edo serbitzari beartua zala. Baia berak ezagutzen auela fabrikako ugazaba, eta lagunduko eustala.

Geiago pentsau barik, joan ginean ugazabaren etxera domeka arrasti aretan itz egitera, eta oso ondo artuak izan ginean.

Begira zelango gauzak egiten dauzen ezjakinak: domeka arrastian lan bila joan ugazabaren etxera, eta bai onek lana emon be, esanez astelenean joateko medikuak ikustera, osasunez ondo banengoan. Eta, ala bazan, asteartean lanera pintxo.

Amabost urte neukazan. Pedro Antonio pobreen mesedegilea zan ezkerro, onela esan eustan: gizen enengoala. Baia gorantza luze bai, eta esateko amasei. Alan pezeta bat geiago irabaziko nendula. Ni oso pozik, diru geiago irabaztean. Zoritxarrez, aldi aretan ez zan diruaren sobrarik.

Alan, asi nintzan lantegi aretan sei pezeta irabazten eguneko, domeka barik, ez audelako pagetan, gaurko moduan, domekarik.

Gerra denpora zan ezkerro, frenterako kañoi espoletak egiten asi ginean ni eta nire antzeko pastore edo labradore asko, gizon sasoikoak gerran ebi-zelako.

Egin genduzan pieza pilo bat, baia eunetik larogetamar txarto eginak. Orduan bazan ugazabaren

asarre edo umore txarrik ugari. Baia tira: barriz obeto preparatutakoan asi ginean, eta bigarren aldian ederto egin be, danok konforme geratuz.

Ala segidu gendun 1938 urtean. Gerrea ez zan amaitu 1939-ko apirila arte. Baia ia bentzitua egoan ezkeru, orduan fabrika artako produziñoa, lenik kaltzairu kalibratua izatean, orretan sartuak ginean, 1942-ko maiatzaren 29-an soldadu eroan arte, Madrillera, erreserba jenerala deituten zan errejimientu automobilismora, Canillejas errira, lenengo batalloi eta lenengo konpañira, 1945-eko irailaren 18-rarte. Berrogeitabi ilabete soldadu egin-dakoan baimen amai bageagaz lizentziatu, ogeta-bost urtegaz.

Lenera joanik, nire anaiak gerran ibiliak zirean. Baekien orren barri eta esan eustien infanteria zala soldaduskan dagoan klaserik txarren eta arrisku-tsuena; txofer karneta lortzen banendun, askoz obe izango nendula automobilismora joan. Gero profesio ori ez jat gustatu, baia orduan ori egin nendun.

Aretan joan ginean Lino Artetxe nire lagun eta biok, prestu karneta ataraten Martin Barzelonaren auto-eskolara Bilbon. Atoan lorturik, soldaduskara deitutakoan profesioan txofer ifini gendun, eta Lino Artetxe bialdu auden Ferrol-era, *Infantería de Marina*-ra; eta ni, len esan dodan lez, Madrilleko automobilismora.

Erderazko errefrauak diño Madrilletik zerura joaten dala, baia niretzat ez zan izan olango suertetik. 1942-ko aldi aretan, Madrillek ez eukan zerua izateko itxura andirik, eta orain esango dot zergaitik. Gerra oste guztiak izaten dira gosesto eta diru eskasia daukeenak, eta begira bigarren errefrauak zer diñoskun: txakur goseak ogia amets dauala. Bai orixe! Nik ori ondo dakit, estualdi ori pasatu dodalako.



Lino Ayesta, Madriken soldadu egoanean.

Begira: gure koartetik ondakindegira botaten genduzan laranja, patata, platanu eta abarren azalak jaten etorten zirean ango erritarrak. Au egi santua da.

Gosesto aldi aretan agertu jatan uste barik suer-te andi bat. Kapitanagaz ezagun egin nintzan. Arek bai emon be baimen asko etxera etorteko. Alango baimen baten, betiko moduan berandu joatean, kapitanak igonera izan auen, eta aldatu beste koartel batera.

Orduan, aregaz aserre izan zan beste kapitan biboterre bat geratu zan gure agintari. Ak kastigatu nindun, eta beartu nintzan neure erriko lagun Pedro Artiñanori mesede eske, ak medikua lagun auen ezkerro, gaixoz nengola esan dagian, libretako.

Eskaera ori lortutakoan, Plazentziako Jose Amor Arin kozineroak ezkondu bearra eukan, eta ak itxi ninduan beren ordezeko sukaldari. An baegozan beste euskaldun batzuk be, Zornotzako Esteban Azurmendi, Zarauzko Ezekiel Basauri eta abar, eta ederto konponduten ginean.

Koartel aretan ez egoan, beste batzuetan lez, kozineroen kapataz erritarrak, eta neu ifini ninduen geure konpañiaren txandetan. Beste serbitzuetatik libre nengon, baia bazkaria egin bearra neukan laguntzaile bategaz. Agintari izatean, beragan dira bentajak, eta orien bidez egiten genduzan parranda batzuk gaubaz, erritar jantzirik, ainbeste denporan soldadu egotean bururano gengoalako.

Gaur erri txikietan lez, Madrillen, garai aretan be, gaubaz izaten zirean dibertsio edo parrandak, eta uriaren erditik gure koartelera egozan sei kilometro, eta ardura gabetuten baginean, metro eta serbitzu danak gelditzen zirean gaubeko amabietan, eta oñez joan bearra izaten gendun ezkerro, kasti-guaren beldurrez joaten ginean korrika, nai ta ez izan lista pasa bearrik.

Gure koartela zan barria, edo oraindik amaitu bakoa, eta kanpo aldetik alanbradagaz zarratua. Orduan zentinelak, zeozer jateko emotearen orde, itxi pasetan. Alan, ate printzipalari tranpa eginez sartuten ginean.

Orreik izan zirean nik Gobernuagandik izan nenduzan sari edo ordainketak, iru urte t'erdiko serbitzuaren alde.

Gerra ostea

LABRADOREERI entregazoten euskuezan kosetxa guztiak Abastosari. Orduan andik ostonduten gendun apur bat ixilean, jateko, ze ain gitxi zan erreziñoan emoten euskuena. Baia errotak zarratuteagaz prezintaurik, egoten ginean goseak irrintzeka.


Urietatik etorten zan jentea, zeozer topau al badau eroateko. Baia jauberik agiri ez bazan, artu eta jaten audezan erremolatxa, arbi, gaztaiña, sagar; edo ostu be bai ollasko, ollo edo koneju edo abar, gosea kenduteko.

Andra Mari Martiko bezperan suertau zan. Peru Iturriren ondorengo llobeak, Agustin Tokolo eritxonak, Zeberio Olazarren bizi zanak, eukan Uriondon Iturrikoa deituten dan etxaldea errentadore bategaz. Eta be bai erlategi aundi bat berena, da urtean bein joaten zan eztia kentzean erleeri, idi buztarriagaz.

Paraje ori zan aproposa erleentzako. Ezti asko eukiten eben, da gu gose.

Sasoi orretan izaten da Euskadin ardien umegite tertzioa, soloan barrutia emoteko, esne asko euki dagien.

Zearreta deituten dan parajeon edo basoan gengozan mutiko moltso bat ardi jagoten.



Lino eta bere emaztea, Antonia Arza, ezkontutako egunean.

Zaarrenari akordau jakon, Agustinek ezia ataraten joan baño len, gaztaña trongo edo enbor igartu bat bidera botatea, pasau ezinik aurkitu daiten; da, ezirik emon ezean, ez lagunduteko kentzean, danak batera izan ezik. Eta, bitartean, zabaldu basoan.

Zelan esan, alan izan. Agustín ori badator; ta ikusirik bidea zarratuta dagola, artu adakia a kentuteko, baia alperrik.

Auzunetik urrin zan lez, ez eukan beste erremediorik, beren begien bistan egozeneri deitutea baño. Deiturik motikoeri mesedez etorteko, gaua egiten jakola ta ezin pasaurik, etorri ginean da esan:

— Lagundutea gura badozu, kondeziño bategaz bidea librau: orduan emoteko tripa bete ezti.

— Bai. Ondo dago.

Kendu danen artean arbol ori bidetik, da ezia jaten. Eta bai abai ta guzti jan be.

Agustín ori eskerrak emonik etxera, ta gu be bai ardiakaz. Baia gero zirean gerokoak: biotz erreagaz lorik egin ezinik, bueltaka oian. Ama konturaturik, pregunte:

— Zer pasetan da ba?

— Ezti larregi jan dot.

— Zer lotsabakokeri egin dozue?

— Agustineri onan da onan kendu dautsegu ezti betadea.

— Gizarajoari egin dautsezuen aziñoa! Nork pentsau dau zapokeri ori?

— Pedro eta Juan, zaarrenak.

— Ba, banoa beren aitagana, lotsea emon dagien, da belauneko parkeske joateko Agustinen-gana.

Zintzotasun da lotsez gane
formalidade guztie,
gosea dala motibo galdu
or eginazo daustie.
Neure partetik enindun eingo
engañau ez balaustie,
bakean doian gizajoari
kendu gura dan ez tie.

Gura badogu bakarrik itxi
ezbearra ta txarrari,
neurria artu bear ko dautzu
gose ta ase larrari.
Okela bigun, arrain zuria,
berdura eta errari,
egosi ollasko esne ta gaztai,
itxiz urdai pattarrari.

Ezti betadan biotz erreaz
errudun gure intzigue,
oba genduen urdailerako
erosiz jan bisigue.
Ez bear diren gauzak egitek
merezi dau kastigue,
istori ori egia dala
neu naz emen testigue.

Gabon jaiak

GURE gazte denporan Gabon jaiak oso atsegin eta batasun parrik ez eukienak zirean. Famili andietan gatxa izaten zan mutiko bat soldadu edo etxetik kanpo ez egotea, edo bizimoduak eukazan gora-berakaz ezin etorri izatea, batetik dala bear leku, bestetik ezkontza, malenkoni edo abar, batzandu ezina. Baia al izan ezkerro, danak urratuten zirean gurasoen etxera.

Aldi orretan famili andietan baegozan oitura edo kostunbre eta bear izanak be bai, etxeko gastu aien sostenigarri bialdutea neska edo mutil serbitzari edo morroi, batez be maizterrak edo errentadoreak gineanak, ugazabari serbitzen urietara. Areik etorten zirean gurasoakgana zoragarritzko pozean, makallo bat eta beste kontserba edo jalea batzuekaz, ugazabandreak emonik Gabonak ospatuteko.

Ziur nago irakurleak ez daudela ulertuko jaleak zertzuk zirean. Jaleak zirean egurrezko kaja biribilak, mermelada baño gozoki obeak barruan eukiezanak, kalidadez onak baia kantidadez eskasak. Garai edo sasoi orretan ez zan egoten fruta turroia baño besterik pobreen etxean, eta jaleak izaten zirean bezero ginean dendetan beren erregali emoten audezanak, eta orreik zirean guraso eta umetxuen zoragarri.

Etxean egoten gineanak, bai laborantzako bear-
gin eta bai fabrikan bear eginak, etxerantza eroa-
ten genduzan damasa edo garrafoi bete ardao eta
botilla pare bat paitar; eta amatxuk konponduz
kuziñako janariak, zer pozik ezarten ginean, erro-
sario bat errezatu ostean eta jan-edariak bede-
inkatuz, sarritan dozena bat lagun maiaren
inguruan, gozaten amatxu eta arrebak prestatu-
tako janariak,

Bai olio aza, bai makallo piperrakaz, intxaur
saltsa, sagar egosi, jalea eta abar, bakotxak al
aüena, ardo, paitar eta txokor eder bat gizonezko-
ak, a parrandea alkarrereri bertso eta kanta txantxe-
tan kantatuz!

Gizonak:

Gizonak bear badau
beren deskantsue,
andrea artu daiela
zarra ta antzue.
Baldin artzean badau
gazte umatsue,
sarri faltako jako
beretzat pentsue.

Andreak:

Ezkongeieta on
ezkondu ta ez ezer,
tabernan bizkorra ta
bearrean muker.
Orduan jakin baneu
ain ziñala alper,
konturatuko nintzan
nenbillela oker.

Urtearen asierako lenengo egunean, Urte Barri goxean, eguna zabalduaz beste barik, soñeko arropa barriak jantzirik, oñetako eta guzti, joaten ginean umezko guztiak iru-lau moltsotan, ze orduko sasoiari famili andiak ginean danok, eta esate baterako amar urtetik berakoak, limosna bila etxerik etxe.

Sasoi orretan negua zan ezkerro, beti etxe bitarte guztiak lupetzez beterik aurkituten zirean. Orduan, anai-arreba nagosien artean andiak txikerrari lagundu edo sarritan eskutik eroan bear audezan. Baia ala ta guztiz be, danak pozik. Nai ta edurtza andi bat egon, aurrera, palu andi bat eskuan arturik. Aupada bat eginik atea jo ta esan:

Urte barri, txarri belarri
daukenak ez daukenari;
nik ez daukat eta niri.

Urte barri, bi montaiñe,
Urte barri, tirintin taiñe,
iru intxaur ta lau gaztaiñe.

Etxeko andreak, ateetara urtenik, nozik bein etxe baten esaten euskuen ea txixa egin barik gengoan; ezpabe, ez joiala limosnarik emoten.

Ori izaten zan txantxetan, umetxueri ulea artzearren. Nagosienak jakitun izaten zirean txantxa orren gora-beran.

Andratxu orreik etorten zirean altzoan ekazela umetxuentzako sari edo limosnak: bai iko pasak, bai maats pasak, galleta, almendra, konfit, txokolate, intxaur, gaztaña, urretx, edo dirua be bai nozik beiñean. Gure auzuneak auzen ezkerro ogei famili edo geiago, poltxikoak artu ezinagaz etxera joaten ginean utsituten, barriz segiduteko etxe guztiak

batuten akabera artiño. Axe bai zala umetxuentzako gauza oso atsegina.

Erregenetan be bardin, baia kanta diferenteagaz:

Apalazio zaldune,
Iru Errege egune;
Iru Erregek bialdu gaitue
limosnatxo bat beagule.
Zotzak eta paluek
Martiniakoren kontuek.

Martiniakori eroan dautsez
iru ollanda katuek,
salto ta brinko zapoak bezain
arratoi eta saguek,
aren azurrek batu ezinik
ak darabizan saltuek!

Apalazio zaldune



A - pa - la - zi - o zal - du - ne I - ru E -



rre - ge e - gu - ne I - ru - E - rre - gek bi - al -



du gai - tue li - mos - na - txo bat bea - gu - le Zo - tzak

10



e - ta pa - lu - ek Mar-ti-ña - ko - ren kon - tu -

13



ek. Mar-ti-ña - ko - ri e-ro-an dau - tsez i - ru o -

16



llan - da ka - tu - ek sal - to ta brin - ko za - po - ak

19



bai - zen a - rra - toi e - ta sa - gu - ek a - ren a -

22




zu - rre ba - tu e - zi - nik ak da - ra

24



bi - tzan sal - tu - ek.



Uriondo, Zeberio.

Gazte denporako erromeriak

MUTIKOTXUAK gineala, joaten ginean gurasoakaz erromeriak ikusten, eta etxeko edo beste adiskideren batek txakurren batzuk emoten baeuskuzan umeak ginealako, aitamen ondotik anka eginik, barrakara joaten ginean, diruak gastetan barkillu edo beste txutxeriren bat erosten. Baita karamelu edo txupetak be, karamelu gozo luze batzuk txupetako; batetik, dirurik ez genduelako ikusten geure eskuetan, olango egunen baten izan ezik; eta, bestetik, gose edo bear izanak geunkezalako.

Au irakurten dauenak, ez dau ulertuko txakurrak zertzuk zirean. Ba, txakur andia zan amar zentimo balio auen kobrezko txanpona; eta txakur txikia, bost zentimokoa. Gure denporan zentimoak balore geiago eukan gaur egun pezeteak baño.

Gurasoak euren senide edo lagunakaz berbaz egozan denporan edo tartean, guk geure edade edo interako neskatilatxuakaz erromeri baztarretan jantzan egiten gendun, mutil eta neska nagosien trazak ikasi gurean. Asi baso erromerietan, eta etxe ondo edo auzuneko jai egun eta domeketan be bai, zelan eskatuten eutsien mutilak neskeri jantzea ikasi edo ikasten.

Soiñulari, trikitilari edo albokarien laguntzaileak zirean pandero jotzaileak, eta batzuetan kastañuela jotzaileak be bai, eta areik jotan edo trikitixan alkarri oratu ta orduan kantetan audezan kantak ikasi edo ikasi be bai oso pozik.

Erromerietarako, udalak beren partetik bialdu ten auzen txistulari eta laguntzaile edo atabalerua, nozik beiñean txandatuteko. Soñulariak, barriz, beren partetik eukiten auden jantza kobratzailea. Au da: txistulariak, udalak bialdua zan lez, ez auen kobretan. Baia bai soiñulariak, eta kobratzaile orrek begiak zur edo bizkor, iñor geratu ez daiten pagatu barik.

Jantza bakotxeko kostea zan txakur andi bat, eta erromeri batzuetan igoal agertuten zirean iru soiñulari; eta bakotxak beren alderdia seguratuteko, asmau auden txartel batzuk euren izenagaz sal dutea euren korruan jantzan ebizaneri, beste soiñulariengana joan ez daitezcan.

Txartel orreik balio auden amar jantzarako; eta bat-banan baño merkeago emotean, jantzariak erosi be bai.

Orain emetik segidan daukozuez zein edo nongo erromerietara joaten ginean geure gazte denporan, batez be andi egin da gero:

Zezeilaren 3: San Blas, Zaldain, Zeberio.

Zezeilaren 3: Abadiño, urtean beingoz, feria eta guzti.

Martiaren 19: San Jose, Deusto, Bilbo, gure denporan erromeri famatua.

Marti eta apirila: sasoi onetan, gitxi gora-bera, garizuma, eta orduan zazpi aste jantzarik egin barik, pazkoetararte.

Maiatzaren 3: Santa Krutz, Zeberio.

Maiatza Azentzio garizumaren menpeko Uriondo, Zeberio.

Maiatza, Santa Luzia, garizumaren menpeko Yermon, Laudion.

Maiatzaren 15: San Isidro, labradoreen jaia.

Bagilaren 10: San Kristobal, Dima, txoferren jaia.

Bagilaren 13: San Antonio, Urkiolako Santu debotua.

Bagilaren 24: San Juan, Zeberioganeko auzunean.

Bagilaren 29: San Pedro, Arrankudiagan, emaztearen auzunean.

Garagarlearen (uztailaren) 3-an: Santa Isabel, Zaratamo.

Garagarlearen irugarren domekan: San Sejis-mundo, Upoko ermitan.

Garagarlearen 17: San Anton txikerra, Artetako auzunean, Galdakao.

Abuztuaren lenengo domekan: San Adrian, Argi-ñao, Zeberio.

Abuztuaren 10: San Lorentzo, Zaratamo; eta Ermitabarri, Zeberio.

Abuztuaren 15: Andra Mari, Zeberiogane; eta Arrankudiago plazan.

Abuztuaren 24: Uxargo auzunea, Zeberio; eta Ugao-Miraballes.

Urrilenengoaren 3: San Antolin, Zeberioko plazan eta Orozkokoan.

Urrilenengoaren 8: Andra Mari, Ugao-Miraballesko plazan.

Urrilenengoaren 29: San Migel, Basauri eta Igo-rreta.

Urriaren 13: San Fausto, Basauriko plazan.

Zemendiaren 1: Domuru Santu, toki guztietan.

Zemendiaren 11: San Martin, Zollo eta Orozko.

Abenduaren 13: Santa Luzia, jostunen jai.

Abenduaren 24-25: Gabon jaiak, toki guztietan.

Abenduaren 26: San Esteban, Etxasoko auzunea, Zeberio.

Orreik eta beste jai edo festa askoren frutu edo Euskadin dogun alaitasun edo alegantzien mami dira segiduan datozen kantak:

Artolak dauko, Artolak dauko,
Artolak dauko famea,
berena dauela, berena dauela
mundu guztiko jentea.
Bilbon dauko etxe bat
ollo korotzez bete bat;
Gazteiz Araban beste bat,
zutik ez dana traste bat.

Goizean Parisen, gaubean Parisen,
Parisko kalean luzea!
Auxe kale au pasau ezker
aurreko zaldia neurea.

Asi goiko kalean
beko kaleraiño,
amaika neskazartxu, maitea,
bajagok oindiño.

Ezkonduten ez dana
aurtengo urtean,
errematera doa, maitea
urrengo urtean.

Nor izango ete da
errematantea?
Neskak izurrau gura dituen
faltso bergantea.

Goazan mendirik-mendi,
euskotar gazteak,
goazan aldatza gora
mendigoizaleak,
aize osasuntsua
biziten artzera,
aberri guztiari
agur egitera.

Tontorrera elduta
abestia egin,
santso eta irrintze, *ujuju!*,
indartsuak egin!
Gora Jaungoikoa ta
gora Lege Zarra!
Gora, gora betiko
aberri laztana!

Ona orain erromerietan jantzarako usu zirean
jota batzuk, soiñuan, batez be jai orreri edo paraje
orreri ondo dijoaizkionak, esate baterako San Bla-
setan:

San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzen ni;
denpora txarrak emonda
enintzen ondo ibili.

Onan kantetan da:

Abadiñora nintzen ni,
San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzen ni;
denpora txarrak emonda
enintzen ondo ibili;
enintzen ondo ibili,
San Blas pasau dan urte bi.

Banaruela seguru
Erriojara soldadu,
besteri serbiduteko
amaren seme sobradu.

Itxasoan doianean
ontzia kristalezkoa,
zeinbateg esango ete dau:
"Birjiñe Begoñekoa!".

Itxasoan ure lodi
ez dau ondarrik ageri;
neure laztana ikustearren
pasauko neinteke andik.

— Antonio, nora zoaz
zeure bibolin orregaz?
— Domekan Errigoitire,
etorri nai bozu neugaz.

Panderetatxu barrie,
amak Bilbotik ekarrie,
amar erreal pagaute,
erdie urre gorrie.

Salada batek Zornotzan
egin dau gona gorrie;
barrenetik bota deutso
azpilledure zurie.

Altuen bizi naz baia
kalean dauket gogoa;
ez dot jakin orain arte
zelan dan amodioa.

Euskeraz kantauko dot nik
danak dakiten moduen:
ez dala pobrerik bizi
aberatsaren moduen.

Ederregle zara zu
soloan bearrerako;
artu izu kaballeroa
kalean paseorako.

Entzun dot esan dozule
ez agozela niretzat;
eskerrik asko, majea,
neu be enago zuretzat.

Txikitxue ta polite
Txorroetako Frantziske;
alarguneaz ezkontzea
asko sentiduko neunke.

Auxe da despedidea,
despedidaren tristea!
Agur aiterik eta ama,
agur, arreba maitea!

Orain, barriz, txistu eta tanboliñeko jantzak. Bai
soiñulari, bai albokari edo txistulari, bakotxak
txanda baten joten auen, eta kanbietan zirean des-
kantsatzeko.

— Ai, ene Mari Manu,
zeberiotarra,
zegan saldu zenduen
birigarro arra?
— Amalau txakur t'erdi
geroko plazuen.
— Ai, ene Mari Manu,
karu ein zenduen.

Txakurre faltau jako
Don Peru jauneri;
seiñale onak ditu
agertu baledi:

belarriek baltzak ta
buztena zurie;
aren azpian barriz
arrautze parie.

Graziano Elosuko
Madari ganean,
tiroa bota eta
il enaubanean;
lenagoko tiroan
asustau ninduan;
bigarrena entzunda
bizirik nenguan.

Gaubean errondan da
gozean logure;
gaztea, zu ez zara
osasunan gure.
Amar-amaiketako
eguzki beroa.
“Ama, buruen min dot,
etxera banoa”.

Josepantoni, kolore gorri,
kapitan baten alaba;
amak doterik emon ez arren
nik topauko dot senarra.
Astelenean etxe-bearrak,
martizenean basora,
egueztenean orbela batu,
eguenean etxera.

Aite San Migel Igorretako,
zeru altuko lorea,
agure zarrak jantzan ikusi
ak egiten jok barrea.
Aita Juaniko, seme Periko,
zer daukek afariteko?

Orio aza gozo-gozoa
opil beroagaz jateko.

Matxalen Busturiko,
izan balitz ona,
ez oan etorriko
Busturitik ona.
Matxalen Busturiko
aratx arro baten,
kukuek egin jozak
iru ume aurten.

Turruku tuku tuku,
ez niri ikutu;
ama kamaran dago
sentiduko gaitu.
Turruku tauki-tauki
mailluaren otsa;
noz ezkonduko ete da
gure neska motza?

Bizkaian porruak kantetan dira jotearen modura
agarretako. Ona porru eta arin-arinak, bai soiñu
eta bai albokarako:

Dimen erromerie
Maietz Pazkoetan;
ortxe datoz mutilak
neskak konbidetan.

Neskak konbidetako
Dimeko plazea;
mutilok galdu daue
sedazko boltsea.
Amak emon balautsie
etxean lotsea,
ez audien galduko
sedazko boltsea.

Ederra ta galanta
biek leku baten;
ona ta aberatsa
gatx dago bilatzen.

Zure amatxuk niri
berba ez eiteko,
zer palazio eder
dauko emoteko?

Orozkora noa ta,
baita Saloara;
ango alimentue
beti taloa da.

Uborota ganean
iru tirolari:
Txomin eta abadea,
Manuel de Goiri.

Goiak ariñen dozak,
beak ariñago;
jantzan obeto dakik
artajorran baño.

Aita San Antonio
Urkiolakoa,
askoren biotzeko
santu debotoa.

Askok egiten deutso
San Antoniori
egun batean joan,
bestean etorri.

Durangon bazkalduta
Mañarie gora,
Urkiolara goaz
San Antoniora.

Urkiolara joan,
zapatak urrutu;
Aita San Antoniok
barriak eingo'itu.

Urkiolara joan
Domuru Santuruz,
lenengo preguntea:
"Non da Mari Jesus?".

"Iturrire joan da,
laster da etorri,
mandazain mutilakaz
tardau ez baledi".

Antonio Goitia
bibolinterue,
izterrak zabalduete
joten jok soiñue.

Despedidea da ta
ibili kontuen;
akabetara noa
urrengo puntuen.

Edan korriente ta
pagetea aiztu;
olan tabernerarik
ezin aberastu.

Amazortzi urte ta
emeretzi etxe;
olango neskeagaz
ezkondu laiteke.

Txitxu Larrabetzuko
Maritxun atzean;
bidean lotu jaku, maitea,
patata saltzean.

Amaika demoniño
bajagok munduen;
Josepa lengusiñek
engañau ninduen.

Alboka eta pandero soñuko jotak, nai ta balio
soiñurako be:

Esaten da “Bilbo, Bilbo,
ez dago Bilbo langorik”.
Ardao zurie edaten daude
bat bere dude bagarik.

Errepika:

Piri-biri zañea,
Mari Montaña,
txokolatez beterik
daukela tripea.

Amak ezkondu nedile
Otxandioko urire;
ama, nik ez dot joan gure
ango untzegintegire.

Larrosa bentanakoa,
ifinten zaitut kontuen,
ez baltseorik eiteko
nire pandero soñuen.

Txikitxue zara baia
aziko zara oindiño;
aziten ez bazara be
ez zaitudela itxiko.

Neure maitea, zer da ori?
Koloreak ondo bellegi.

Koloreak gorrituteko
edaizu metal ur ori.

Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galanten amak
mutil zatarren bildurre.

Altuen San Kristobale,
bajuan Madalenea;
para je ona Montaña,
Bizkaie askoz obea.

Auxe da despedidea,
despedidaren tritea!
Egin badot aungerorik
parkeske nago, jentea.

Artolak dauko



Ar-to-lak dau-ko, Ar-to-lak dau-ko, Ar-to-lak



dau-ko fa-me-a, be-re-na dau-e-la, be-re-na



dau-e-la mun-du guz-ti-ko jen-te-a. Bil-bok

10

dau - ko e - txe bat o - lla ko - ro - tzez be - te

13

bat Gaz - teiz A - ra - ban bes - te bat zu - tik

16

ez da - na tras - te bat.

Goizean Parisen

1

Goi - ze - an Pa - ri - sen, gau - be - an Pa - ri - sen, Pa - riz - ko

4

ka - le - an lu - ze - a Au - xe ka - le au pa - sau ez -

7

ke - ro au - rre - ko zal - di - a neu - re - a.

Asi goiko kalean



A - si goi - ko ka - le - an be - ko ka - le - rai - ño,



a - mai - ka nes - ka - zar - txu, mai - te - a, ba - ja - gok oin - di - ño



a - mai - ka nes - ka - zar - txu, mai - te - a ba - ja - gok oin - di - ño.

Goazan mendirik mendi



Goa - zan men - di - rik men - di, eus - ko - tar gaz - te - ak, goa -



zan al - da - tza go - ra men - di - go - xa - le - ak. Ai -



ze o - sa - sun - tsu - a bi - zi - tzen ar - tze - ra, a -



be - rri guz - ti - a - ri a - gur e - gi - te - ra.

Abadiñora nintzen ni

1

A - ba - di - ño - ra nin - tzen ni San Blas

4

pa - sau dan ur - te bi A - ba -

6

di - ño - ra nin - tzen ni den - po - ra txa - rrak e - mon -

9

da e - nin - tzen on - do i - bi - li e - nin -

12

tzen on - do i - bi - li A - ba - di - ño -

14

ra nin - tzen ni.

Ai, ene Mari Manu



Ai, e - ne Ma - ri Ma - nu ze - be - ri - o - ta - rra, ze -



gan sal - du zen - du - en bi - ri - ga - rro a - rra? A -



mai - ka Txa - kur t'er - di ge - ro - ko pla - zu - en. Ai,



e - ne Ma - ri Ma - nu ka - ru ein zen - du - en.

Txakurre faltau jako



Txa - ku - rre fal - tau ja - ko Don



Pe - ru jau - ne - ri; sei - ña - le o - nak



di - tu a - ger - tu ba - le - di: be -



la - rri - ek bal - tza ta buz - te - na zu - ri -



e, a - ren az - pi - an ba - rriz a -



rraun - tza pa - ri - e.

Graziano Elosukoa



1 Gra-zia-no E-lo - su-kon Ma-da-ri ga-ne -



4 an, ti-ro-a bo-ta e-ta, mai-te-a,



7 il e-nau-be-ne - an; ti-ro-a bo-ta




10 e-ta, mai-ti-a il e-nau-be-ne - an



13 le-nen-go-ko ti-ro-an a-sus-tau nin-du -



16 an, bi-ga-rre-na en - tzun da ge-ro be



19 bi-zi-rik nen-gu - an, bi-ga-rre-na en -



22 tzun da ge-ro be bi-zi-rik nen-gu - an.

Gaubean errondan da



Gau - be - an e - rron-dan da go - ze-an lo-gu-re, gaz-



te - a, zu ez za - ra o - sa - su - nen gu - re. A -



mar - a-mai - ke-ta - ko e - guz - ki be - ro - a. "A -



ma, bu - ru - an min dot, e - txe - ra ba - no - a".

Joxepantoni, kolore gorri



Jo-xe - pan - to-ni, ko - lo - re go-ri, ka-pi -



tan ba-ten a-la-ba, a-mak do-te-rik e-mon



ez a-rren nik to-pau-ko dot se-na-rra. As-te -



le - ne-an e - txe be - a-rrak, mar - ti -



ze-ne-an ba-so-ra, e-guez-te-ne-an por-be-



la ba-tu, e-gu-e-ne-an e-txe-ra.

Matxalen Busturiko



Ma - txalen Bus - tu - ri - ko i - zan ba - litz o -



na, ez o - an e - to - rri - ko bus - tu - ri - rik o -



na. Ma - txalen Bus - tu - ri - ko ars - ta a - rro ba -




ten, ku - ku - ak e - gin jo - zak



i - ru u - me aur - ten.

Turruko tuku tuku



Tu - rru - ku tu - ku tu - ku ez



ni - ri i - ku - tu; Tu - rru - ku tu - ku




tu - ku ez ni - ri i - ku - tu; a -



ma ka - ma - ran da - go sen - ti -



du - ko gai - tu, ai, oi, e -



ne, sen - ti - du - ko gai - tu.

Ederra ta galanta



E - de - rra ta ga - lan - ta bi -



ak le - ku ba - ten; o - na ta a - be -



ra - tsa gatx da - go bi - la - tzen.

Amak ezkondu nedile




O-txan - di - o - ko u - ri - re a - mak



ez - kon - du ne - di - le O - txan - di - o - ko u - ri - re




a - ma, nik dot jo - an gu - re an - go un -



tze - gin - te - gi - re an - go un - tze - gi - te - gi - re



a - mak ez - kon - du ne - di - le.



Zeberio.

Santa Ageda

LEGE zaarreko usadioan, betidanik ezagutu dogu zezeilaren 4-ean, Santa Ageda bezperan, joatea, makila andi batzuek eskuan arturik, mutilmoltso edo lagunarte bat, santaren martirio eta beste kopla batzuk kantetan.

Martirioa estrofa askokoa edo luzea zan ezker, etxe bakoitzean zati bat kantetan gendun; au da, erdia inguru. Gero, etxeko persona bakoitxari edo geieneri beintzat kopla bana kantetako, etxekojau-nagaz asi eta txikitxuenagaz akabetako. Orreikgan-dik aparte, alargunari be bertsoa; eta bai agintari, bai alkate, aberats, abade eta abar. Eta, etxeren baten baegon il barriren bat, an, kantau barik, ila-ren arimaren alde orazio bat errezau; eta ez, gaurko moduan, kantu bategaz berrogeitamar etxe edo geiagorentzat, dozenerdi diru-batzaile, portaletako tinbre edo txirrinak jorik, asko korriduteko.

Kantu orretarako danak erritarrak izaten zirean, batez be, soldaduskara joatea toketan jakien kinto edo mutil gazteak. Baia orrein atxakian beste asko be ibilten ginean, bai eskolako umeak, bai *Acción Católica*-koak, batzokietako abertzaleak, euskalte-giak eta abar.

Ni txikia nintzala, etorten zirean erririk erri gizon eta andra kinkillero edo gauza-saltzaileak; eta orreik ekarten audezan kolorezko kanta-papelak,

bai azul, bai gorri, arrosa eta abar; batez be Santa Ageda inguruan, santa onen kanta-papelak; eta guk erosten genduzan, buruz ondo ikasteko. Martirio orren asierea zan:

Bedeinkatua izan dedilla
etxe onetako jentea,
pobre-umilde dabizenentzat
badute borondatea.

Santa martiri maitea
dago errukiz betea,
berak alkantzau da emon daigula
osasuna ta bakea.

Libertadea eskatzen diot
etxeko printzipalari,
Santa Agedaren alabantzak
kantatutera noa ni.

Graziak deuzkat ipini
Santa bedeinkatu oni,
onen fedean bizi gaitezen
osasunaz eta ongi.

Nork esango dau zer pasau zuan
munduan Santa Agedak
lendabiziko azotatuta
kendu zizkaten bularrak

Lengo urte orreitan ori kantetan gendun. Baia gero, errepublika-denporan, *Euzkadi* egunkariak ekarten auzen bertsoak, eta bai Santa Agedaren martirio zaarragoa, jenteari geiago gustetan jakon, batez be Zeberion, eta ori kantetan gendun. Asierea onelan da:

Zeruetara begiak altzau
graziak eskatutzeko,

Santa Agedak zer pasau zuan
gaur emen esplikatzeko.
Printzipio onak izan zituan
lendabizitik asteko,
martiriozko pena tristeak
zegoen ikusitzeko.

Gobernadore Palermokoak
aginpidea bazuan,
Santa Ageda ain zan ederra
bere andratzat nai zuan.
Gizon aundia izanagaitik
ori logratu etzuan,
lendabiziko martirioak
argaitik izan zituan.

Soldaduari agindu eutsen
plazan azotatzeko,
eta mudatu nai ez bazuan
bularrak ebakitzeko.
Sententzi ona emoten deutsa
biotza alegratzeko,
orreik guztiok egin da gero
kalabozora sartzeko.

Aditurikan jentil gaiztoak
elduten deutse bertatik,
kutxilloakin ebakitzeko
bere bularrak ondotik.
Gorputz guztia estali jakon
odolaz bere petxotik,
probidentzia ez eban falta
Jaungoikoaren aldetik.

Negargarrizko tristurarekin
bularrak oso kendurik,
kalabozora eraman zuten
silla batean arturik.

Ezin zinteke iñola bizi
izan ez balu grazirik,
zeiñek ikusi ote du baiña
milagro aundiagorik?

Arik urrengo egunsentian
joanik bixitatzera,
ura bizirik ikusterikan
iñork etzuan espera.

.....
.....
.....
.....

Zortzi urteko mutikoak nagosieri ikusirik, atrebi-
du ginean kantetan, lenengo gure auzunean, Urion-
don, bertako mutiko-moltso bat: Gregorio
Larrakoetxea, Juan Jose Salzedo, Frantzisko Urruti-
koetxea, Dionisio eta Pedro Barañano, eta ni, Lino.

Au izan zan, *Bedeinkatua* kantatuz, asierea; eta
urrengo urtean korridu genduzan Uriondo eta Zal-
dain auzune biak. Lenengoak eukazan gitxienez
ogei famili edo etxe, eta besteak amabi. Ikusirik
asko batuten zala, oso pozik ibiltzen ginean.

Guk, mutikoak, egiten gendun bazkari edo
merienda bat: txorizo, arraultz, lukainka eta abar;
eta dirua partidu, zeinbat lagun ginean ainbeste
zatitan, aurrendariari pezeta pare bat geiago emo-
nez. Amairu urte egin nituen nik Santa Ageda kan-
tetan, eta danak aurrendari.

Irugarren urtean, Santa Gurutzeko eskolara
genbizala, kantau gendun Zeberio-Elbarrenan goxe-
ko bederatzietan asi eta gauerartean, eskola-mutil-
-moltso batek; eta ginean: Simon Egiluz, Kandido
Aierdi, Juan Jose Solatxi, Juan Jose Salzedo, Juan
Jose Gorostiaga, Jon Isasi, Frantzisko Abrisketa eta
ni, Lino.

Aurretik esana dan moduan, kantu au izaten
zan etxe bakotxean kantaldi bat egitea; eta atzenen-
go estrofan kantau geuntsan Arkulandan bizi zan
Santa Gurutzeko abadeari:

Kandelario, lario,
atxari ura dario;
orain emetik bagoaz eta
urrengorarte adio.

Eta etorri jakun abadearen arrebea, Zeferina
Sagardui eritxona, asarrez beterik esaten:

— Zuek dotriñeari, bai, egiten dautsazue adio!

Eta balkoeko eskilarak jatxi barik, leiotik bota
euskuzan lurrera sasoi aretan usetan zirean
kobrezko txakur andi bi, au da, amar zentimoko
diru edo txanpon bi.

Gure partetik, ikusiz borondate txarrean emoten
euskuzala, an lupetz artean geratu zirean, guk artu
barik; eta au ikusten egon zan mutil batek, gaur
Jaunak deskantsuan dagiala, Periko Etxebarriak,
esan auen:

— Abadea mutikoakaz asarre da. Baia mutikoak
be bai beragaz.

Au zan urte beratan dotrinatik anka egitearren
zurrau ginduzena.

Lengo arira joanik, urte orretan batu gendun,
jateko gauzengandik aparte, sei edo zazpi pezeta
bakotxak, eta nik pare bat geiago. Ori zan gizon
baten eguneko jornal edo soldatea, eta oso pozik
ibili ginean urte batzuetan, anai arteko gerrak
urten artean.

Gerra negargarri orrek eroan auzen frentera nire
aurreko mutil guztiak, 1941-eko kintoak barru zire-
ala, eta gu justo-justo librau ginean gerrara eroan
barik, 1942-koak izatearren.

Gerrea akabau zan 1939-ko apirilaren 1-ean, eta ni eroan ninduen soldadu 1942-ko maiatzaren 29-an. Alan da ze iru urtetan izan ginean kinto, eta kantau gendun urte orreitan, au da, 1940, 1941 eta 1942-an, erri guztia ezin korriduz, etxerik geien edo zatirik onenak dagozen lekuetan, goizean asi eta gauerdirarte.

Oneik dira lagunarte orrein izenak: Juan Jose Salzedo, Julian Egiluz, eta Joakin Goti, ilak edo Jau-naren eskuetan dagozenak; eta biziak, Lino Artetxe, Eujenio Orue, Juan Jose Gorostiaga, Dionisio Barañano, ni, Lino Ayesta, eta Justo Arandia, zestillero.

Sasoi orretan, nagosien gradura eldu ginean lez, banketeko egun beratan goizean entzuten gendun Santa Agedaren izenean ataraten gendun mezea, eta gero ederto bazkaldu, eta orduan kanta ta jan-tza asetu arte.

Akordaten naz: urte baten domekaz jausi zan kantetako eguna, eta bazkaiteko agindu gendun plaza ondoan, Federiko Perearen tabernan, zopa bero bat aurretik, eta gero geuk batutako txorizo eta arrautzezko tortilla eder bat jateko, ardaoa taberneroak emonik.

Taberna ori oso jentez beterik egoan, eta iru bider kantau bear izan gendun, danak konforme ixteko: lenengo etxekeori, eta gero bi bider geiago an egozan mutil eta neskeri koplatsu edo notatutearren. Baia tira: ederto portau jakuzan tabernero eta beste guztiak limosna edo sariz.

Jakina dan moduan, lagunarte orretan bat izaten zan boltsero edo zestillero, eta urte orretan eroan gendun gu baño zaarragoa zan Ergoieneko Justo Arandia eritxon mutil onkote bat; eta egun guztia kantetan ibili eta gero, ia gauerdian, Ermita-barritik Ibarrera bitartean, oso kantsaurik, sama zarratu eta goseagaz, asi ginean nozik bein batek zestillatik, Justori ezertxu esan barik, arrautza edo

txorizoak gordinik jaten, da zestilla ori erdi utsitu, Justo gixajoa konturau ordurako.

Alango baten konturau zan, eta etorri jatan nigana, aurrendari nintzan lez, erdi negarrez esaten:

— Zestillatik kendu daustez txorizo eta arrau-tzarik erdiak ilunetan; eta ez pentsau, txikienean be, nik ostu dodazenik.

Nik ondo nenkien an zer pasau zan, eta esan neutsan:

— Justo, egon adi trankil, ze orko lapurrak emen gagozak eta.

Baia txarto ulertu eustan, eta barriz esan:

— Ni enok lapurra!

Eta nik barriz esan neutsan:

— Egon adi nasai, geuk jan jaguzak eta!

Ordun Justo trankilo geratu zan.

Arik, 1942-ko maiatzaren 29-an, eroan ninduen soldadu Madrillera, 1945-eko urrilenengo edo irailaren 18-rarte; eta besteak be Españan zear.

Soldaduskatik etorri orduan be, Ramon Pradera-ren fabrikan barriz bearrean nenbillela, abisau ninduen urte orretako kintoak joateko Santa Ageda kantetan aurrendari.

Nik, bear-lekuan baimena edo permisoa eskatu bear nendun ezkerro, esaten neutsen beste bat topau dagiela eta eroan. Baia eurak ni gura ninduen. Orduan eskatu neutsan, eguneko saritik aparte, eun bat pezeta eta banketea libre; ta, orrez gain, atara dagiela alkate jaunaren papel edo lizentzia. Erantzunik baietz, konforme zireala, alan kantau gendun.

Alan kantetan gendun urte guztietan, soñulari ta guzti, batzuetan Rufino Larrazabal eta bestetan Luis Etxebarria arturik; eta kantari: Tomas Egiguren, Blas Egiluz, Pedro Egiluz, Jose Mari Olabbarri,

Pablo Intxaurreaga, Pedro Ugalde, Esteban Eguzkiza edo kintoz toketan zireanak, ni, Lino, aurrendari nintzala, 1949-an ezkondu arte, nai ta ezkondu ta gero be, Arrankudiagako Julian Reketa eta Jose Beldarraini erakutsiz martirio zaarra, eurak kantau dagien errian.

Gure aurretik edo nik ezaguera dodanik, baegoan zaletasun edo afiziño andia beintzat Zeberion mutil-moltsoak juntatuz santa oneri kantetan. Izenez danok ez dodaz esango, baia bai aurrendariak: Modesto eta Frantzisko Artetxe anajeak, Torre baserrikoak; Frantzisko Akesolo, Bertsutengoa; Jesus Isasi, Altzagakoa; Pedro Aierdi eta Ceferino Arrese, anaje ordeak, Olatxukoak; eta Manu, Pedro ta Juan, neure anajeak, oneik irurok gaur ilak, beste asko lexe.

Aurretik esan dodan moduan, baekien lez ni permiso barik ez niñoiala, aldi aretan moltso larregi ebillelako, ta erriko jentea oso aspertu zan limosna edo sari emoten, orduan alkateagana joan zirean batenbatzuk kexetan, ta orrek artu erabagia iñori be permisorik ez emotea. Kinto mutilok joanik permiso eske, ezezkoa izan zan erantzuna, erria asarre egoalako.

Ez dakit nor, baia segiduan batenbat joan zan gobernadore jaunagana Bilbora; eta, orrek baieztatuz, alkateak be emon auen baiezkoa kantetako, eta ortxe konpondu zan dana.

Gura ez dauena derrigortzea
buruzagien lege da,
orixegaitik martirizatu
auden gure Santa Ageda:
kutxillogaz bularrak ebai
eta kartzelan reo da,
galantasunen kastigu geio
mundu guztian ete da?

Negargarrizko martirio au
 gertatu zan Katanian,
 altsu guztien dominio da
 lograu ezin daudenian
 Zor daude eta pagau bearko
 eriotz txarren ganian,
 munduko alak ezereztuta
 aurkituten diranian.

Bedeinkatua izan dadila

1

Bedein-ka - tu - a i - zan da - di - la e-txe on-

4

ta - ko jen - te - a, po-bre u - mil - de da - bi - ze-

7

nen - tzat ba - du - te bo - ron - da - te - a. San - ta mar-

10

ti - ri mai - te - a, da - na e - rru - kiz be - te -

13

a, be - rak al - kan - tzau da - noi dai -

15

gu - la o - sa - su - na ta ba - ke - a.

Zeruetara begiak altzau



1 Ze - ru - e - ta - ra be - gi - ak al - tzau gra - zi - ak



4 ez - ka - tu - tze - ko, San - ta - A - ge - dak zer pa - sa zu -



7 an gaur e - men es - pli - ka - tze - ko. Prin - tzi - pi



10 o - nak i - zan zi - tu - an len - da - bi - zi - tik as - te -



13 ko, mar - ti - ri - oz - ko pe - na tris - te - ak ze - go - an



16 i - ku - si - tze - ko.

Kandelario, lario




Kan-de-la - ri - o, la - ri - o, a - txa-ri



u - ra da-ri - o; o-rain e - me - tik ba-go-az



e - ta u-rren-go - rar-te a - di - o.



Santa Krutz, Zeberio.

Sorginak

ALDI orretan sorgin edo deabru fraka gorriakaz bildurtuten zan jente guztia, batez be gau-baz. Alan da ze ilunabarrera ezkerro etxeratuten zan al auen guztia.

Ori dala-ta, burlari edo txantxazaleak, barre ta burlaz zintzo edo koitaduak, sorgin buru eginik, mozorro edo maskara jantziz, zarata edo txilioka bildurtuagaz, bear erremintak bertan bera itxiz etxera egun argiz eroaten audezan. Bai baztar solo, bai bereziondo, atzenez teillape, etxe uts eta abar.

Kalabaza utsitueri barruan kandelak izitu, pentsau dagien sorginak dirala.

Uriondo gure auzunean, arako gau oso ilun baten, akordau jakien eleizako kanpantorretik eskegita egoan burrun kakoa eleizperartiño, asto gosakil aundi bati amarraurik ifintea, gauberdi inguruan, jateko urrintxo dauela, ori koxi bakoitzean kanpaia jo dagian.

Baita jo be bai jokera ez-ezagunez. Ori zala motibo, bildurtu zirean jente guztia estremurartiño. Gizon da andrak errosarioa errezetan pasau auden gau guztia, begirik itxi barik.

Urrengo goxean, eguna zabaldu beste barik, alkarrerri deituz, badoaz gizon moltso bat zer pase-tan zan ikustera. A zan sorpresea! Asto etxunik eta

inguru guztia korotzez beterik. Orduan konturatu zirean, sorginak, aziño au eginik, ostondu zireala barriro koba zulo edo sorgin etxean.

Andik urrena, pentsaurik asto orrek deabruak daukazala, deitutzen eutsien *sorginen astoa*, eta ez auden ikus gura begien aurrean, ugazaba beartuz saltzean, txartel bat ifinirik.

Askai aundiko astoak gosez
janez kanpaia joteak,
sorgintzat botaz itxi dautsiez
uzabagandik ateak.
Ori motibo erdi prezioz
etxez kanpo ifinteak,
errubakoak pagetan dautsez
erruduneri kalteak.

Martin errotaria

ORAIN dala eun da bost urte, Martin deituten zan gizon txairo edo ponposo bat, errotaria.


Orduko usadioan, arto ta galgaraua ioteko eroaten zan errotara, eta ekarri be bai, astoetan. Errotarien saria edo mendea izaten zan euneko zortzi edo amarra.

Baserri batzuetan, urrin da aldatsu, akarreo txarrak egoten zirean. Batez be aldatz beretan, astoak, zorroak eroan ezinik, uskerra dariola bajetan zirean.

Gure Martin errotaria beti pintxo ta ponposo etxetik urtekeran. Baia zorroak konpondukeran astoari, loituten zan osoan.

Makilea eskuetan dauela, astoak zurretako ta kantaziñoan errotarantza datorrela, topetan dau beste auzune bateko gizon bat. Alkarri txera aundi bat eginik, ezarri zirean zigarro bat egiten erretako, esanik:

- Kaixo, Martin!
- Ola, Patxi!
- Ondo zabiz?
- Bai. Ederto.
- Bueno, pregunte bat egin bear dautzut.
- Zer da ba?



Ermitabarri, Zeberio.

— Gariak zer egiten dau?

— Gariak zer egingo dau, ba? Uruna.

— Ezetz, gizona. Nik ori ez dot esan gura, prezio edo altu-bajua baño.

— Bai; astoan baño mandoan altuago.

Orduan diñotso Patxik:

— Zuk jakituri aundiak daukozuz; baia orrek, aurreko astotxu orrek, zorroa aurreregi daroa.

Besteak:

— Oba, beste kilometro bat aurrerago baleuke.

Kilometro bat egoan andik errotara.

Patxik ikusirik errotariaren listezea edo jakituriak, apur bat asarraturik, diñotso:

— Zu jakituna, ta ni bertsolaria. Alan da be, postura bat egin bear dogu.

— Zer postura egingo dogu, ba?

— Pitxer bat ardao.

— Eginik dago.

— Baietz igerri nik zegaitik urtetan dautzuen zeurori seme-alaba errubioak, zeurok baltziskak izanik.

— Bai; bizia jokatu neuke ezetz igerri.

— Nozik nozera egiten dozuez senar-emazteak sexu bearrak?

— Nekez. Oso gitxitan. Urtean bein edo alan.

— Orduan gauza jakina da.

— Zegaitik?

— Oxido edo ugarra formetan dalako bien bitartean.

Errotariak:

— Oraintxe momentu onetan prisaz noa andeari esaten zegaitik dan falta ori.

Ta asto koitaduak palokazu utsean daroaz etxerarte, esanez:

Jakitun da arroak
eskuetan makil,
bestei beren erruak
pagazoten dabil.
Astoa jaio nintzen,
kargapean nabil,
buruz enazelako
lepoaz lez abil.

Diruzale zekenak

ALDI aretan, baserri baten bizi zirean aita-
-seme zeken edo diruzale amurrutuak. Bata
zeken aundia bazan, bestea andiagoa.

Semea ezkon edadera eldu zanean, bien konfor-
midadez ezkondu zan gurasoen etxera, batera bizi-
teko idean, aita-amen laguntasunagaz umeak aziz;
ta gero, semearen karguan, gurasoak, zaar egin edo
ezgauzetu orduan, lagunabarrez tratau edo mante-
nietako.

Baia umeak azirik gero, estorbu egiten eutsien
aita-amak, batez be eurak mantentiteak. Orduan
akordau jakon semeari diru edo ondasun danak
beregandutea, esanez:

— Nire berbea erregearena izango da!

Parte biak konformau alan izateko; eta gero,
semeak beregandurik ondasunak eskritura ta guzti,
asi jakozan esaten, ba, ze asiloan obeto egongo lai-
tekezala, bear barik eta pintxo-pintxo jantziz, pase-
oan beste batzuekaz, esanez:

— Neuk lograuko dautzuet an lekua, ze ango
buruagaz lagun andia naz ta.

Konformaurik semearen berbakaz, esaten dau-
tso aitak:

— Zeure eskuetan itxiten dogu.

Urria edo udagoiena zan ezkerro, bearrik geienak eginik egozan, baia neguan aita-amak mantentiteak emoten eutson buruko mina. Alan, lenbailen prepa-rau zan martxea: andik egun bi barru, eroateko aita eguerdiko ordubietarako.

Aitak:

— Ez dakit al banaz joan, ze erreumeagaz nabil.

Semeak:

— Neuk eroango zaitut lepoan.

Denpora sargori egoan; da, bide luzea zan ezkerro, izerditan seme ori, aita lepoa dauela. Akordau jakon arexpean gerizpetan deskantsau bear dauela. Jarri zirean orduan, aitak diñotso semeari:

— Neuk be ementxe deskantsau nindun, neure aita asilora eroan nendunean.

Ori entzuteak semeari, uleak arteztuak, biotza taupadaka ifini dautso, ta pentsetan asi zan: “Onek eroan auen beren aita; nik neurea. Ez ete da egongo niretzat be neurriko zapatea? Usadio onegaz akabeta-ko, onena izango da bake-bakean osterera etxera joatea”.

Artu aita barriz lepoan da eldu da ateetara. Amak diñotso:

— Zer pasetan da, ba?

— Eze be ez, ama. Damutu egin jat.

Aziño orren bitartez gurasoak deskonfiatu zirean; da auzoan egoan gizon jakintsu bat eta areri kontau eutsien zer pasau jakien.

Gizon orren erantzuna:

— Au ixileko sekreto da. Neuk emongo dauzuedaz ogerleko batzuk; eta goxean, oitik jagi orduan, kaxea mobidu sano, diruak zaratea egiteko, pentsau dagien diru asko daukozuela oraindiño. Ta gero ixil-ixilik ekarri neuri osterera. Ikusiko dozue zelan ondo esango dautzuen.

Esan da egin. Erranak, entzunik diru zaratea, itandu aitari:

— Or kaxan diru geiago daukozue ala?

— Bai. Asko oraindiño. Atzo esan bear dautzuedala neure faltan oneik be zeurontzat dirala, ta aiztu egin jatan.

Segidan erranak semeari:

— Aita-amak oraindiño diru asko daukie kaxan.

— Ez da egia izango?

— Bai; egia.

— Orduan ondo esan bearko dautsegu.

Ta alan il artean. Baia gero gerokoak: il da ezer topau ez orduan kaxan. Eta, ikusirik makil bat barruan, konturatu zirean zer esan gura dauen orrek.

Ezebezturik egoan aita
altzau zenduen lepora,
izate dana kendu ezker
bultzekadaka kanpora.
Diruan gosez itsutu eta
gurasoak asilora,
ardi zarrari botaten jakon
moduan troka zulora.

Aretx azpiko deskantsu orrek
Jaungoikoz kanbiau gauzak,
berbaz esplikau ezin laitekez
aita ta amaren pozak.
Auzoak bere ez egozan lo,
neurtu dautzuez listezak,
eurok il arte zotza sartuaz
ta gero dirurik ezak.

Kaprortuko Txomin

ORAIN dala eun bat urte baserri edo auzune baten, Kaprortu deituten dan lekuan, bizi zirean senar-emazteak, Txomin eta Tiburtzia.

Txomin, esamesa eta ardao zale amurratua zan, ta formalidadez guztia bearrekoa. Andrea, Tiburtzia, Euskal Erriko andra asko langoa, biotz bigun da maitagarria. Zoritxarrez, Jaunak ez eutsien emon seme-alabarik.

Ori dala-ta, Txomiñen partetik sarri askotan matrakagarri edo konfiantzarik ez euken Tiburtziak. Orrez ganera, edatun izateak ekarri eutsiezan buruko min andiagoak.

Urik ez auen Txominek ikusi gura. Esaten auen, ba, ze ura arpegia garbitu ta itxasoan baporeak ibilteko dala; ta, beste askotan lez, egun baten joan zan errira ulea ta bizarra kentzean.

Baia an gañetu jakozan beren antzeko buru galdu batzuk. Andik lenengo urtekerea tabernara; eta, bat barri ta bi barri, mozkortu arte.

Gero, alangoren baten, akordetan jakien etxera joatea, ta batak besteari lagunduten pasetan jakien gau guztia.

Andra koitaduak, ganaduak gobernau ta etxeko bearrak egin. Orduan errosarioa errezetan Ama Bir-

jiñari, bakez etorri daiten Txomin. Baia orretan dagoala, *tan-tan!*, atea.

— Nor da?

— Martin auzokoa!

— Zer dakazu, ba?

— Txomin non dago?

— Txomin atzo joan zan errira, bai, ta oindo ez da etorri.

— *Bueno*, ba, esaiozu bigar bideak konponduten goazela ta ara etorteko falta barik, ze negua dauka-gu lepoan da gero berandu izango da, ezpabe.

Orretan dagozela, non datorren Txomin ori, bai-benkada utsean alde batetik bestera, lupetzez beterik, guztiz bustita ta kantetan:

Neure andrea andra ona da,
auzoak alan diñaude,
erositako prezioetan
pozikan salduko neuke.

Neure andrea goiz jeikitzen da
festarik bear danean,
buruko miña egiten zaio
lanera bear danean

Etxe ondora eldu zanean, andreari deika:

— Tiburtziaaaa! Bajatu zaite niri altzetan!

Andreak erantzun eutsan, da Txomin an ebillen batetik bestera. Baia etxe ondoan egoan ur pozo andi bat urez beterik. Alango baibenkada baten, sartuaz egur bat ankartean, *plausta!* jausi zan pozora, ur artera.

Tiburtzia jakitun zan lez zelan auzoko Martin dagoan ondoan, au erantzun au emon eutsan:

— Uragaz arerio,
ardao amantea,
Txomin Kaprortuko dan
faltso bergantea!

Martinek Tiburtziari arin:

— Zer pasetan da, ba?

— Ito bear dau ta ekarri erramal edo burdi
sokea, atara daigun!

Martinen deiari erantzutean, arrimau zan
Tiburtzia balkoera, da Txomin gizarajoa zapasaltu-
ka ur artean. Baia Martinek atarako dauen kon-
fiantzan, barriz be au esan eutsan:

— Jesus, Maria ta Jose! Au da milagroa! Nire
gizona oraintxe osatuko da ainbeste ur edategaz.
Poztuten naz noz edo noz ikusten zaitudanean ura
artzean!

Zoritxarrez Txomin il zan ur pozoan itota, da
auxe bertso au kantau eutsan atzenez andreak:

Pagau bearrez zagoz
zuk daukozun zorra,
Jaunak emon dagizun
zeruan legorra.
Emaztea nozu ta
ez biotz gogorra,
ez dautzut nik deseio
infernuan lorra.

Neure andrea andre ona da



Neu-re an - dre-a an - dre o - na da au-zo-



ak a-lan di-ñau - de e - ro - si - ta-ko pre-zi -



o - e-tan po-zi - kan sal-du - ko neu - ke.

Zirilo eta Patxa

B EINOLA bizi zan famili pobre edo beartsu bat, mutiko bat daukiela, baserrian.

Erri orretan, beste batzuek lako moduan, etxe pilo bat egoan plaza inguruan. Eleiza eta abade be bai, Don Terentzio deritxona, laguntzat beren arre-bea dauela.

Negu gogor baten suertatu zan zer janik ez eukitea. Ta, etorririk gizon ori basotik etxera, egurra preparentan ibilita mutikoagaz, ikatza egosteko, andra koitadua topau auden negarrez.

Zirilok:

— Zer pasetan da, Patxa, negarrez egoteko?

— Zer pasauko da, ba? Ez daukadala ezertxu be janaririk, bazkaria ifinteko.

— *Bueno, bueno*; ez egizu negarrik egin, ze ara emen arrautza bat zeutzako, ta guretzako neuk topauko dot zer jan.

— Zelan demontre topauko dozu, ba, ez daukogu lau ziriko bat be ta?

— Joan aurretik txilioka, ausilio eske. Orduan joango naz ni atzetik, makila bat eskuan arturik, il bear zaitudala esanez. Eta mutikoa datorrela atzetik negar plantak egiten.

Esan da egin. Naste orretan urtenik Don Terentziok balkoera, ta ikusi kuadru au, diñotso, ba, ze:

— Geldi, geldi, Zirilo! Zer da motiboa modu orretan ibilteko?

— Ara, abade jauna: semea ta biok etorri gara basotik, bear gura dana eginik, ta Patxak ez dausku ifini bazkaririk.

— Egia da, Patxa, ori?

— Abade jauna, anparau be ni. Zelan ifiniko dautsiet, gure etxean ez dago ezertxu be ta?

Abadeak:

— *Bueno*, Zirilo: zu erdu geurera bazkaiten; da andreari oneik beste auzoak emon dagiela zeozer.

Orretan badoaz abadearen etxera, ta semea ixilik atzetik. Abadeak arrebeari diñotso:

— Badago onentzako zer janik?

— *Bueno*, bai; ze bigar Bilbora joateko gogoan egon naz, ta okelea daukot gisatua.

— Bigarko agertuko da zeozer, da atara bazkaiteko.

Baita arrebeak arin preparau be, ta atara kazuela andi bat beterik, abadearen aldera onena ta besteari azurtsuena ifinirik.

Abadeak:

— Ezarri eta bedeinkatu dagigun maia.

Zirilok:

— Aitaren, Espiritu Santuaren izenean, amen.

Abadeak:

— Eta Semea?

Zirilok:

— Semea or egongo da ate ondoan.

Deituaz:

— Patxo, etor adi! Iretzat be bajagok zer jan!

Abadea lotsearren ixildu zan momentuan. Baia gerotxuago diñotso:

— Zirilo: koxi bazendun, zer egingo zeuntsen andreari?

— Oratu moñotik ta okozpetik, eta oneri kazuela oneri moduan buelta emon!

Abade listo jakitunak

EUSKADIN kokoerri batera etorri zan abade bat oso listo eta jakituna, ta beren artean pentsetan auen: “Ni oneikaz salbauta nagok, ze oneik erdi leloak dozak eta”.

Orduko interan, eleizeari emoten jakozan amarenak eta asikinak, bai nork beren soldatatik, bai labrantzako kosetxetatik, ganaduen ugaritasunak eta abar.

Abadeak zabaldu auen albiste oso inportante bat: lenbailen komenidu zala batzar bat egitea.

Batzar orretan esan eutsien urte orretatik aurrera, beren bedeinkaziño eta errezuen meritu bitartez, lograuko audela kosetxa doblea koxitea urtean; edo, obeto esanda, urtean kosetxa bi, bat bearrean, diferentzi txiker bategaz:

— Au da: urtea izango da, amabi ilabetekoa barik, ogeitalaukoa.

Au esan eutsien oso boz bean edo bajutxu, eta kokoak ez zirean konturatu.

Eta, falta barik, urrengo domekan erantzuna emoteko, konforme zirean edo ez.

Urrengo domekan etorri zirean danak, ordua baño lenago, pozez beterik, baiezkoa emoten, eta zelebretan auden jai andi bat, abadea esku ganetan altzaurik eta esanez:

— Gora abadea! Au bai dala Jaungoikoak bialduko aingerua!

Eta abar, sinistu ezinik eurak euki auden suer-tea, abade ori etorteagaz errira.

Geiagoko barik asi zirean abadeari erregaletan bai artxo, bai aume, bai ollasko, koneju, jenero eta abar, ze danak egozan abade onegaz zer egin ez ekiela.

Pasaurik iru bat ilabete, landare ta beste gauza batzuk jaio zirean lengo martxa ber-berean, da jentea apur bat susmu txarrean. Baia beste batzuek, egozan lez erdi itxuturik abadeagaz ez auden gauza txarrik pentsetan. Baia pasau zireanean zortzi ilabete, geiago ezin agoantaurik, joan zirean abadeagana komisiño bat, esaten:

— Gauzak lengo moduan doaz eta zuk engañau egin gaituzu.

Eta abadeak:

— Zuek artu dozue kontutan nik esan nendula urteak ogetalau ilabete eukiko dauzela, amabi bearrean?

Ta erria su ta gar, abadeari mina artaziagaz ebagi bear dautsiela ta.

Urte batean kosetxa bi zan
opatuko irabazi,
amabi ileko urtea barik
ogetalaukoan grazi;
amar bearrez oge kobretan
aurretik ziñan zu asi,
meritu dala guzurra eta
min labanaren artazi.

* * *

Geure txiki-denboran, aberatsen semeak baka-
rrik al izaten audezan lograu karrera-estudioak.
Edo albo aitxabitxiren batek abadetza pagau pobre-

ari. Zeberion be, beste erri batzuetako moduan, ori jazoten zan.

Ori zala-ta, zabaldu zirean Españan zear gazte-lagunarte bat, ori bai, danak aberatsen semeak, Salamankako unibertsidade, seminario eta abar, estudietan.

Batzuek karrerarik ezin lortuak; baia orreitatik iru titular edo karreradun egin zirean, estudioak amaiturik: bat beterinario, bestea mediku eta irugarrena abade.

Egun on baten akordau jakien bazkari on bategaz zelebrau bearra egoala euren suerte ori; eta, *bueno*, joan zirean Bilboko jatetxe señalatu batera, egoanik janaririk onena jatera.

Bazkalostean, berbaldi orretan, beterinarioak medikuari diñotso berak artu dauala profesiñorik txarrena, ze abere edo animaliak ez daudela esaten non daukien mina, eta igarritea oso gatxa dala.

Orretan diñotso medikuak:

— Baia erratu orduan be ez jagok istillurik.

Eta azkenez abadeak beste bieri:

— Zuen biona askoz ohea dok nirea baño.

Itandurik beste biak:

— Zegaitik, ba?

— Besteri sinistuazo bear dautselako neuk sinistu ezin dodana.

* * *

Urte orretan egoan aberats bat azpi-zapo malizioso bat eta sinesgogorra, baia eliztar buru egiten auena. Abadeari beti esaten eutsan, bera ilten zan orduan, eukazan ondasun guzti-guztiak eleizeari itxiko eutsazala.

Ori entzutean abadea pozik, ze aberats ak oso ondasun asko eukazalako, batez be baserrietan;

da, aberatsa zarra zan lez, abadeak beti esaten egoan:

— Kanu, zuk urte askotxu dauzkazu ta testamentua eginik euki bear zeunke, ze gero eztabaida asko egoten da familiagaz.

Kanuk:

— Bai zera! Nik ez daukat beste familiarik anajeak baño; ta balego be bardin da, ze ez noakie emoten ezertxu be ta. Nik daukadan guztia, zeuontzako da.

Alan geraturik, denporaldi bat oso adiskide alkarren artean. Baia, andik sei bat ilabete barru, Kanuto ori asi zan erdi gaixorik kili-kolo. Orduan ekarri eutsien notarioa testamentu ori egiteko, ta orrek esan eutsien:

— Mesedez, urten koartutik danok. Emen neu eta testiguak gara naikoa gaixoari pregunteak egiteko.

Asirik testamentu ori itanduz, notarioak:

— Urليا baserria ta beren ondasunak, arbola, baso, solo, eta fruta-arbolak, norentzako itxiten dozuz?

Kanutok:

— Danak elizearentzako.

Au esaten auen oso boz altuan, kanpoko abadeak entzun dagian, baia boz bean edo isil-isilik:

— Nire anajeak gura ez badaude.

Bardin ondasun guztiakaz; ta, *bueno*, testamentu ori zarraturik, il eta ilabetea pasau arte iñok ez zabalduteko kondeziñoan.

Kanuto geroago ta mekoago. Andik urtea baño lenago il zan, da abadeak egin eutsan entieru edo ileta bat iñori ez langoa: bai ataute elegante, bai dozen erdi abadeakaz iletako mezea, ta abar. Eta gero be egunero mezea beren izenean, arik-eta testamentua zabaldu arte.

Zabalduteko testamentu ori, deitu eutsien notarioak testigu ilaren anaje eta abadeari. Zabaldurik, leiduten asi an ifinten auena:

— “Ondasun guztiak eleizearentzako dira, nire anajeak gura ez badaude”. Zuek, Urlia ta Urlia, ilaren anajeak, gura dozuez anaje difuntuaren ondasunak?

— Bai, jauna. Zergaitik ez doguz gurako, ba, anaje maitearen ondasunak?

Abadeak, au entzutean, arritu zirean.

Errekak itxasora,
altsua dirura,
zintzoa onera ta
txarra engañura;
pentsamentu oberik
ez bada burura,
zure arima ezin
sartu da zerura.

Zuk mundukoak engañau dozuz,
zerukoak ez ain fasil,
ezin zeinteke zu sartu an ze
San Pedro dago aguazil;
Pedro Botero etxoten dozu
beren sarde eta makil,
labe orretan erre zaitez an
azur, mami ta tripezil.

Lontzo, Josepe eta Bernabe

BOST edo sei etxe egozan auzune baten bizi zirean Lontzo, Josepe ta Bernabe. Lontzo ta Josepe zirean zikutero edo lukurrero ezin andiagok; eta Bernabe basarte baten bizi zan, orreikgandik bastante urrin mendian, eta gorra, ezebe entzuten ez auena.

Lontzo ta Josepek eukezan orduan ogeitamabost bat urte, eta mutilzar zirean. Bernabe, barriz, orreik baño amar bat urte zaarragoa, ta iru seme-alaba eukazana andreagaz.

Beste auzoakaz be baeuken tratua, baia oneik irurok oso etxeko zirean. Batez be Lontzok eta Josepek zoroa lez erabilten auden Bernabe gixajoa.

Denporaldi aretan Bernabe ori ebilen erdi makalik, gana txarragaz, etxetik urtetan ez audela. Alan-go baten badoa Josepe Bilbora ta non topetan dauen Bernabe plazan makatzak saltzen; eta, txera andi bat eginik, esan eutsan apur bat urrinetik:

— Kaixo, Bernabe!

Bernabek:

— Makatzak, Josepe.

Josepek barriro:

— Etxetik sano zabizie?

Bernabek:

— Amalau txakur dozenea.

Josepek:

— Umeak eta danok?

Bernabek:

— Lenago erre kara bota, prezio orretan emon baño.

* * *

Beste egun eder baten, Bernabe ori egoan soloa goldatuten garia ereiteko, idi-buzterri eder bategaz. Bat zan baltza eta bestea gorrizkea. Erreparau eutsan gizon ezagun bateri datorrela beraganantza, eta beren artean egiten auen: “Ni gorra nazan ezkerro, ez dausat entzungo ezebe”.

Asi zan pentsetan: Orrek preguntauko daust zein idi dan onena, ta esango dausat: “Baltza ohea”. Gero preguntauko daust zeinbat gari-azi bearko dauan onek solo onek, ta esango dausat: “Anega bi t’erdi”. Gero, barriz, beste erria nun dagoan, eta esango dausat: “Ganez bestaldean”.

Orretan eldu zan gizon ori. Bernaberen ondora eldurik:

— Arrastion, gizon.

Bernabek:

— Baltza ohea.

Gizonak:

— Fetura bako orrek kaka egingo al dok!

Bernabek:

— Anega bi t’erdi.

Gizonak barriz oso asarraturik:

— Errementauko al dok!

Bernabek:

— Ganez bestaldean.

* * *

Lontzo zan andi-eretziko txantxazalea, ta apur bat koxoa.

Sasoi orretan egoan astronomo bat famadua, kalendarioak egiten auzena, denporaren igerle. Eta arako maiatz erdian, goiz argi ta egun eder baten, makila eskuan arturik, zapata mendigoizaleakaz, arkondara utsik, mendirantza txairo.

Lontzok eukan soloa bide ondoan, da andrea ta biak egozan berbaz, ta andreak esan eutsan Lontzori, astronomoa pasakeran:

— Ai ze egun ederra artoa ereiteko!

Lontzok:

— Ez, andrea. Gaur euri asko bota bear dau.

Entzunik astronomoak, barreari emon eutsan, eta segidu aurrera, beren artean esanez:

— Orrek, gixajo orrek, zer irakatsi bearko ete daust niri?

Bajoian mendia gora, ta mendian bestaldetik odei tontor asko bistan. Baia bera aurrera.

Apenas eldu zan tontorrera, joten dau odeiak eta tximistak, ta asi zan arria drinean botaten euriagaz naste. Eskubitorrak be anditurik, burua tapetan baltzak pasau auzen. Beren artean egiten auen:

— Au da lotsagarria niretzako: astronomoa izan da igerri ez denporeari. *Bueno*, ez daukat beste erremediorik eta banoa pregunte orreri, gizon orreri, zelan igerriten dautsan denporeari.

Badator eta *tan-tan* atea joten. Urtetan dau Lontzok barreka, eta esan eutsan:

— Nik jakin dot bustiko zareala.

Ta astronomo orrek lotsaturik esan eutsan:

— Gizon, mesedez esaidazu zelan edo nondik igerriten dautsazun denporeari.

Lontzok, barre-karkaxada bat eginik, diñotso:

— Ori oso fazila da, gizon. Ara: nik erosten dot astronomoaren kalendarioa, bai; ta, ak diñonean denpora ona dakarrela, eurite azkarria izango dala badakit.

* * *

Lontzo zikutero edo zekena zan lez, ainbat diruren jaube egin zan, eta beti ebilen dirua eukien neskeen bila. Alango baten, Josepe beren lagunak preparau eutsan ezkontzea, berak ezagututen auen neska dirudun bategaz.

Alan bearrez, neska orrek gura eutsan Joseperi, eta ez Lontzori. Baia Josepe ez zan kontuan jausi, eta geiagoko barik emon eutsien notizi ori Lontzoren gurasoeri, eta bai neskearen gurasoeri be.

Orduan, preparaurik batzar edo konpontziñoa neskaren erriko eleizpean, Lontzo ta beren gurasoak joan zirean goxetik, edo ifiniko ordua baño lenago, Lontzo apur bat koxoa zalako ta igerri ez dagian neskeak, eta galdu ezkontzea.

Andik ensegida etorri zirean neskea ta beren gurasoak, ta asi zirean berbaz ezkontzearen ganean, da *bueno*, konpondu be bai.

Señalatu daude mutilaren partetik bei-buztarri bat txalagaz, ganera labrantzako erremintak: gurdi, golde, tragas, area, laiak, eskuitilla eta abar, ganetik ogei mila erreal. Neskeak, etxeko arreo edo tresna al dauana. Orretan danak konforme.

Arreglu ori eginik, mobidu zirean tabernarantza, zeozer artzeko. Mobidurik, konturatu zan neskea Lontzo ori apur bat koxoa dala, ta amari esan:

— Ene, ama! Ori, mutil ori, koxo da ta!

Amak:

— Ago ixilik, neskato, ze koxo gitxi dauka ta diru asko.

Neska ori koloreak gorriturik eta lotsaturik, amak ori esan bearra danen aurrean.

Baia besteak prisaz lenbailen ezkontzea preparetan, kondeziñoagaz Josepe padrino edo ezkonlagun izateko.

Ezkondu zirean da lenengo gauba pasetan Bilboko fondara; ta janaria asko kostako dala ta txorizo batzuk morralean arturik, an jateko. Josepe eurakaz ta Lontzok esan eutsan andreari:

— Ara: gela edo kuartu bi asko pagau bear dira, bai, ta badakizu zer egingo dogun?

— Zer?

— Irurok kuartu baten lo egingo dogu, guk oian da Josepe sillan.

Andreak:

— Ondo dago.

Sartu zirean fonda orretara, neba-arrebak dirala esanik; ta atara morraletik txorizoak ta jan bako-txak txorizo erdi bana, ta besteak gorde Joseperen sillapean.

Lontzok egin auzenean ezkon bearrak, lo parau zen arrantza baten, da andreak ixilean Joseperi:

— Aprobetxaizu okasiñoa!

Eta Josepe leloteak artu morrala ta jan txorizoak.

* * *

Arik lasterrean agertu jakon Joseperi ezkondu-teko okasiñoa, beren erritik aparte edo bastante urrinean egoan baserriko etxaguntza batera.

Ezkondurik, ez zan etorri ia amar urtean, umea apur bat azi artean. Orduan esan eutsan andreari:

— Orain ez daukozu faltarik arregletako ta banoa Lontzori bisitatxu bat egiten. Igoal enaz etorriko bigar iluntzerartean, da badakizu: atea itxi trangeagaz.

Andreak:

— Bai, bai. Joan trankilo!

Lau orduko bidea egoan oiñez paraje orretara; ta eldu zanean Lontzoenera:

— Kaixo!

Ta, txera andi bat eginik alkarrri, Lontzok Joseperi:

— Goazan sutondora ta an kontauko doguz kontu guztiak.

Aurki bana arturik ezarri ta Josepek:

— Kantsaurik nago, ze basotik etorri naz ta. Ezpabe, autoa pagau bearke neunke milla erreal.

Orretan gauba ilundu zan, da Lontzoren andre-ak izitu argia eta diñotso Josepek Lontzori:

— *Ya que* aspaldian ez garean ikusi, zigarro bana erre bear dogu, bakotxak beren petakatik.

Lontzok:

— Ederto dago. Baia berba egiteko ez da bear argirik eta amatau daigun.

Amatau argi ori. Josepek, barriz, zaratak egiten auzen da diñotso Lontzok:

— Zer zarata darabilk?

— Zer ibiliko joat ba? Frakak kentzen, eperditik gastau ez daitezen berbaz gagozen artean.

Orretan, bat barri ta bi barri, gauerdia egin jaken; da, Lontzo loak botarik, andreak diñotso:

— Ala, zoaz zu zeure oiera!

Eta Joseperi:

— Neuk emongo dautzudaz zaku pare bat, kamanan lo egiteko.

Lontzo joan da enzegida lo, arrantza baten, da andre-ak diñotso Joseperi ixilean:

— Goazen barriz sutondora; ta, atepak itxirik, biok an egongo gara.

Suetean sarturik, diñotso:

— Nik Lontzo baño maiteago zaitut, Josepe.

Eta Josepek:

— Bai, baia ezkondurik gagoz ta orain berandu da.

— Ez dau ardura. Ezkon-bearrak egin daiguzan, ta ez dot besterik deseo zeure seme bat eukitea baño.

Bearrok eginik, preparau eutsan maskillu bete esne-arroz, ta Josepek jan be bai asko, baia oindo sobra parau jakon, da esan eutsan Lontzoren andreari:

— Au, sobrante au, baneuke biderdiko mendian jateko!...

— Ara: ez daukat non ifini, baia eutsi kordela ta amarrau egizuz bruseko mangak, ta ortxe eroango dozu, biderdian jateko.

Arik bederatzi ilabetera jaio zan Joseperen semea, ta andreak:

— Oraintxe naz konforme ilteko be.

Ta auxe kantau gizonari:

Gor gixajo ta astronomoa
ez dira engañau bakarrak,
zeure laguntzat euki dozunak
ifini dautzuz adarrak.
Lukurrero edo zekenak daukez
ostaien erantzun txarrak,
lur goseetan artoa erein
eta ak lograu matxarrak.

Mutil galanta

ONA orain emen mutil galant arro abusatzaile baten goraberak. Mutil galant ondo landu bat egin zan nobio neskatila etxagun eta dirudun bategaz, eta mutilak ez eukan, galantasunaz aparte besterik, erronka ta guzurra baño.

Ezkondu zirean da ak ez eukan ondasun geiago, tabernea ta bolalekua ta lotsa galduen aparte. Andra koitadua bear da bear, da gizona jan da edan joko eta errondan. Alan segidu auden bost edo sei urtean; da andra koitadua, dirurik erdiak gastaurik eta iru-lau ume txiker azi ezinik gogait eginda, joan zan abogadu batengana kontsulta bat egiten. Azaldu edo esplikaurik abogaduari asunto guztia, abogaduak esan eutsan:

— Ondo dago. Zu joan etxera, ta segidu betiko moduan bearrean, gizonari ezertxu be esan barik, ze neu jabetuko naz orren goraberakaz.

Abogadu ori joan zan orrein errira eta artu auzen informaziño guztiak. An esan eutsien:

— Orrek andra koitaduaren diruakaz ondamena ta lebreia darabil; ta, apur bat deskuidetan bada, etxaldeko ormak be zorpean itxiko dautsaz.

Informatuz, deiturik andreari, esan eutsan:

— Zuk egin bear dozu nik neuk esaten dautzudana, bizirik urten gura badozu. Bigar goizean

asita, topau neskame edo kriada bat umeak jagoteko eta jaten emoteko, dirua berari itxita egunean egunekoa. Joango zara gizona dagoan tabernara; ta, beren ondoan jarririk, eskatu tabernereari edabe, janari, kafe eta abar, zeuri geien gustetan jatzuna, eta artu bildur barik. Eguerdian, bazkaiten paretan danean be, bardin, bera baño nasaiago zagozela pentsau dagian, nai ta barrutik tripak jaten egon.

Eta andratxu orrek diñotso:

— Abogadu jauna, zelan demontre egingo dot nik ori, ia dirurik erdiak baño geiago gastau daustaz ta?

Abogaduak:

— Egizu neuk esaten dautzudan dana, ze ez jatzu damutuko ta.

Andra ori alantxe parau zan ondoan; da, gizonak bazkaiteko eskatuten baauen okela gisadua, andre-ak txuletea, da urrengo egunean bardin, esanez:

— Benga, benga! Emen atara jeneroa ugari, ze bion artean ondasunak arinago akabauko doguz.

Entzunik gizonak ori, apur bat mantsotu egin zan. Beren antzeko lagun lotsa galdu batek igerri egin eutsan, eta esan be bai:

— Mutil, oraintxe galdua az, gastu dobleak daukezak eta.

Urrengo egunean, gizonak andreari:

— Obeto izango da biak bake-bakean etxera joatea, ze onelan txarto goaz.

Andreak:

— A, bai? Gaurretik aurrera frakak neuk jantzi-ko dodaz!

Billarrealeko erdalduna

BEGINOLA, Araba-Billarreako erdaldun bat, euskerarik ez ekiena, etorri zan Orozko-Adaro deituten dan auzunera, orko senideak ikus-tera; eta, itzultzean etxerantza laño bera zarratu bategaz, galdu egin zan Gorbeiako basoan.

Norantza joian ez ekiela, eldu zan Zeanuriko Ipiñaburu auzunera, ta or topau auen baserritar sendo bat, soloa landuten idi-buztarri eder bategaz, erderarik ezertxu be ez ekiena.

Olan esanik itaundu eutsan arabarrak erderaz:

— *Buen hombre, ¿por favor me diría usted por dónde debo ir a Villarreal de Alava?*

Eta baserritarrak ulertu eutsan ea emongo eutsazan milla erreal eta alabea, erantzunez:

— Ez orixe! Ta, barriro esaten badok olangorik, eskuetako akullu onegaz berotuko aut!

Erdaldunak barriz:

— *¡Sí, hombre, sí! ¿Por dónde debo ir a Villarreal de Alava?*

Orretan baserritarrak, artu akullua eta burutik bera joten oratu eutsan.

Barriz arabarrak:

— *Pero, hombre, ¡escucha!*

Baserritarrak, pentsaurik diñotsola eskuakaz joteko:

— Bai! Eskuakaz be ire lango maketo peste bateri musturak apurtuteko kapaz nauk!

Eta jo...

Mariano Bilbao

SASOI aretan, Zeberioke auzune baten egoan tabernara, gau iluntze baten etorri zan oso itxura txarreko ostarari bat, bibote eta arpegi motz edo iluneko. Tabernara sarturik, esan auen:

— Paraje onetatik ez naue ni atarako goardazibileak be.

Segun itxura orrek ez auen esan intentziño txarraz, ezpabe kamiñoa urrin egoalako eta gaua zalako baño. Baia ain garratz esan auen, txartzat artu eutsen.

Ikaraturik etxeakoak, gizon da andra adore gitxi-ko bi, andrea joan zan auzora, esaten zer pasetan jakien, da laguntasunaren bila gauba pasetako.

Orduan auzoko mutilak egin auden batzarra, ta akordau zer edo zelan dozenerdi mutil, arriakaz preparaurik, egoteko etxe-barrenetan, intxaurpean; da beste mutil indartsuak ara eroateko ostarari ori, berak ostaru ohea emoteko atxakiagaz.

Preparaurik danak, badoa mutil indartsu ori tabernara; ta, txera on bat eginik, diñotso gizon itxura txarreko orreri berak daukala a baño ostaru askoz ohea, ta beragaz joateko.

Konformau zan gizon ori, ta badoaz beste mutilak preparaurik egozan lekura, ta diñotso:

— Abarkea amarrau bear dot eta segidu aurrera, ze ortxe urrean dago etxea ta.

Berak kontraseñako eztula eginik, arin atzeratu zan, arriren batek bera jo ez dagian, ze oso ilun egoan da.

Orduan besteak arrika drinean asirik, eroan auden arrikada utsean; eta, zelanbait alan korriduz kilometro pare bat, allegau zan etxe bakar batera, eta ango labaurrean pasau gau ori.

Urrengo goizean pasau zirean andik arrika eginiko auzuneko gizon batzuk, eta an topau auden gizon ori arrikazuz mandaiturik eta maldiziñoa, oindiño erropak bustirik eukazala. Ta esan eutsen orrek zer pasau jakon, nai ta besteak dana jakin:

— Nik gau bategaitik pasauko neuke puñal baten puntan be! Baia egunen baten orreri, mutil fuerte orreri, beren merezidua emongo dautsat!

Andi urte pare batera, non datorren gizon itxura txarreko ori barriro, eta mutil fuerte ori ezkonduarik egoan ordurako, ta asi zan pregunte. Ta batenbatek esan eutsan non bizi zan, da badoa atea joten. Urtenik andrea eta amaxeak, esaten deutse:

— Gizona non dago? Ze il egin bear dot!

Andra koitaduak bildurturik, lau gorrian goiko soloan egoan gizonari arin etxera etorteko. Baia gizon indartsu orrek, eukan lez beia txal egiteko denporetan, pentsaurik beia txalaginean dagoala, artez kortara, bai eta txalaginean azartau be.

Da orreik gobernetan denporea paseteak, bibotedunari gogait eginik etxoten, barriz be gaua egin bear jakon da martxateagaz, ortxe akabau zan istori ori bake-bakean.

Lapur famadu bi

ORAIN dala eun bat urte inguru, Bizkaiko lurraldean agertu zirean lapur famadu bi, ta akordau jakien biak batera eroatea lapurreta kontuak, kondeziño bat ifinita, esamiña baten bitartez aprobetan bazan.

Au da, abian dagoan birigarroari arraultza bat bakotxak kendutea, txoriak igerri barik, batak egun baten da besteak beste egunean. Biak ondo urtete-agaz, pozik plantau lapurretan.

Urte batzuen barruan ondo biziz aparte, diruak egin audezan. Baia eldu zan negu gogor bat. Batak besteari diñotso:

— Bigar gaubean ezin nintekek etorri, ze txarria il bear joat.

Erantzunik besteak:

— Ondo jagok.

Txarria il auenak, beren lagunak ostu ez dagion, gorde eutson labe barruan. Bestea joan zan bete-betean ostuten, da ezetatik ezin topaurik. Jakitun zan ume txikerra daukiela, ta joan andrearen belarri ondora ta, ume berbea eginik, amari:

— Ama, non dauka aitatxuk txarria gordeta?

Amak erantzun:

— Laban; alangoxe laban. Baia lo-lo egin.

Gizon orreri, lo dagola, akordau jakon: "Ori nire lapur laguna izan da".

Altzau oitik da badoa labara, ta txarria eroanik. Orduan pentsau joatea bestearen etxe ondora, bide ziorretik aurreratuta.

Andik lasterrean non datorkion lagun ori, txarria lepoan dauela, izerdi masan. Etxe ondoan pre-para-urik urkullu bat ori eskegiteko; da itxirik eskegita, doa andrearen ondora lo.

Bien bitartean, besteak topau txabolan asto aundi bat, eta ari kargau txarria ta ostera be etxera.

Urrengo gaubean, lapurretako zitara eldurik, alkarrerri:

— Zer? Au izan dok bigarren esamiñea?

Besteak:

— Bai orixe,

— Ea, ba, aurrera.

Gau orretan asi zan edurra botaten, da ordu bete barru loditu oso, ta akordau zaldi bat ostutea medikuari.

— Bai; ederto. Baia arrastuak?

— *Bueno*; zuk ostuten badozu zaldia, nik orreri ifiniko dautsedaz erradurak aldrebes, da ez gaituez koxiko.

Esan da egin. Etorri zan justizia. Baia pentsaurik aldrebes doazela, salbau zirean, atx zulo baten ostonduta edurra kendu arte; ta gerro barriz be segi.

Aldi orretan usu zan kontrabandoa, alboerrietatik edabe edo jenero pasetea prezio merkeagoan basoetatik, mando edo asto edo burdiz.

Orreik ondo ekiezan non edo nondik egozan pasabideak edo non egozan traturik onenak diruak korriduteko. Orduan Kastillatik Bilbora Urduñako basotik eta Arizkoberezi eta Gaztañebaltzetako bide ilunak señaladuak.

Kontrabandistak, ikusirik kentzen eutsiezala diruak danak, batzar bat egin auden foralakaz, batez be esanez agure zaar batek agintarieri:

— Ara: nire eretxiz, onena da, Bilbotik gatozenen, jeneroa eroan da diruakaz, foralak etortea burdian zakuakaz tapauta, lapurren altoari erantzuteko tiroka.

Ori bai zala suertea. Esaneko moduan jazo zan: tiroteo orretan lapur bat il da bestea eridu. Orduan bata enterrau ta bestea, osatu orduan, kartzelara betiko.

Gauza jakina dan moduan, kartzelako bizimodua oso gogorra zan. Orren medioz, urteak pasaurik, lapur ori aurkituten zan erdi itxuturik.

Jazo zan jauregi baten diru asko faltetan zan ezkeru, non edo nondik, ezin auden lapurrak koxi. Batari sorotsi, besteari be bai ta beti dirua falta.

Foralen agintariari akordau jakon joatea kartzelara lapur zarrari preguntez zelan izan leiteken, esanez beren esanetatik jausten bazan lapurra, libre izateko kondeziñoagaz.

Lapurrak erantzun:

— Konforme. Zoazie jauregira ta, leioak itxiz, egin sua egur berdeakaz, keia asko formau daiten; da gero urten kanpora ta begitu nongo zuloatik urtetten dauen keak.

Baita azartau be. Alan konturatu zirean zelan orman egoan arri mogikor bat edo kendu-ifinikoa. Orduan barriz kartzelara, esaten zer dagoan da zer egin bear dan.

Ta lapur zaarrak esan auen:

— Gaur gaubean, apal ostean, ormearen barru aldean ifini arri orren azpian tiniku bete orio irekiten, jausi daiten.

Jausi zan bat, baia besteak samea ebagirik eroan auen burua beragaz, iñok ezagutu ez dagien.

Esanik lapur zarrari zer pasau zan, erantzun
auen auxe:

Nork euki laike ogei urte ta
begietan ez lausorik,
orren moduan seigarren zentzun
guztiz itxar da osorik.
Justizi eta agintariak
ezin koxiaz austurik,
ori laguntza opezioan
uts ez eiteko pausorik.

Kiko tunantearen ipuiñak

ORAIN dala urte asko, bizi zan baserri baten pastore-mutil bat, Kiko Tunantea deritxona, indartsu eta tunantea.

Orduko interan trena zan gauza barri eta ikaragarrizkoena, ta ez zan besterik entzuten, ak eukazan indarrak eta aren milagruak baño.

Orduan, auzoko gizon batek esan eutsan Kikori:

— Kiko, gura dok etorri neugaz trena ikusten?

— Bai, eta pozik joan be.

Joanik trena ikusten, arik ordu erdi barru etorri jakien tren ori, beren makinea aurretik dauala, keia botaten, *fa-fa-fa, fa-fa-fa*.

Atzetik eukazan amar bagoi kateakaz amarraurik bata besteari; ta, suertez, atzenengo bagoian idi partida bat, andi eta lodiak, ilteko. Ta orduan diño Kikok:

— Eroango ez jok, ba, orrein idi guztion indarragaz?

* * *

Andik egun gitxira, gizon-koadrilla bat egoan Kikogaz berbaz, trenen indar da goraberak kontetan. Orretan etorri zan erriko abadea, Don Zipriano, ta diñotso Kikok:

— Don Zipriano, nora doa? Bilbora?

— Ez, Urduñara, zapata bortzegi batzuk egiten, ze negua jatok ensegida.

— Neuk be falta dodaz zapata bortzegiak.

— Ba gura badok etorri, laguna daukak.

Bajoiazan da estaziño ondoan tropezau abadeak beren lagun bat, ta aregaz berbaz parau.

Kiko iñoz trenean ibili bakoa, baia badoa takillara. Ta botaz urre zurizko ogerleko bat, diñotso ango gizonari:

— Emoidazu txartela joan-etorrikoa.

Gizonak itandu:

— Noraiño?

Kikok:

— Joan-etorrikoa.

Orduan besteak dirua erduten zan artiño emon da or konpon. Abadeak be artu berena ta pintxo trenerako.

Arik denpora gitxira etorri zan tren ori; ta, igo-nik, abadeak ezkerreko jarlekua artu, ta Kikok beste aldean.

Mobidurik trena, martxa apur bat artu orduan, Kiko fijetan zan trenbideko posteetara, ta arinean paşaurik, geroago ta arinago, eta asi zan konturatu barik maldeziñoak esaten, da Don Ziprianok, lepoan jorik:

— Kiko, infernura agoa i buruz aurre!

Kikok, atzera begiturik:

— Ez dau ardura, zer joan-etorriko txartela daukat.

* * *

Kikori ain asko gustau jakon trenean ibiltea, gero sarritan joaten zan Urduñara, ta ikasi auzen tranpa batzuk.

Egun otz azkarri baten, Kiko ori etorren Bilbotik Urduñararte trenean, da Ugaoko geltokian igon auden trenera andrazko bi, oso dotoreak, eta ezarri Kikoren ondoan, ze geiago ez egoan lekurik libre.

Kikok eukan bentanea guztiz zabalik, eta diño andra batek:

— Gizon, mesedez itxi egizu bentanea, ze otz dago ta.

Kikok:

— Bardin da.

Badoiaz aurrera, eta Laudion beste andreak:

— Mesedez itxizu bentanea, ze ni otzak gogortu bear nau.

Kikok:

— Bardin da.

Beste aldeko jarlekuan egoan goardazibil bat erritar jantzirik; eta, ikusirik Kikok eukan okerkeria, altzau eta badoia Kikogana, ta diñotso:

— Itxi egizu momentu onetan bentanea, kartzelara joan gura ez badozu.

Kikok:

— Bardin da, kristala oso apurturik dago ta.

* * *

Aldi aretan usetan zan, abadeak konfesiñoen kontrola eroatea. Pazkoa denporan emotea txartel batzuk. Ori eske joaten zan etxe bakoxtetik lagun bat, ta orduan preguntau dotrinea, ta ez ekienari ez eutson emoten.

Kiko pastorea joan zan bein baten, da abadeak:

— Aber, Kiko, zeinbat dotrina dakizun. Zeinbat Jaungoiko dagoz?

Kikok:

— Gure errian zazpi.

Abadeak:

— Nortzuk dira orreik, Jaungoikook?

Kikok:

— Bat, beori; bestea, fulano; bestea, bengano...

Ta abar, zazpirarte.

Abadeak:

— Ori ez da sustantzia, ta joan etxera ta dotri-
nea ikasi. Orduan etorri txarteletan.

Kikok:

— Niri etxoten badago, ezarrita etxon.

Abadeak, ikusirik Kiko geiago ez dala etorriko:

— *Bueno, bueno! Ya que etorri zaran, badakizu
Jesus zetarako etorri zan mundura?*

Kikok abadeari:

— Ez dakit. Baia badaki beorrek ardiak zeinbat
agin daukazan?

Abadeak:

— Ez dakit.

— Orduan biak barriz ikasten.

Urrengo egunean, abadeak:

— Badakizu Jesus zetarako etorri zan mundu-
ra?

Kikok:

— Ez dakit.

Eta Kikok abadeari:

— Badakizu ardiak zeinbat agin daukazan?

Abadeak:

— Zortzi.

Kikok:

— Goiko matraillan ala bekoan?

Abadeak:

— Ez dakit, baia artu izu txartel ori eta zoaz Jaungoikoagaz.

* * *

Kiko Tunante, izenak diñoan lez, gendun parrandista andi bat, eta gazte denporan diruagaz firri-farra ibilikoa. Alan da ere, gero ezkontuteko ez eukan dirurik bat be.

Ezkondu ta segiduan, bizimodua oso kanbiau jakon. Ezkondu zan labrantza txiker batera; ta, lur landu gitxi eukan lez, beartu zan solo barriak egi-ten. Orretarako artu auen Jose kriadu edo morroia, bien artean lur barri batzuk egiteko.

Baia paraje ori bastante arritsua zan, da arri askok urten eutsien. Arlo bat atxurtu orduan, ken-tzen audezan ango arriak sasi-baztarrera edo solotik kanpora, ta orretarako ifinten auen kriadu ori zesto bategaz, ta Kiko bera atzetik zestora arriak bota ta bota; ta arin joaten ez bazan, kriaduaren-tzako txarrago, ze geiago kargetan eutson.

Jose gizajoarentzako ain zan bizimodu gogorra, asarraturik, martxau auen erri beratana etxeginean egozan argin batzuekana bearrean.

Kiko ori fraketan estu kriadua martxauta, ta badoa arginen katapazagana, ta esan eutsan zelan estadu txarrean aurkituten zan, da kriadu ori atze-ra beragana bialdu dagiala.

Katapazak esan eutsan:

— Nasai, Kiko, ze emen laster kantsauko da.

Esan da egin: arriak eta morteroa arrimetan argneri kantsau, eta jatorduan jatekoa irikiten, da kriadu gizajoak ezin janik ta goseak ilik, egun bi edo iru barru ostera Kikogana, ta danak pozik.

Kikoenean be eldu zan jatordua; Jose gose; da indaba batzuen ostaien eukien urdai erre apur bat, eta Jose arto otza untetan zartaneko koipean alde bietatik, eta diñotso Kikok:

— Jose, artoa alde batetik bakarrik untau bear da.

Josek, ia koipea akabaurik be, segidu untetan, da barriz Kikok:

— Zartana bigarko be bearko da, Jose.

Bearragaz gogait eginik eta logurea kendu ezinik zan Joseren beste trabea. Goxean goxetik jagi bear, da kortako zer eginak, eta gero arlorra. Kikok:

— Ea, Jose: goxeko bostak dira ta altzau bearko dozu.

Ta Jose lo. Ostera be Kikok:

— Ea, Jose: goxeko bostak eta laurenak dira.

Ta Jose lo. Irugarrenean Kikok:

— Jose, zeu altzauko zara ala neu altzauko naz?

Josek:

— Ugazaba, altzau bear bada, altzauko naz. Baia oneik, gox jagi ok, niri zartzaroan agertuko jataz.

* * *

Ori dala-ta, etxea garbituteko inerra-kirtena kañaberazkoari ebagi ta ezpal bat atararik, an barruan sartzen auzen mandauliak, eta euki jan barik ia ilabetean, okerkeriak egiteko erromerietan neskateri.

Non erromeria ta ara joaten zan Kiko beren lagunakaz, eskuetan beren kañabera ori dauala, ta ez soltau iñori ezetan be. Sarritan lagunak esan be bai, ulea artzearrik:

— Botaik erre kara, Kiko, kañabera ori ta joan adi gizonen moduan.

Beste batek oratu ta kentzeko siñuak egin, da Kikok:

— Kañaberea daroanak, jornala be eroango dau.

Ikusirik asarratuten zala, lagunok ez eutsien egin geiago kasorik.

Baia suertatu zan domeka arrastai orretan Kiko joan zala beren lagun bategaz jantzea eske neska bieri; eta, asirik jantzan, neskak konturatu barik, zabaldu eutsien atakea gonapetan mandaulieri, sartu daitezcan neskatilen izter artean.

Deabruak arturik, mandauliak, eukien goseagaz, usigi txakur amurrutuen moduan neskatileri. Oneik lotsa parte orretan atzamurruka asten; da, ezin aguantaurik, mutilak bertan bera itxi ta eskapau; ta Kikok, ezer ez ekien moduan:

— Auxe dok baltza: plazearen erdian plantauta itxitea!

Jente guztia begira zer pasau ete zan; da Kikoren laguna joan zan aguazilagana zer pasau zan esaten, da kastigetako neskeri, usua zan moduan.

Baia suertatu zan Kikogaz egoan neskea izatea alkatearen alabea, ta aita alabeari gedarrez, eta alabea lotsaturik negarrez, jente aurrean ezin eutsalako esan aitari zer pasau zan.

Etxera joanik, amak begitu eutsan alabeari; eta, ikusirik usikadaz mailluskaurik, esan eutsan gizonari:

— Zelan edo alan topau bear da nor izan dan ori, lotsa galdu ori, gure alabea modu orretan lotsatu daualako!

Gizonak:

— Nondik asiko naz, ba?

Andreak:

— Nik daukat eretxia Kiko izan dala, ta emon bear jako eskarmentua.

Kikori abisaurik Erriko Etxera, ta aguazilak zurrau deklarau dagian, orrek eretxi txarra artu auen; da, etxera joaten itxi eutsien lez, apurtu ta erre kañabera ori, ta barria ifini aren lekuan.

Gero batenbatek apropostu errekadua Kikori alberriko osabea gaixotu dala, etxetik kendu daiten

guzurragaz. Orduan bildu aguazila kañaberea eske. Ekarri auden, baia alperrik: ez eutsien ezer topau eta Kiko libre.

* * *

Bein baten, Bizkaiko bazter baten bizi zirean senar-emazteak: Kiko Tunante eta Kontxe martxanderea. Kontxe astean bi bider joaten zan Bilboko plazara, merkatura, saltzean bai ollasko, bai arrautza, bai ortuari eta abar. Orduan ikasi auen erdera apur bat, eta Kikok be bai.

Urribigarren atzen antzean eukazan saltzeko gaztaña batzuk mentu gorri eta oso onak. Bezpera-gaubean Kikok, badaezpada, probau auzen, ondo badagoz jakiteko; ta Kikok:

— Espezialak dagoz.

Orduan propaganda egiten asi zan jenteak erosi dagizan, esanaz:

— *¡Castañas de mentu gorri! ¡No hay como la mía! ¡Anoche probar mi marido y buen gusto tenía!*

Entzunik ori aguazilak, kartzelara Kontxe, moralaren kontra berba egiteagaitik.

Gure Kiko, oso asarraturik, alkateagana, esaten Kontxe kartzelan dagoala ori esatearren, da ataraten joateko mesedez.

Alkateak agindurik, sekretarioa esaten ez dala izan intentziño txurragaz, ta zer esan gura izan dauan. Orduan libre Kontxe.

* * *

Une orretan bazan Bizkaian, leku askotan letxe Euskadin, erri bat ia iñok be erderarik ez ekiana. Erri orretan eukien eliza bat barria, eta ekarri bear zan santua. Santugileak erdaldunak zirean lez, ulertuteko bear zirean gizon batzuk erdera dakienak.

Alkateak eskojiduz, joan zirean sekretarioa, kontzejal bat eta Kiko Tunante, aginduten bai santuaren neurriak, zein santu —San Inazio—, nozko, prezioa zelan pagau eta abar.

Bueno, konformatu zirean da geiagoko barik, seiñalauko egun orretan etorteko diruagaz, ta santua batera ta dirua bestera.

Urtenik lantegi orretatik, autobusari etxoten egozan zigarro bat errez, ta bien bitartean diñotso langile edo santugile batek ugazabari:

— Orreik, euskaldun baserritarrok, erdi lerdoak dira, ta preguntau bear dautset ea santua bizirik ala ilda gura dauden.

— Preguntaiozu, gura badozu.

Ta deituz:

— Kiko, urratu apur bat!

Ta diñotso langileak:

— Santua zelan gura dozue: ilda ala bizirik?

Kikok:

— Bizirik, bizirik! Txarra bada, geuk ilgo dogu.

* * *

Antxineko denpora baten, Kiko Tunantearen errian ezin auzen iñok zorrak pagau. Beti zorpean da beti kontribuziñoa pagetan, osoan erreta egoan jente guztia, agintari batzuk izan ezik.

Kiko gurea, egun baten, iñok abixau barik, joan zan Erriko Etxera, enterau zanean batzarra egoala, ta bera bakar-bakarrrik asi zan berbaz, alkateak eta besteak entzun dagien, oso altu:

— Ni beti nagok esaten emen, gure errian, ez dago ala lapur utsak baño besterik, eta ekarteko erbestetik gizon patxadazko bat, nai ta diru asko kostau.

Alango baten, akabau zan alkatearen pazientzia, ta diñotso aguazilari:

— Sabino, oratu eta eroazu ori, lotsa galdu ori, kartzelara.

Eta Kikok:

— Au bera joango da, baia egi batzuk esan da gero.

Aguazil orrek eldurik eskutik, Kikok:

— Ken akit emetik, enbeleku ori!

Aguazilak orduan emon eutsan aztinaldi bat bergeagaz, ta barrura.

Batzar ori akabau zanean, altakeak esan eutsien besteeri:

— Ta zer egingo dogu Kikogaz?

Kikoren auzuneko kontzejalak:

— Ara: orren andreak, koitadeak, geurean egiten dau bear, ze neure andrea daukat makalik; eta, ori kartzelan badago, orreri jaten emoten da andi-orti-emetik ezingo da etorri gurera, ta orduan pagauko daude arreak: etxean dagozan orpo gorriak. Nire partez, ifiniko neukio kastigua domeka eguerdi arteko. Meza nagosiaren ostaien, jente guztiaren aurrean, parkaziñoa eskatutea zuri.

Beste danak, alkatea barru dala, ontzat artu auden, da alkateak aguazilari:

— Atara kartzelatik eta doiala etxera, eta esan ze kastigu daukan.

Kikori esan eutsanean aguazilak, oso konforme; ta, eldu zanean domekako meza ostaia, jente guztiari begituz, esan auen:

— Emen jente gitxi jagok. Geiago balego, asko be gurago neunkek. Alkate ta laguneri lapurrak deitu neutsela diñoek, eta guzurra dala. Alan da ze, zeurok zarie emeko juezak.

Orduan, erriko jente guztiak izugarriak esanik danari, eta alkate eta lagunak ez zirean atrebidu Kikori kastigetan.

* * *

Kikok eukan koñata bat zikutera edo zekena; eta Kiko eta semea, bata baño bestea triperero andiagoak.

Abuztuko Andra Mari zan ango auzuneko fiesta edo jaia, ta joan zirean aita-semeak konbidadu. Amak etxean emon eutsan kontsejua semeari:

— Ik an. izekoarenean, lotsatuko dozak baztar guztiak, ze ez dakik noz doan naiko jatea; ta aitak abixauko au naikoa doanean, ankea zapalduz.

Lenengo meza nagosira, ta gero tabernan zeozer edanagaz, kontu kontetan egon zirean berandurarte. Alango baten ezarri zirean bazkaiten, da biak goseak irrintzeka.

Jaten asi ta lasterrean, txakurrak zapaldu eutsan semeari ankea, ta segiduan mutilak jateari itxi, geiago ez dauala gura ta.

— Jan egik! Jan egik!

Eta:

— Ez. Nik naiko jan dot.

Gaubean izekoak esan eutsen:

— Eguerdian jan astuna izan da, bai, ta orain afari arinagoa ifini dautzuet, esne-arroza be bigar edo etzirako armarioan gordeta.

Ogera joanik, lasterrean, danak ixildu zireanean, semeak aitari:

— Aita, au da gosea daukadana!

Aitak:

— Zegaitik itxi dautsak ain arin eguerdian jatekoari?

Mutilak:

— Ba, zeuk zapaldu daustazulako ankea.

— Nik ez —aitak.

— Orduan txakurra izan da.

— *Bueno*, dana dala izekoak itxi jok armarioan esne-arroza, bai, ta ixil-ixilik joan da ekarri egik, emen jateko.

Badoa mutil ori, ta topetan asko tardau. Orduan, bien bitartean, aita loak artu. Geroagoan badator semea, ontzi ori eskuetan arturik; ta urratu zanean, aitak bota uzker ixileko bat. Ta semeak, putsa dala pentsaurik, diñotso:

— Aita, ez egiozu putzik egin, ze naikoa otz dago ta.

* * *

Nire gazte denporan ez egoan *funerariarik*; eta, pertsonaren bat ilten zanean, joaten zirean ataute-gilearengana luzari edo neurriak emonez, zer ataute-klase edo kategorikoa agindutzen, ze orduko interan be egoten zirean iru klaseko entierroak, eta zelango entierroa, ainbeste abadek egiten audezan ileta edo oraziñoak, eta prezioak be bai.

Gero, urrin ez baegoan ila, eroaten zan lagun bat edo biren artean ataute ori orren etxera, an sartzeko. Eta, urrinekoa bazan, etxoten eutsen autobusari errezeneko paradan edo geltokian, andik eroateko. Autobusak pakete eta karga aundiak eroaten audezan orduan ganean.

Iluntze baten suertatu zan gure Kikok atautea eroatea, ta igon da denpora gitxi barru tormenta ikaragarri bat formau zan; ta, arria botaten asirik, ez auen izan beste erremediorik atauta barruan sartzea baño, ze aren zarategaz bekoak ez eutsen entzuten ezebe ta.

Autobus ori geldiro-geldiro aurrera, ta urrengo paradan igon auen beste gizon batek; eta, barruan ez egoan lez lekurik, kobratzaileak esan eutsan:

— Gora joan bearko dozu, ze emen barruan ez daukat lekurik.

Gizon orrek esan eutsan:

— Ba, *bueno*: orduan gora joango naz.

Igonik gora, autobus ori aurrera, arik lasterrean.

Atautan egoan orrek, zaratarik ez entzutean, akordau jakon urten bearko dauala; ta, tapa ori altxaurik, ta ikusirik beste gizon ori ondoan, esan eutsan:

— Zer, lagun: atertu jok ala?

Beste orrek itxuen zigortadearen moduan entzueguz naaste, bota auen beren burua, ta azurrak apurtu, ila biztu zalakoan.

Bizia salbetako
atautara sartu,
tapea altxauz itaun
ete zan atertu.
Besteak entzutean
tamañazko sustu,
burua bota pentsauz
zala ila biztu.

* * *

1930 urte inguruan, Kiko aurkituten zan momentu txar baten: diru eskasia ta ume txiker eskimiliakaz, ta labradoreentzako urte oso agor edo euri gitxikoa.

Uzta edo kosetxa eskas egoan ezkerro, andreak esan eutsan Kikori:

— Zelanbait alan edo non edo non, topau egizu zeozer egun-sari umeak mantenietako. Gure etxean ez dago zeri eldurik gosea kentzeko ta umetxuak goseak irrintzeka daukadaz, azpira ondolik kendu ezinik errari eske, eta ez daukat arto-azalen izperrik be ume koitadueri emoteko.

Kikok andreari:

— Soloetan ez dago bear prisarik eta zeuk, Kon-txe, egizuz etxeko bearrak umeak jagonez, eta neu

joango naz Tomas basamortuko mutilzar kazariagana, goxaldean jagi eta erbiak koxitera, zer jan apur bat ekarteko.

Proponidurik mutilzarrari kondeziñoagaz berak goxalde guztietan deituteko, lo trankil egin dagian, mutilzar ori oso konforme.

Asirik kazan erbi bila, egun batzuetan igoal koxiten audezan erbi bi edo iru; ta orduan pozaren pozagaz, tabernara, jenteari erakustarrik, erronkaz beterik; eta, jan-edanean kafe, txokor, kopa eta abar, erbien balioa baño geiago gastau, eta Tomasek pagau bear beti.

Beste egun batzuetan ez auden koxiten baperez; eta tabernara bardin, kantsaurik eta goseak irrintzeka, bazkaiten; eta barriz be Tomasen kontura.

Jakina dan moduan, Tomas be asi zan aspertuten; eta, joanik ori betiko moduan, goxaldean atera edo bentanapera astegun buruzuri eta jai-egunetan jagirik, esan eutsan:

— Aiko, Kiko: autso ogerleko bat, joan adi Bilboko plazara eta eros egik erbi andi bat eta jan zeuok danok etxean, merkeago urtetan jatak eta.

Besten diruaz kontetea da
utsa edo biderdiko,
erratuetan andiagorik
iñoz ez dozu eukiko.
Alboan dana ez eizu pentsau
iñoخته danik Kiko,
Tomas maitea aspertu dozu
sekula eta betiko.

* * *

Aldi orretan Kikoren errian egoan abade oso formal, edo ontzat eukiena beintzat, eta tratu andia eukan jente guztiagaz, batez be gaztediagaz.

Aldi orretan usua zan, batenbat ezkon duten zanean, ejerzizio edo kontseju batzuk abadeak emotea, umeak zelan euki bear direan eta abar Jaungoikoaren legean.

Kikoren alaba ori ain zan oso-osokoa, pentsetan auen ezkon-bearrak be abadeak irakatsi bear eutsezala lenengoz; eta, gorputza opaturik, abadea be, gizon zan lez, jausi zan tentaziñoan, albertiduz neskeari alangorik iñori ez esateko.

Baia neskeak kontau eutsen ait-amari abadeagaz zer egin dauan. Orduan Kikok, su ta gar, andreari kiñu eginik, esan eutsan alabeari:

— Jaungoikoarren, ez eiona nobioari ezer esan; da entzun zer esaten doadan: gaubean egiten donan txixa oriñalera, gordeina botella baten da neuri emon goxean.

Andreak Kikori:

— Zer egiten zoaz, ba?

Kikok:

— Abade faltso orreri edanazo, ze alabearen grazia probau dau beren gizonak baño lenago.

Alan usetan zan lez auzune orretan batenbat ezkon duten zanean, badoa Kiko barauskarria emoten auzo guztieri: bai galleta, bai bizkotxo, bai paitar, batez be abadearentzako botella apartekoagaz. *Dan-dan* atea jorik, abadearen kriadak:

— Nor da?

Kikok:

— Neu, Kiko.

— Pasau, pasau barruraino!

Egun onak emonik:

— Ea, Don Zipriano, beitzo barauskarria paitarraz.

Abadeak, arturik bizkotxo pare bat, diñotso Kikori:

— Zorionak eta urte askotarako! Atsegin izan daitezan, artu bear dot paitar apur bat.

Kikok, kortxoa kendurik botelleari, bete kopea ta emon abadeari.

Ain kolore ona eukan edabe orrek, abadeak lenengo traguan utsiritu kopea; ta, arpegi garratza ifiniz, esan eutsan Kikori:

— Ez dot gura geiago, ze oso gustu txarra dauka.

Kikok:

— Artu ta edan, bai, geiago, gizona, ze atzo berorrek espitxauko barrikakoa da ta!

Okerkerien parrik ez iñok
ez etxean da ez kanpoan,
ezin jakin lai zer tranpa daukan
tunante batek kolkoan;
aurrekoari barre ta burle
leloak diralakoan,
alabeagaz bota dautzue
pultsu ederra gaurkoan.

* * *

1936-an, anaje arteko gerra negargarriaren bidez, Francoren soldaduak Bilbo artu orduan, beste eusko gudari askoren moduan, gure Kiko oso biotz-beraturik aurkitu zan, gerrea galdu audelako.

Orduan akordau jakon, orrein azpian bizi baño len, obeto izango zala erbeste edo beintzat Frantzira ospa egitea. Orretarako, koba baten ostondu zan ejerzitu ori pasau arte; eta gero, gauaz bidatuz, basorik baso joan muga orretara, amabost egun tardauagaz aziñõ orretan.

Burla eginik Españako guardizibileri narras joanik, eldu zan frantzesen jendarmeetara, esanaz Francoren azpian bizi baño len gurago auela eura-kaz egon atzerrian.

Jendarmeen agintariak diñotso:

— *Bueno*, jateko edo janariagaz ez gabiltza ugari, baia emongo dautzugu bi platerkada arroz eta ogei franko dirutan, bearren bat topau arte.

Kikok erantzun eutsen:

— Lenengoagaz konforme naz, baia besteagaz ezelan be ez.

Jendarmeak erantzun:

— Zegaitik ez?

Kikok:

— Zelan arraiio artuko dodaz ogei franko iñoren-gandik, iges egiten nator eta?

* * *

Soldaduskara joatean, lagun egin zan Orozkoko Txomin deritxon mutil bategaz; eta lizentziaturik, andik etorkeran, konbite emon eutsan orreri, etor daiten beren etxera, familia ezagutu eta bazkari eder bat egiten. *Bueno*, etorri zan eta, ondo pasaurik, Txominek bardin.

Alan Kiko be, joan zan Orozkora; ta, eldu zanean portalean, aupada bat egin. Baia iñok ez eutsan erantzuten, da goien sentiduten zan berbal-otsa. Igonik eskilaratik sarrerako atera, gizon bat egoan suetea esaten:

— Gora datorrenik bera ez doa!

Orduan Kiko, oso bildurturik, jeitxi zan barriz portalera, eta justo etorri Txomin solotik saran bete bedarregaz, ta diñotso:

— Pentsaurik etxean agola, salako ateraño igon joat, eta an entzun gizon bat esaten: “Emen gora datorrenik bera ez doa”.

Txominek:

— Aiko, parkatu egik! Ez noan ezer esan, baia anajea iñuzente bat jaukoat eta ori izango zoan. Etorri adi neugaz gora!

Ta an egoan gizajoa goseagaz, sueteko lapikoan egozan indabak irikiten borborrean, ta gora igoten audenak kollareagaz koxi eta jaten.

* * *

Kiko Tunantek, ezkondu zanetik laster, enterradore artu auen ofizioa labradorez aparte, ta batez be ortu santuko bearrak egiten audezan gau-iluntzetan.

Ori dala-ta, beren errian il zan gizon bat; da urrengo goizean lurra emoteko zuloginean prisaz, gaua ilundu baño len akabatearren zulo ori.

Ori konturatu barik, bien bitartean, kanposantuararen ondoan bizi zan neskazar iñuzente bat sartu zan, orko atea zabalik ikustean, Kikok ez dakiela, kapillara.

Erriak eukiten auen ataute bat, badaezpada, ixtripuren baten ilten bazan iñor. Beste preanbulu barik, iñuzente orren burutasuna ez zan besterik, bera ilten zanean balioko ete auen ataute orrek.

Eta Kikok, erdi zulatuan, lur gogorra topaurik, atxurra itxi eta joan zan kapillan eukan pikatxoia artutera, zulo ori akabetako.

Justo momentu orretan, tapea altzaurik, urtetean neskazar ori atautetik. Kiko oso bildurtu eta urten korrika kanposantutik, Santi Motz apur bat aurrerago topau arte, esanez orrek:

— Nora agoa ainbeste prisagaz?

Kikok esplikaurik zer pasau jakon eta non urteten dauan iñuzente orrek kanpora.

* * *

Barriz be ortu santuan. Suertatu zan auzoko mutil gazte bat iltea kotxean azidenteagaz. Nai ta orduan ez eukan neskazarraren bildurrik, prisaz ibilteak ekarri eutsazan sustu bildurgarriak.

Itxuraz, Kikok zuloa egiteko kebrante-atxurra oso indartsu jotean, suertatu zan belaunetik garrira doian azurrea atxurreagaz fuerte jotea; eta, azpian arri gogorren bat egotean, orrek txiribilaren moduan brinko egitea justu-justuan, eta bai eridu be, odola dariola ifinirik, otoz-otoan konturatu ez egiten nok edo zerk jo dautsan modu orretan.

Ortu santu ondoan bizi zan lez, estualdi orretan etxera joan zan; eta emazteak, ikusi auenean, guztiz ikaraturik itandu eutsan:

— Zer pasau jatzu, gizontxua?

Kikok erantzunez:

— Neuk be ez dakit, andratxua.

Andreak garbitu eutsan erida edo zauri ori, eta be bai kurau edo osatu. Eta, barriz biak joanik zuloa egiten ebilen lekura, kontutan jausi zirean zer pasau jakon.

* * *

Aldi orretan agertu zirean lenengo aldiz gure errialdean Jehobaren testiguak edo beste erlijioako edo kongregaziñokoak; eta Tunante bizi zan etxe bakarrean kamiño baztar baten.

Orduan orreik ateko kisketa jo eutsien Tunanteri, nortzuk zirean esan barik.

Tunantek ez eutsen erantzun edo kasurik egin, eskeko edo ate-jotzaile asko joaten zan ezkeroko egunik geienetan, eta asperturik egoalako atea zabaldu eta limosna emoten etorten zirean guztieri, esanez beren artean:

— Jo, jo atepak, gura badozue, ez dautzuedaz zabalduko ta.

Baia Jehobaren testiguak barriz beren atea joten, eta Tunantek erantzun:

— Zer arraiño bear dozue ainbeste ate joteagaz?

— Itandu gura deutzugu ea izan gura dozun Jehobaren testigu.

Au izan zan Tunanteren erantzuna:

— Zoaze nire begien bistatik, ze nik ez dot ikusi azidenterik eta!

* * *

Bein baten, asi zirean agertuten turistak atzerri-tik gureganantza, Españako diruak eukalako balio gitxiago, bai Ipar-Amerikatik edo europarrak, diru-trukean bentaja andia eukielako. Eta beren antzeko mutilzar aberats tunante batek esan eutsan gure Kikori:

— Españako ego-aldera, eta batez be Benidorm-
era, etorten dira atzerrietan dagozen emakumerik
ederrenak emeko gizon-gura.

Eta Kiko, oso andrazalea zan ezkerro, ez dago zer
esanik orretan prest egoala.

Kiko ori, suerte txar baten bitartez, zaldi on
baten faltan aurkituten zan, berak len eukana tra-
gau jakolako orain dala ilabete inguru gaizo gogor
bategaz, eta lagun mutilzar orrek esan eutsan
Balentzi aldean egozala Kikok bear auen lango zaldi
onak, eta merke.

Geiago pentsau barik, Peruk preparau auen bia-
jea, beren auto zarra edo bigarren eskukoa arturik;
eta, pasakeran Madrillen Leganés deituten dan
errian dagoan zoro-etxearen ondotik, auto ori abe-
riau jakon. Eta an ebilen batetik begitu eta bestetik
be bai, eta ezin konpondurik, buruz-belarri.

Arik lasterrean urratu jakon zoro-etxe orretako
gizon itxura txarreko bat, itanduz zer pasetan
jakon.

Kikok erantzun eutsan autoaren gurpil edo txi-
rrinkako tornilloak apurtu jakozela, eta ezin dauala
bidatu, garajerik ez dagoalako.

Orduan zoro orrek diñotso:

— Kendu egiozu beste gurpil bakotxari bana; eta alan, bakotxak irugaz, joango zara garaje ori topau arte.

Tunante asi zan pentsetan, eta konturatu be zoroak arrazoia daukala; eta, oso arriturik, esan eutsan:

— Zelan demontre zagoz zu zoro-etxean, ainbeste jakinda?

Zoroak erantzun:

— Emen zoroak gagoz, baia ez lerroak.

* * *

Anaje arteko gerra ostean, 1940-an eta 1941-ean, jakina dan moduan, bagendun gauza askoren eskasia, eta bai autoaren gomazko txirrinkak be. Eta ixileko salmenta edo estraperloa bazan ugari.

Garai orretan, transporte edo garraio bidezko kargau-utsituteko, beargin asi zirean Bilbon Kiko Tunante eta Santi Motz. Au zan errebistetako kariaturak baño motzago. Bata parrandista andia bazan, bestea ez zan txikiagoa. Beti biak diru-gosez.

Egun on baten, ugazabak bialdu auzen eroaten lau txirrinka beren lagun bateri ixilean; eta zer egi-ten daude tunante biok? Saldu beste estraperlista bateri; eta, kobrauz momentuan, non doiazan putetxe edo bide galduetatik orreikaz parrandan ibilirik, gastau diru guztiak, zortzi egun barru.

Orduan argudiau bear zan guzurren bat, eta pentsau auden ugazabari ziria edo zotza sartuteko joatea bear-lekura, buruko ulea ebagirik *al rape* edo zeroan.

Orrek ikusirik modu orretan beren bearginak, oso larriturik, gitxienez pentsatu auen poliziak salatu auezala eta galdua zala, esanez:

— Esaidazue zer demontre pasau dan momentu onetan, atakeren batek artu ez nagian.

Kikok:

— Trankil, ugazaba, ze geu geratu gara errudun.

Orrek esker onez emon be bai beste bost milla pezeta, egin dautsien mesedeagaitik.

* * *

1941-etik 1942-ra bitartean, golfo-bikotea soldadu dagozala adiskidantza andian kapitan erren-gantxadu zar bategaz, Akademiatik etorriko tenienteagaz eztabaidan ibiltzen zirean, esanez orreik, estudianteak, askoz listoagoak direala soldaduak baño, eta kapitanak aldrebes.

Desakordio orretan postura eginik, ifini eutsien bazkaiteko lebatz prijidua gura dana, klausula edo kondiziño bategaz: jan bear audela besorik okertu barik.

Lenengo jarri zirean estudiante jakitun bi, sarde edo tenedor kurbatuak arturik. Baia alan da guztiz be porrot egin auden.

Gero, segiduan, kapitanak deitu eutsen Kiko Tunante eta Santi Motzeri, esanik zer kondiziño dagoan; da orreik, egozan lez gosez irrintzeka, laster ideatu auden zelan jan al leikean eskurik okertu barik: aurrez-aurre ezarriz lebatz zati ori, sardea sartu eta jaten emonez aurrekoari.

Jitanuak

JITANU tabakorri erretzaile bateri akabau jakon tabakorra; eta, bidean doiala, ikusi auen etxe baten ate ganean bandera gorri eta belle-gia. Sartu zan barrura eta, dirua opaturik, esan eutson an egoan gizonari:

— Mesedez, kajetilla bat tabakorri.

Barruan egoana ez zan estankerua, guardazibila baño, ta erantzun eutsan:

— Au ez da estankoa, goardazibilen koartela baño.

Jitanuak:

— Zelan ez dozue ifinten atean señale bat jakiteko?

Goardazibilak:

— Zer gurozu, ba? Atean eskegita ifintea goardazibil batzuk, jakin dagizun estankoa ez dala?

Jitanuak:

— Ba bai.

Goardazibilak barrez:

— Ez dakizu kiretsa botako leukela?

Jitanuak

— Kiretsik ez botateko, eskegizu egunean bat.

* * *

Egunik geienetan joaten zan jitanu peskalari bat erreka ondoan egoten zirean ollotegien ondora peskan; da, oso formala ta ezaguna zan lez, iñok, txikerrenean be, ez auen pentsetan olloak kañabera ta artagarauakaz koxi bear auzenik.

Amua edo antzuelua botaten auen ollotegira, erre kara bearrean, artagaraua jaki ifinita. Olloak karraka ori jaten; ta, iñor bistan egoten ez bazan, samea biurtu eta zestillara.

Orduko interan ollo lapur asko egoan lez, iñok aintzakotzat be ez eukan jitanuaren eretxirik edo susmurrik. Olan pasau zan denpora aldi bat.

Alango baten, beren adiskide andi bat, oso indartsua, euri lanbroa zana lez, arrimau zan beren ondora ta preguntau eutsan:

— Zer? Arrain asko koxi dok?

Jitanuak:

— Ez da ezer be.

Indartsuak:

— Ea, erakutsi egik zestilla ori.

Besteak, ezetatik be ez. Baia indartsu orrek, kendu zestillea eta zabaldu tapea, ta barruan eukazan ollo bi, samea biurturik, etxera eroan da jateko.

Pertsonak baia diferenteak
jitanu eta paioak,
bata bestea ikus ezinik
ifin diru arraioak.
Bilos-bilosik mundu onetan
garan ezkerro jaiok,
ez dago zetan alkarri itxi
ateak eta leioak.

* * *

Egun sargori edo aixe bero bategaz, jitana bi euren umeak besartean daukiezela, joiazan erri

batetik bestera, baia bastante urrinera. Kantsaurik egozan lez, batek diñotso besteari:

— Lenengo datorren autoari altoa bota bear deusagu, ze olan ezin geinkez eldu araiño.

Andik bost minutu barru, non datorren kotxe elegante bat beste erriko alkateagaz, ta parau zan, ea zer pasetan zan.

Jitanak, ikusirik nor zan, asi zirean parkeske. Baia gizon orrek esan eutsien:

— Zer gura izan dozue, ba?

— Beste errira joan.

— Ba orduan koplari itxi ta igon.

Igonik, alkate ori asi jakien preguntez zer errazatakoak zirean.

Jitanak, ba:

— Makarena.

Alkateak:

— Orduan maldeziño bat bota bear deustazue.

Jitanak ezetz eta bestea baietz, eta batek diñotso:

— Alkate jauna, jokatuten al dau loterian?

— Bai, andrea. Asko.

Eta orduan jitanak:

— Permitidu dagizula Jainko Jaunak jokatu numeroan amargarren partea, tokau dagizula amabost milloi, zazpi kalderillan, amarraurik samatik paseatu zaiezala Sebillan.

* * *

Jakina dan moduan, jitanuak beti dabiz munduz erratu edo paramen edo leku fijo bat barik. Orduan naziño edo erri bañotxak daukaz beren legeak, eta batzuek ez dautsie kasurik egiten, nai ta amabost egun egin an, nai ilabete egin, andik urten barik.

Baia beste batzuetan inguruko jentea kexetan jakozan alkateari: baten, ostu egin audela; bestean, egoten zirean inguru guztiak kiresturik itxiten audezala, eta abar.

Au sarritan ez da egia. Ezdakit iñor fijau bazarie; baia jitanuak, bera dagon lekutik urrean ez dau ostuten.

Kustiñoa izan zan, paraje aretako auzoak kexau zirean lez, eta alkateak apur bat gogor arturik aguazilla bialduz, atara auzen erri aretatik astebete edo amabost bat egun pasaurik, asarratu ez daitez zan ainbestean.

Alperrik. Ain zan amurru andia jitanuak eukiena, asmau eutsien erri orreri *Santa Maria* barria, esanez:

Santa Maria, Jaungoikoaren Ama,
erregutu egizu gugaitik,
Billaroko Aiuntamentu zerriak
errementatuko al dau amazazpi milla lekutatik.

* * *

Arako egun zelebren baten, beste batzuetako moduan, baserritar batzuk egozan tabernan musaldi bat botaten.

Ondoan begira, eurokaz konfiantza andiko jitanu bat, euskalduna. Arik ensegida etorri zirean beste ondo jantziko mutil gazte bi. Paraurik ondoan, ezin entendidu ezer. Orreri preguntau eutsien ulertuten badau, eta onek baietz:

— Ogiari, *pan*; ardaoari, *vino*...

Eta abar eta abar.

Baia orretariko batek diñotso jitanuari:

— Eta zelan deituten joko ama puta semeari?

Jitanuak:

—Ez dau falta egiten deituteak, ze eurak etorten dira.

* * *

Jitanu gazte bat egoan enamoraurik beste moltsu bateko jitana gazte bategaz, baia jitaneak bera-ri ez eutson gura. Apur bat beraganduteko, konbidau auen pastelak jaten, eta gastau auzen diru zorroan eukazan diruak danak. Baia oindo neska ori eskapari.

Engañetako diru geiago bear, eta akordau jakon bideondo baten, garita edo txabola baten, bera barruan dala, ifintea errotulu bat, Santo Kristo bat ganean dauala, esaten: “Emen pezeta bat botaten dauanari, bi emoten jakoz”.

Justu-justu andik etozan alboko errirantza galdaile konpontzaile bat eta zorroztaile bat, euren erreminta kaxak lepoan dakardiezala; eta, ikusirik erretolu ori, diñotso galdaile konpontzaileak besteari:

— Begitu egik emen zer ifinten joan. Probauko joguk?

— Ba, bueno.

Geiago barik, galdaile konpontzaileak bajaturik kajea lurrera, atara boltsako diru zorrotik eta botaten dau pezetea; eta, *tanba!*, ensegida pezeta bi. Eta olan dozen erdi bider.

Lagun ori egoan zorrozttuteko gurpila lepoan dauala, eta diñotso:

— Bota egiok daukoan diru dana, ta alan arinago akabauko dok!

Botarik diru zorroan eukan dana, ez eutson bueltetan bat be. Orduan gizon ori, larriturik, esan eutson:

— Ba, ze, besterik ez bada, biajerako pezeta bat autobusa pagetako.



Lino Ayesta Uriondon.

Baia alperrik. An ez egoan ez erantzunik, ez dirurik. Eta, gurutzeari begituz, esan eutsen:

— Onango zeozer egiteagaitik egongo az or gurutzean josirik!

Okelan sostengarri
dagon lez azurre,
jitanuen mantenu
eskabide zurre;
bear ez egitea
oitura laburre,
agaitik artuten dau
sarriten egurre.

* * *

Aberats batek erreka baztar baten eukan solo andi bat, eta an koxiten auen jenero asko: ortuari, fruta, ta abar. Baia ostu egiten eutsien asko, ta orregaitik ifini auen goarda edo jagole bat, karabina ta guzti, eta alan be bardin ostu.

Ikusirik alan ta guzti be ostuten audela, beste goarda bat be ifini auen, karabina ta guzti, ta dana alperrik. Orduan ugazaba orrek deitu eutsen bieri ta esan:

— Asko sentiduten dot, baia nire ondasunak jagoteko ez zarie gauz eta despatxatu bear zaituet.

Arik urrengo, ifini auzen beste jagole bi, goardazibilak izanikoak, eta esan eutsen:

— *Bueno*, soldatea ona izango da; baia badakizue zer pasetan dan, eta begiak zur!

Eta goardak:

— Bai, jauna. Ardura barik egon, ze emen inok ez dau ezertxu ostuko.

A zan sorpresea: barriz ostuten segiduten aude-lako. Ugazaba orrek oso su ta gar deitu eutsen jago-leori, da esan:

— Zortzi eguneko plazoa daukozue lapurrak kuintako; ezpabe, biok sobra zagozie!

Jagoleok laugarrien lotsaturik egozan; da, andik egun bira, jagole bat joan zan erropa denda batera zeozer erosten; da, dendaria ezaguna zan lez, asi zirean berbaz erroparen kolorearen ganean, da denderoak esan eutson jagoleari:

— Ara: ez dago erropa kolore txarrekorik, ze begitu izu: orain dala ilabete inguru, jitanu bik erosi audezan oialezko traje bi berdeak, txotiño ta guzti.

Jagole orrek dendariari ezer ez eutson esan, baia beren artean pentsatu auen: “Oneixek dozak gure lapurrak!”.

Arin joanik etxera, deitu eutson goarda lagunari, eta esan:

— Au ta au esan daustek dendariak, eta segurutik orreixek dozak emeko lapurrak.

Ta besteak erantzun:

— Zer egingo juk ba?

Onek esan eutson:

— Joadi ugazabagana, ta esaiok ea itxiten bajoskuk malluki artean pasillu batzuk garbituten, pasakeran lapurrak ikusteko.

Ugazabak:

— Bai, bai. Zeurok gura dozuena, lapurrak kuie-teagaitik.

Garbiturik pasillu ori, esan da egin, koxi auden jitanu bat, mallukiakaz morrala beterik dauala. Ain zan gorroto andia jagoleak eukiena, pentsau auden, ugazabari ezer esan baño lenago, karabina puntagaz banan-banan eperditik sartzea mallukiak. Iru-lau ostikada emonik, esan eutsien:

— *Benga!* Bajatu frakok eta makurtu!

Eta asirik bear leku orretan, jitanuari barreak emon eutsan, da barriz urten mallukiak. Ta besteok asarraturik:

— Zegaitik egiten dok barre?

Jitanuak:

— Nire laguna or datorrelako madariakaz!

* * *

Denpora baten, etorten zan jitanu bat eskean. Abadeak emonik limosna ona, onen lagun egin zan, pentsaurik beti alan emon bearke eutsala; da, asirik berbaz, abadeak esan eutsan:

— Errosarioa errezetan noa elizara, ta etorri gura badozu lagun egiten,,,

Jitanuak:

— Ori zer da, ba?

Abadeak:

— Zer izango da, ba? Jaungoikoa adoraui eta beragaz berba egitea.

Jitanuak:

— Ta orrek zer emoten dau truke?

— Ba auxe da Jesusen esana: “Eskatu egizue nire izenean da dana emongo jatzue”.

Jitanuak:

— *Bueno, bueno*, ea entendiduten bagera. Baia len esan dozu Jaungoikoa, ta oin Jesus. Zeinbat anaje dira orreik, ba?

Abadeak:

— Orreik ez dira anajeak; baia Aita, Jaungoikoa; Semea, Jaungoikoa, Jesus; eta irugarren, Espiritu Santua, Jaungoikoa. Iru pertsona, baia Jaungoiko bakar bat.

Jitanuarentzako ulertu ezina. Berak egiten auen:

— Orreikgana, gizonokgana joateko, ortozik nago ta zapatilla batzuk erosi bearko dodaz.

Joanik dendara, eskatu auzen zapatilla batzuk, eta atara eutsiezan ensegida. Ta, bat, anka ezkerrekoa, probaurik, diñotso jitanuak dendariari:

— Zeinbat balio daude oneik, zapatillak?

Denderoa adar-jole edo txantxa-zalea zan lez, esan eutsan:

— Oneik, bat pagetan badozu, ogei ogerleko; bestea debalde.

Jitanuak artu beste pare bat; eta, anka eskoian amarraurik, diñotso:

— Ta oneik?

Denderoak:

— Ba bardin.

Jitanuak, debaldeko biak jantzirik, arranketan dau karraka, ta denderoa deika atzetik aurreko gizoneri orreri oratuteko.

Batek esaten eutson:

— Geldi! Geldi!

Ta jitanuak:

— Aparta, posturea da ta!

Èskapaurik jitanoa, urrengo egunean badoa abadea mezara, ta jitanua atzetik ixil-ixilik. Sartzen da elizara abadearen atzetik; eta, ikusi orduan altaran ainbeste santu, pentsau auen, ba, ze danak Jaungoikoak direala, eta danari errezau orduko abadeak ikusiko dauela, ta esan auen beren artean:

— Oneri danori errezetan asten banok, galduta nagok; eta koxiten dauenak koxi dagiala, abe maria eta salbe, eta ospa, ze au ez da nik pentsau dodana.

* * *

Baserri etxe bakar baten, gauzak eroan-ekarriteko asto bat falta auden; da, *bueno*, egun baten badoa gure Paulo Basortuko ferira, ta asto askoren artean artu auen bat itxura onekoa ta bizkorra, itxuran bai beintzat.

Badakar etxera ta Katalin andrea pozik asto barri orregaz, esneak eroan da dendatik gauzak ekarteko.

Urrengo goizean, asto ori preparau eta badoa Katalin esneak eroaten; da asto ori muker ta pauso laburragaz. Batetik jo ta bestetik jo egin auen buelta ori; ta, etxera eldurik, esan eutson gizonari:

— Paulo, au asto au gaixorik dago, ze atzoko aldean burua makur ta pauso laburra dauka.

Paulok:

— Bigar neuk eroango dot eta ikusiko dozu zelan espabilauko dan.

Urrengo egunean, badoa Paulo asto orregaz, baia pauso txarrago ta jo ta jo. Alango baten allegau zan esneakaz errira; da, etxerantza zaku erdi baba ekarteko adiegaz, badoa almazenera, ta almazeneroari esan eutson:

— Au ta au pasetan jat astoagaz, ta ez dakit zer egin be, ainbeste pagau ta gero.

Denderoak:

— Orrek arreglu fazila dauka.

— Bai?

Ta:

— Bai. Kargau zakua ta gero ikusiko dozu.

Kargau ta Paulok:

— Ta orain zer?

Denderoak:

— Gindilla bat arturik, zartatik buelta emonik, eperditik sartu.

Asto ori arrantzaka ta karrakan, deabruak arturik, martxau eutsen.

— Da oin zer egingo dot? —Paulok.

— Sartu izuz zeuk bi.

Aien pikanteagaz Paulok korritu auen doblea, ta pasaukeran esan eutson astoari:

— Gero arte? Etxe ondoko pozoan etxongo at!

Andreak, ikusirik komedi ori, esan eutson:

— Paulo, kendu izu ori, asto deabru ori, nire begien bistatik, nai ta debalde emon.

Urrengo egunean non datorren andik jitanu bat asto erosten, da Paulok emon eutson miseri baten, ia debalde.

Andik amabost egunera, etxeko serbizioarako bear auden astoa, ta Paulo ferira astotan barriz. Beste jitanu batek eukazan astoak ondo konpondurik eta bizkorrak. Paulori gustau bat osoan, da ensegida egin auden tratua.

Baetorren bere asto orregaz pintxo-pintxo; ta, etxe ondora eldurik, Pauloren lagun bat topau auen andreagaz berbaz, ta esan eutson:

— Katalin, sartu izu au asto au kortan, da emon jaten, neuk berba egiteko onegaz.

Asto ori, kortako atea zabaldu orduan, karrakan beren lekura, eta Katalinek esan eutson:

— Paulo, zer asto edo zer demonintru ekarri daustazu etxera, ze au geure lengo asto berbera da ta?

Beor solariak

ALDI aretan, Uriondoko gizon batek eukan beor banda bat, eta batzuk oso solariak. Jokerarik andiena eukien lenengoko soloetara.

Ango Larragan baserrian, zoritxarrez, alargun da zar eginda egoan andrea. Errangei bat eukiten auen laguntzat. Baia beor deabruak jaten eutsiezan ortuari ta jenerorik onenak, da desesperaurik egoan andratxo ori elorrio edo kastigu gorri orregaz.

Orrez ganera, ango jentea txantxa edo broma zaleak ginean, da akordau jakun —nire laguna Dionisiori, txarri iltzaile baten semerik zaarrenari, eta niri, Lino— joatea gau ilunez, beren etxeko arrandunbak arturik, bromak egitera.

Saturik solo orretara ta arranak joaz, beor irrintzak egin, pentsau dagien soloa beorrez beterik dagoala.

Alan suertatu zan. Or datoz atsoa ta errangeia, akullu bana artuta, txakurragaz, beorak solotik atarateko. Urratu zanean txakurra nire anketara, jo nendun paluagaz, atsoak esanik:

— Beor deabruren batek emon dautso txakurra-ri ostikadaren bat.

Txakurak baekian zer beor klase ginean; da, nai ta aizatu, ez etorren barriro gugana.

Orretan gabizela, non datorren apur bat edanik Dionisioren aita, esanez:



*Familiaren iru gizaldiak.
Bean ezkerretik: Antonia, Lino, Aratz eta Maria Luisa.
Zutik: Joseba Ander eta Jose Mari.*

— Zer beor edo zer deabru dabil or soloetan?

Erantzunik andra koitaduak:

— Joseren beorrak, eta ezin ezetatik atara!

Dionisio beren semeak pentsaurik beren aitak etxeko arranak ezagutuko dauzela, esan eustan:

— Goazan bake-bakean etxera, ze orrek daka-
rren mozkorragaz aberiren bat egin ez dagien.

Au zan laño berazko lanbro eta gau ilun bat, eta danok gengoan bustirik; eta etxera sartuaz amak esan be:

— Nondik zatoz, seme koitadua?

Semeak amari:

— Larragandik gatoz, ta aita parau da an, Jose-
ren beorrak garealakoan. Datorrenean, ez egiozu
matrakarik egin, ze umore txarrean etorriko da.

Orduan amak semeari:

— Ene semetxua, zuk ifini daustazu matrakea!

Semeak amari:

— Kafe bero-beroa preparau egiozu, da erropa
sikuak emon, ze ari siku barik dator. Ondo esanez
eroan ogera, ta bigar egingo dogu berba.

Pasaurik ordu pare bat, or dator gizon ori zarata
ta izerditan. Andreak:

— Non egon zara, gizon gixajoa?

— Non egongo naz, ba! Beorrak solotik ataraten.
Baia orrek, jaube tranposo orrek, gorde egin daus-
kuz beorrak.

— Tira, tira! Artu kafe bero-beroa ta goazan lota-
ra bake-bakean!

Andik urrengo egunean, amak aitari:

— Badakizu nortzuk izan direan atzo gaueko
beorrak?

— Ez. Zer ba?

— Zeure seme zarra ta tabernako Lino.

— Ez da egia izango!

— Bai; egi santua. Ta zeure kamaran daukozu-
zen arranakaz ganera.

— Ene demonintrua! Auxe bai badala azkarria!
Txantxalari edo ainbat barre eginetia banaz be,
ederra sartu daustie gaurkoan!

Antxineko ezkon tratu edo usadioak

ALDI orretan, pareja edo bikote batzuk eskonduten zirean berezkotasun edo amodio bitartez. Baia geienak ezkontzagineen edo kasamenteruen bitartez.

Gizon zein andrazko ori joaten zan gauez, auzoak edo beste jenteak jakin ez dagien, arto bat edo gaztaia edo beste zeozer pañueluan makila baten sartuta, neskaxa edo gurasoen etxera, errekadu egitera.

Orreik ifinten eutsien egitasmu edo plana alkarregaz batzanduteko, ezkonduten konforme bazan; da gero, andik egun batzuekgarrenean, mutila bera gurasoakaz neskearen etxera, aren gurasoakaz konponduten, zer emongo dautsien bakotxak bere-nari señalaurik.

Usetan zan mutil edo gizonezkoak baserrirako bear zirean erremintak eta idi edo bei edo burdi, golda, itilla ta abar eroatea; eta neskeak arrio, etxe-ko mueble eta tresnak; bai logela, azpira, mai, aurki eta beste.

Orretarako arduratuten zirean arotzagaz neskearen gurasoak, nozerako eta zer preziotan izango direan, da noz pagauko bear daudezan. Señalauko

egun orretan, alde aurretik abisaurik egoten zirean orgari edo idi buztarri dotoreak. Kaskabel ta manta ederrakaz idiak atondurik, badoaz orduetako bidean arrioa eske.

Bakotxak beren kargamentua artu eta badatoz ponpoxo erakusgarri zirean muebleakaz, atzetik andragei eta beste neska lagun pare bat, euren buruan zorkiak ifini ta otzara zabal andi batzuetan arturik apurgarri direan ispillu eta bestegaz.

Bide oso luzean zirean ezker, atsedean edo deskantsaldi egiten beartuak. Arnas arturik, aurrera.

Allegaurik ezkontetxera, utsitu gurdiak, arotza altzariok armetan, besteak idiak askaturik. Bai ididun, bai neska eta neska-etxeakoak, jataldi eder bat egitera. Segiduan bakotxa beren etxera, despediduz ezkon egunerarte.

Goxalde orretan joaten zirean, eguna zabaldu baño len, neska pare bat barauskarria emoten auzo guztieri: paitar. galleta, bizkotxo... Eta orreik, arrearra onagaz zorionduz, opa urte askotarako bizitza.

Goizeko bederatziak inguru, etorten jakon mutilla, aitabitxi, ta, beste lagun batzuk, neskeari eleizara eroaten ezkonduen.

Ori egoten zan klabelina bat dirudila atondurik; ta, amabitxia lagun dala, urten etxetik ta badoaz, aurrendari eta gonbidadu bitarte direala, atzetik senargeia.

Areik etorri bitartean, bazan neskearen etxe edo supazterrean zer eginik ugari: bai ollasko il ta lumatu, bai artxo, bai koneju gisatu, bai makallo piperrakaz, odoloste eta jan atzenerako arroz-esne, sagar ta madari egosi ta abar, dana prest ezkon barri eta lagunak etorri ordurako.

Eleizara zireanak ezkontzea zelebrau orduan, ezkon barriak, baraurik egozan lez, zoriondurik eta mosuz bete orduan, or doiaz tabernara barausten;

da besteak be bai, txurrut egiteko. Gero, bat barri ta bi barri, txolindu be bai. Batzuetan, etxagun edo dirudunak izatera, bolanderak botaten audezan.

Iñoz edo bein suertaten zan, bolanderak botakeran, sua artzea alboan itxiten audezanak. Orduan danak asten zirean tiroka, disparate bat egiteko moduan. Alan da ze, etxera etorri ordurako, bazkaiteko denporea zan; da ezarten zirean segiduan, *pater noster* bat errezaurik ta “on egin” esanaz, bazkaiten.

Janari on da askoren ganera, ardao ta edabe ezin obeak alberrietatik ekarrita egoten zirean. Orretan bibatu edo goratuz ezkon barriak, a bai parranda. Aitabitxiak bearturik puru edo txokorrek erretako ekartera. Eta kanta, bertso ta jantza, moz-kortu be bai sarritan; da lau egun edo iru, nai ta ezkon barriak etxetik kanpo eztibilaldia pasetan.

Perretxiko batzailea eta eskupetaduna

IA ogeitabost urte dala jazo zan arazo au. Perretxiko batzaile bat, bagila atzearen inguruan, Zeberio-Uriondoko baso baten, Uborota deituten dan zelaiaren alboan, oso makurturik, kutxillo bategaz zuzterritik ebagiten perretxikoak, ixil-ixilik, iñok ikusi ez dagian non dagoen moltso ori.

Justu-justuan etorri zan andik mutil gazte bat, eskupeta aldean auela, kazaria edo kazan. Konturatu zanean ango ira artean zeozer mobiduten zala, geldi parau zan sorosten; eta ikusi auen gauza baltz bat, ze itxura ori eukan gizon orren txapelak, ta besteak pentsau belea zala. Apur bat urraturik, geldi parau ta disparau eutsan tiroa, ogei bat metro ingurutik edo distantzitik.

Tiroa bota ta beste barik, gizon ori asi zan aienea, eta eskupetadun mutil ori orduan konturatu zan gizonari tiro egin eutsala, txoriari bearrean. Guztia ikaraturik, momentu orretan ez jakon akordau besterik, aretx kontra eskupetea apurtu ta txarko-zulo baten enterraute itxitea baño.

Ori egiten ebilen bitartean, gizon ori mobidu zan etxerantza, ta jazo zan Arrigorriagako perretxiko topatzaile bat izatea. Eskupetadunak atzetik segidu eutsan bidarlo baten; da, ikusirik ondo doiala, bera

be etxera, ze bildur zan berbarik egiten, beste orrek ernegaldian aberiren bat egingo eutsala ta.

Ain larri aurkituten zan zer pasauko ete zan eskupetadun mutil ori, bildurragaz ez eutsen esan ez etxekoeri ta ez besteri ezertxu be. Baia bera estu egoan fraketan; da urrengo egunean, beste gauzaren bat egiteko atxakian, joan zan Arrigorriagara, zer berri egoan andik jakiten.

Pregunte asirik disimuluagaz, andra batzuek esan eutsen zelan gizon bateri, perretxiko batzen ebilela, tiroa emon eutsen, da medikuagana eroan audela.

Orduan mutil ori larriago, ta joan zan medikuagana, zer pasau zan enteratu zala ta ea zelan egoan, ze beren senidea zala, ta besterik ezer esan barik.

Medikuak esan eutsan:

— *Bueno*, ba, bai: badauka ainbat perdigonazo eper-mamietan, baia tira: ez dago ilteko arriskurik. Alan da ze laster osatuko da.

Mutil ori apur bat nasaitu zan, Baia alan da guzti be ez eutsan iñori ezer esan.

Andik ilabete bi inguru, juntau zirean biak taberna baten; da perretxiko batzailea beste gizon batzueri esaten zer pasau jakon. Da mutil orrek esan eutsan:

— Ba neu naz zuri tiroa botakoa.

— Ez da egia izango!

Besteak:

— Bai. Egia da,

— Zergaitik ez intzan jaubetu nigaz tiroa emon orduan?


— Ara esan: lagundu ez egiteagaitik. Batetik, ni enekien non aurkituten nintzan be, artu nendun sustuagaz; ta bestetik egiten nendun: “Jaubetuten

banaz, orrek amorrugaz garbituten nau”. Orregaitik, ikusi neutzunean etxerantza zoazela, itxi bake-bakean joaten, ernegaldia pasau orduan gauzak arregletako. Ardura eta bildurraren preso, joan nintzan urrengo egunean medikuagana. Itandurik medikuari zeinbat zor jakon eta zeinbat zan beren kontua ta botikaren gastua, esan eustan, eta nik pagau be bai. Alan da ze dan-dana dago pagaurik, eta egon nasai.

Ze orduko interan ez egoan seguridade sozialik, eta bakotxak berak pagau bear auzen medikuaren gastuak.

Egun orretatik aurrera lagun andiak zirean, eta mutilaren gurasoak be bai, nai ta semeari erretolika ederra irakurri.

“Ur onetatik ez dot edango”
ezin leiteke iñoz esan,
eriotza bat egin da gero
alper damutu ez gaitezan.
Nai eta pasau gizonak sarri
jakituri ta listezan,
begitu eskuan arma eukiteak
zer arriskuak daukezan.



Arrankudiaga.

Andra sarjentonea eta alabea

OGEITAMABOST urteko neska gorputz sendo eta bekoki ixurtsua bizi zan beren ama alargun eta dirutsuagaz, eta lenagoko usadioan ezkondu bear zan amaren baimenagaz, baia mutilak ez ekien alangorik; eta bera, barriz, oso galanta zan, baia diru bakoa.

Mutilak, ikusirik or zer pasetan dan, esan auen beren artean:

— Amaxea sarjentonea bada, nigaz topauko dau neurriko zapatea.

Auzune bateko jaietan erromeritik etxerantza lagunduten joanik, nobio-nobi egin zirean, eta aste bi barru nobi ori arpegi ilunagaz etorri jakon. Mutilak esan eutsan:

— Zer da motiboa alan asarratuta egoteko?

Eta neskeak:

— Ara: niri beti gustau jat gauzak artez esatea, eta oraintxe esango dautzut zer pasetan dan. Nire ama enterau da zu mutil galanta zareala, baia diru bako edo pobrea, ta esan dau gurean dirudun mutila bear dala.

Entzunik mutil orrek orreik berbok neskearen agotik, osoan ikaratuta parau zan, da zer pentsau andiagaz. Ez eukan lez dirurik, akordau jakon lagun bateri eskatutea prestamen bat ezkondu artean, eta ezkondu segiduan pagetako kondeziñoagaz, nobiak eta beren amak pentsau dagien diru asko daukala eta orregaz ezkondu konformau daitezana.

Emonik mutilari prestamu ori beren lagunak, mutilak diñotso nobiari:

— Sinistuten ez badozu nik diru asko daukadala, erakutsiko dautzut Aurrezki-Kutxako libreta.

Neskeak:

— Bai. Obeto izango da erakustea.

Orduan diñotso mutilak neskeari:

— Au da begien bistako gauzea: zuk ez daustazula gura niri ezertxu be.

Neskeak segiduan:

— Bai; nik gura dautzut, eta ez gitxi. Baia gure amagaz ez dago zer eginik, dirurik ez badago.

Ikusirik mutilak diru asko daukala, konformatu zirean ezkondu teko neska ta amaren etxera. Ezkondu eta andik egun gitxira, etorri jakon laguna gizonari dirua eske, eta emon be bai, kondeziñoa egineko moduan; eta andreak ta amaxeak ibili auden gizon gazte ori txoriak mosolloaaren moduan, da beste orrek aguantau ixil-ixilik

Arik urrengoko domekan egoan feria Basortun, eta ara bialdu auden gizon gazte ori bei bat erosten, eta erosi be bai. Baia ikusi orduan ez eukala dirurik beia pagetako, orduan zirean komediak: ama-alabak asi jazokan joten.

Gizonari amaxeak jotea ez jakon estraiñetan. Baia ikusi auenean beren andrea makila andi bategaz joten jatorkiola, akabau jakozan pazien-

tziak eta, kendurik eskuetan eukan palua, asi zan beragaz andrea zurretan. Au izan zan erresulta-
dua: apurtu saiets bi eta besoa, beste baltzituen
aparte.

Aberi ori eginik, andrea negarrez ta mantso; eta
amaxea atakeak emoteko moduan. Badoaz medi-
kuagana. Orduan ez egoan segururik, eta pagau
egin bear izaten jakon medikuari. Osatu zanean,
joan zirean barriro medikuagana; ta, itandurik
zeinbat zan beren kontua, esan eutsen:

— Nirea bost milla pezeta.

Gizonak ez eukan lez dirurik, pagau bear auden
andrearen diruagaz; eta gizonak esan eutsan
andreari:

— Artu izuz amar milla pezeta.

Andreak:

— Zetarako dozu ainbeste diru ba?

Gizonak:

— Gero esango dautzut.

Joanik medikua pagetan, gizonak emon eutsa-
zan amar milla pezeta; eta medikuak:

— Ez; nirea ez da bost milla baño.

Gizonak:

— Artu izuz, ze bigar etorriko da amaxea.

Medikuak:

— Olan bada, *bueno*.

Andra ori parau zan oso arriturik; eta etxera
joanda, gizona kortara jeitxi zanean, amari ixilean
esaten:

— Ene amatxu laztana, Jaungoikoarren ez egizu
agorik askatu, ze mediku azur-konpontzailea dau-
kazu pagaurik!

Orduan egin zirean sekula santako bakeak.

Neskean ama diruzale ta
gaizto treta txarrekoa,
ala bearren gizona bere
ez da klase obekoa.
Apurtu batek topetan badau
beste ezin josikoa,
bide txarretik dabilen oiñak
zapatea neurrikoa.

Anton eta Pepa

ORDUKO interan, baserri baten bizi zirean matrimonio bat oso famadua: Anton eta Pepa. Gizona, langile edo beargin fina; eta andrea, fardela. Familirik ez eukien, da gizon gixajoa sarritan bearraren bearragaz guztiz auldurik etorten zan etxera solo edo basotik. Andreak, ostera, golperik be ez auen egiten; da, gizonari animoa emoteko, esaten eutsan:

— Preparauko dautzut ila biztutzeko moduko saldea, bai, ta ikusiko dozu zelan animauko zarean.

Anton ori, saldea ta arrautza egosi bat janik, animau zan apur bat, eta badoa barriz solora bearrean bakar-bakarrrik. Baia ara joatorduko, esan eutsan Pepak:

— Begitu, zu, gizontxua: medikuak agindu daust jimnasia egiteko, bai, eta eskubitorrak amarrau egidazuz, moropila goi aldetik dala, gero neuk aginakaz soltetako moduan; da joan zaitez trankilo, neu arreglauko naz-ta janaria ifinten be.

Andra orrek, jimnasiginean asirik, pasau auzen anakak beso amarrauko barru aldetik aurrerantza; baia atzerantza pasetako ez zan kapaz, istrimidadeak jota be. Postura ikusgarri orretan egoala, momentu orretan agindu auen auzoko Julik beren

mutikoa arrautza pare bat eske, gero berari egin orduan olloak pagetako. Joanik mutiko ori, ta deitu atea, jorik *tan-tan*, barrutik erantzun:

— Nor da?

— Auzoko Martin.

— Ba, pasau, pasau, ze soltau ezinik nago ta.

Pasaurik mutikoa barrura, eta ikusi kuadroa, ikaratu zan guztiz, ta karra amagana etxera, esaten:

— Ama, erdu arin Pepagana.

— Zer pasetan da, semea?

— Auzoko Pepa dago salan jausirik, eperdia agirian, pilo-pilo bat eginik, eta izter artean esan lai daukala kirikiño latz bat.

Badoa ama ori karraka, ta Pepa ori an egoan arnasez betatu ezinik, erretratu bat atarateko moduan, da esan eutsan:

— Zer pasau da, ba, Pepa?

— Zer pasauko da, ba? Medikiak esan eustan, bearrik egin gura ez badot, jimnasia egiteko, ze gogortu bear dodala lodiaren lodiagaz. Ta, Juli, Jaungoikoarren ez egizu agorik askatu, nire gizona enterau ez daiten.

— Ez, Pepa. Nigandik ez da iñor enterauko, eta mutikoak ez daki ori zer dan.

Arik egun batzuetara, Antonek kirikiño latz bat ekarren, da diñotso:

— Martintxu, begituik zelango kirikiño latza koxi joadan.

Martintxuk:

— Obeto ez Peparen anka artekoa!

Bearginak

ALDI baten, bazan fabrika bat, ikusi dodanik onena, au da, bere inguru danak baserriak auzena; eta ara joaten zirean beargin baserritar guztiak, ze an, bear egin bearrean, deskantsau edo lo egoten zirean. Iluntzean urteten audenean, oso prisaz beterik joaten zirean bakoxta beren etxerantza.

Bein baten, agintari nagosia konturatu zan zelan joiazan, da esan eutsan katapazari:

— Oneik datoz fabrikara, emen deskantsau ta gero etxean bear egiteko.

Fabrika orretan soldata edo diru gitxi pagetan auden, da orregaitik jenteak ez auen golperik egiten tarean edo tantoan izan ezik. Tarea zan katapazak eguneko kalkuletan auen bearra, zeinbat eta arinago akabau, libre etxera joateko; eta ori komeni jakien, batez be ereintzako tertzioetan.

Tantoa, barriz, pieza bakoxtari ifinten jakon prezio bat, eta alan jakiten zan zeinbat pieza egin bear dan, eguneko soldatea edo alogera atarateko.

Fabrikearen partetik itxiten auden eguneko soldatearen doblea ataraten; da, jentea diru gose izaten zan lez, orduan egiten auden bear asko. Agintariak jakiten auden noz emon tantuan, batez be eurak presa eukien orduan.

Egun baten, jornalean dabizela danak, katapaza parau zan berbaz beargin bategaz, eta beste beargin danak be bai alkarregaz. Momentu orretan etorri zan nagosia, ta beargin bat bakar-bakarrik bearrean. Deitu eutsan katapazari, esanez:

— Au da gauza lotsagarria: berrogeitamar bearginetatik bat bakarrik bearrean egotea!

Joanik beargin orrengana, katapaza emon eutsazan eskerrak; baia ez auen jakin kasualidadez beren etxeko atearen kisketa konponduten ebilela.

Beste egun baten, beargin bat zan ume asko eukana, ta txikerrak; ta orreik danak mantenietako fabrikatik kanpo beste bear batzuek egiten auzena, sarritan goxean goxetik jagita ta gauean berandu lo joanez, ta logure andia eukan da sartu zan gordeleku baten apur bat deskantsetako, ta loak artu be bai laister.

Iluntzean adarra jo orduan, lagun danak urten auden da etxera; ta beste ori lo arriaren moduan, da ez zan konturatu arik-eta berez itxartu arte, eta orduan konturatu zan zelan lo deskuidau zan.

Oso lotsaturik, artu jakea ta ixil-ixilik etxera; eta, ikusirik, goarda edo atezainak, ezertxu be itandu barik, apuntau eutsazan beste aparteko ordu bi.

Olango gauzak pasauz ganera
oraindiño irabazi,
gaurko orregaz ugazabak dau
emen zeozer ikasi;
ulertezina ikusi ezik
gaur galtzaile da nagosi
onein parean lengo uzabak
domina daude merezi.

Maatsa

GURE txiker denporan, urri atzean edo Domu-santuetan lenengo inñontzak jausten zireanean, aren otzak gogortu edo beren grazitik ataraten auzen fruta elduak; eta, ori jazo ez daiten, lukurrero batek eukiten auzen etxeko ormako parran egoan maats moskatelaren mordak gauetan edo denpora otzetan tapaurik arkondara manga edo andrearen kamisako mangakaz, otzak galdu ez daitzan, da konserbau Gabonetarako.

Andik pasetan ginean jentea, inbidiagaz egoten ginean, ze orduan ez zan lez egoten kamara frigorifikorik jeneroa kontserbetako, beren tertziotik kanpora ez zan frutarik ikusi be egiten. Bajuago egon balitz, batenbatek koxiko auen. Baia orreik eukiten auzen lau bat metroko alturean.

Gure errian propietario batek eukan kamioi bat *Uesa* markakoa, errueda mazizo edo tinkoak eukazana, egurra panaderietara eroateko; ta pentsau auen egur kargaren ganetik koxitea maats ori. Baia ain zurra zan lez jaubea, listo ibili bear zan areri ezertxu kenduteko, eta zer pentsatu auen?

Zeozar aldatz bera egoan lez, kamioia zati bat urratu arte eroan martxa andian; da, urratu orduan motorra parauta, joan astiro-astiro maatsa koxiteko.

Baia lukurreroak eukan maatsaren tronkotik beren kuartora, lo egoan lekura, ifinita alanbre bat kanpanilla bategaz, a mogidu orduan kanpanillea joteko.

Gizonak mordea koxiten dagozela, justu-justu agertu zan jaubea, ta mutilok larri. Esan eutsen:

— Gaurkoagatik, kartzelara joatea gura ez badozue, pagau pezeta bat urre zurizkoa, ta urrengoan doblea.

Au da, gaur milla ogerleko baño geiago.

Balio ez baia pagau ein bear
legean kanpo dagonak,
falta larria daukan ezker
besteri ostuten dautsonak.
Guztiok gura norberantzako
munduan diran gauz onak,
on gose ori ezin kendua
dogun ezker gizonak.

Jose Laño aita-semeak

ZEBERIOKO Uriondo deritxon auzunea, len esan dodan moduan, ogei etxe daukazana da, ta euretatik zazpi dira bikotxak.

Baserri edo basarte baten mendipean paraje ezkutuan dago. Kamiñotik oso urrin. Denda edo traturik bat be bakoa.

Alan da ze alkarregaz serbitu bear izaten zirean zer egin edo artu-emon guztietan, adiskidetasun osoan. Batez be janari, auzolan eta abar: azukre, orio, urun, ogi, talo, opil, arrain-parrilla, odoloste, ontzi, erramal, soka eta abar. Andrea izan ezik, beste guztiak.

Iñoz edo bein joan bearrik egoten bazan Bilbo, alberri edo beste lekuren batera, danak moltso bat eginik, umoretsu ta txantxa-gura joaten zirean lenagoko usuan, ipuin edo kontu ta komedi guraz.

Kamiñotik auzora bitartean dago etxe bakar bat, Larragan deituten jakona. Etxe orretan bizi zan famili oso onkote bat: Txomin, gizona, ta Eleuteria, andrea, euren zazpi seme-alabakaz.

Paraje orretan egiten zirean broma edo komedi asko, zein da txarri ilte, gari jote, beor solari, lapurreta-siñu eta abar.

Aldi aretan, beste ganadu askotik aparte, eukien txarri makera bat umeak egiteko. Parto txarraren

bitartez, tragau zan makerea; ta umeak, bat izan ezik beste danak.

Orduan, bakar ori azi zan biberioko esneagaz. Ori dala-ta, txakurren moduan pertsoneri atzetik segiduten eutsen; ta, ezer ez bajakon emoten, usigi. Zeinbat aundiago ta txarrago, jente guztia bildurragaz andik pasetako.

Etxeko andreak entzunik jente guztia kexaz dagola, asi zan txarri iltzaileak topetan. Baia batak bakarrik ez dala atrebietan, da besteak be ez. Baia, *bueno*, topau auzen dozen erdiren bat, eta badoaz txarri ori iltera.

Aldi aretan bazan Jose Goikouria edo izen-burlez *Laño Zarra* esaten jakon gizon bat; eta semeari, Jose Goikouria bera be, *Laño Gaztea* deituten eutsen.

Alan, *Laño Zarra* agintari izateko kasuan, badoaz bariku goizean, ilberrea dalako, lenagoko usantzara, bakotxak beren kako ta kutxilloa arturik.

Laño Zarra orrek esan dautse kakoagaz lapraste-an elduteko txarriari papadatik martxau dagian, da asarratu. Atzenera orduko ifini daude basaurde eridua baño txarrago, ganaduen aska ganetik eta burdi ganetik saltuka. Etxekoak, kortako eskilara ganean, bajetako bildurragaz.

Alango baten, burdi ganetik saltuka dagoala, indartsu batek, Etxebarriko Pedro Antonio Mada-riagak, *Laño Zarra*-ren suñak, oratu belarrietatik, ta alan lotu ilteko.

Ai zer poza etxekoak, txarri ori lotu orduko, esanez:

— Jesus, Maria ta Jose! Au da mesedea egin dauskuzuena! Eskerrik asko benetan!

* * *

Jose *Lañoa* aita eta Jose *Lañoa* semea, biak zirean txarri iltzaile ta txantxa zaleak.

Aldi orretan, semea egoan ezkongei Uriondoko neskatila bategaz. Au, gauza jakina, al dan sarrien ikustera joatean, eta Txominegaz ain zan lagun andia edo konfiantza osokoa, etxeakoak baño obeto jakiten auzen ango barriak.

Etxe bakarra zan ezkerro, esaten dautso Lañoak:

— Txomin, emen lapurrak sartzeko arrisku ika-ragarria daukozue.

— Bai orixe —erantzun Txominek—. Ni beti nago esatean andreari: “Gitxien pentsetan dan orduan eukiko dogu desgusturen bat, zegaitik ze ez dauka-gu eskopeta zar bat be”.

Lañoak:

— Ori gauza fazila da. Gura badozue, neuk ekarriko dautzuet Bilbotik, zeurok gura dozuen modukoa.

— Bai orixe! Oraintxe atoan eutsi dirua, ta zoaz ta ekarri eskopeta, orratzagaz disparetan dana.

— Bai. Ardura barik egon —Lañoak—. Laster eukiko dozu zeuk esan dozun moduko eskopetea.

Urrengo egunean non datorren Jose Laño gaztea, eskopeta lepotik eskegita dakarrela. Diñotso Txomineri:

— Emen daukozu zeure salbaziñoa.

Erantzunik besteak:

— Ez da etorriko lapurrik; ze, etorten bada, anak luzetuko ditu lenengo tiroan.

Andik egun gitxira, nobiagaz egon da gero etxe-rantza datorrela, akordau jakon Laño gazteari komedi bat egitea: masparratik igonik, leiotik sartu ixil-ixilik, eta eskopeteari orratza kendu ezgauzetuteko.

Orduan, arriskua kenduagaz trankil zabalduz armario, mesilla eta abar, ostu siñuak egiten, Txo-

min da semeak etorri daitezana eskupeta orregaz. Ta bai batek katillua disparau ta ezin bota tirorik. Besteak kendu eskopetea eskuetatik ta bardin.

Orduan Lañoak baekin lez bildurtiak direala ta ez dautsiela joko, leiotik urten, masparratik jatsi ta etxera.

Urrengo egunean badator ostera, ta orrein esan bearrak zer pasau zan gau orretan! Ta Lañoak esaten dautsie:

— Ekarrizue eskopetea, ikusi dagidan.

Ta, besteak konturatu barik, ifini orratza barriro ta esan:

— Egin dagigun pruebea.

Ta bota tiroa, esanaz engrasau bearko daudela sarritan, ze orren faltea izango zala; ta danak konforme.

Ori zala ta, bete zan Txomin bururaiño; ta, zelan edo alan, preparau zan Jose Lañoari zotza sartzean.

Eguzki bero ta egoaixe sargori bategaz gerizpetaratu zan Txomin arexpe baten etxera bidean, da erreparau eutson Lañoari datorrela Uriondora andregeiagana, ta beren artean esan auen:

— Oraintxe da nire ordua.

Urratu zanean, topetan dau Txomin lurrean etxunik urrumeka. Deitu eutson iru-lau bider:

— Txomin, zer pasetan jatzu?

Besteak segidu urrumeka, berbarik egiten ez dauala.

Jose Lañoa gaztea lotu zan arriturik, da lau gorrian bildurturik ilgo ete dan. Geiago pentsau barik, artu lepoan da badakar etxera, gitxienez kilometro bat bidean.

Etxe ondora eldu zanean, andrea ta familia ikaratu ez daitezana, ixil-ixilik jeitxi auen eskilaretan

oso kontuzean. Baia a zan sorpresea, Txominek esan eutsanean:

— Eskerrik asko. Orain neu bakarrik joango naz.

Orduan konturatu zan Lañoa, au zala txantxa guztien pagua. Eta Linok bertotu:

Urratu zanik urruma txar da
ai ene lastimosoak,
biotz-beratuz Jose Lañoa
sano egoan gaixoak.
Lepoan artuz etxera eroan
berotuz bidez auspoak,
izerdiz bustiz gorputz ta erropa
aririk siku bakoak.

Eskilatara elduaz esan:
“Itxi, bakarrik naz kapaz”,
trapu zuria laxe aurkituz
entzun audezan berbakaz.
Neurtu zinduzen listezan, Jose,
jakituri guztiakaz,
eskarmentua artu dagizun
onkote baten tranpakaz.

* * *

Abuztua eldurik, gariak joteko tertzio onena. Baia gure Txomin makal xamar, da semerik zarrena be bai, saldarrez beterik, ezetarako gauza ez dala. Orduan auzoakgana deika, lagunduten joateko.

Lañoa ta beste asko deseetan joateko, betiko moduan kontu barriren bat kontetako prest, zein da bide kurtzetik pasakeran orio usain andia barruntau dauela esaten.

Au da lenagoko zarrak esaten auden, ba, purgatorioko arimak etorten zireala, garbituteko pekatue-

tatik, bide kurtzeetara; eta deabru edo fraka gorriak ondora sorosten, zerura eroan ez dagiezan.

Abuztuaren 16-ko San Roke egun eder baten, errasu edo eguzki beroa, gariak zabalduz gero joteko.

Usetan zan armozuz on bat emotea gari jotzaileeri. Au janagaz, beste barik, frakak soltetako atxakiagaz martxau Lañoa, gari meta barrura sartuteko, besteakaz bat eginik; da, besteak ara eldu orduan, ez tul andi bat egiteko, Lañoa asi daiten metea lurrera irulten, pentsau dagien deabruak direala.

Esan da egin, asiaz bakarrik, ikusirik zelan jausten zan gari metea, txilioka asiz, or doaz etxera, deabruak direalakoan bildurturik. Ikusirik kuadru au, Lañoa badoa etxera ta esan:

— Neu izan naz bata.

Orduan Txominek artu burdiko taketa ernegaldi orretan, ta il bear dauela esanez, aurretik karraka. Baia ezetaz ezin koxitu; ta, bien bitartean ernegaldia pasauz, lagun egin zirean ostera. Danen artean gariak jo ta oso adiskide gaubean etxera. Ta partidukeran Txominek:

— Eskerrik asko danori. Baia barriro ez daustezue olangorik egingo, e?

— *Bueno, bueno* —Lañoak—. Parkeske nago! Ta gau on!

Lukia

MUSTUR zorrotza, belarriak tente, artez begiak, aurreko anak bost atzamarrekoak eta atzekoak laukoak, atzazal gordetakoak.

Arra ta emea bardinak, emea zeozer txikiagoa: ulea laburra eta area kolorekoa; luzera, buru ta guzti, arrak irurogei zentimetro; pisua sei edo zazpi kilo; bizilekua basamortua; jaioteko denporea abenduaren azkenetik zezeilerarte laguntza erabiliaz; ernal-denpora berrogeitameka edo berrogeitamabi egun; umaldi bakarra urtean, kobako gordegelan, marti edo apirilerarte, lau umeakaz, eun gramo pisukoak.

Lenengo ilean daukie lanearen itxurako ule par-doa, ta udagoienerako nagosien modukoa. Zabalduten daudez begiak amar egunakaz, eta zutunik egon aldira ogeitabost egun barru. Esnea edateari itxiten dautse zortzi edo amargarren astean. Jaioten direanetik titia kendu arte, luki aitag eroaten dau jatekoa.

Txikien arteko olgetak dira andien ezkon aurrekoaren modukoak. Arrak olgetan dau umeakaz. Lantzean bein amak eroaten daudez kaza irakasten.

Nagosi egiten dira sei ilabeteakaz. Sexurako zoliten dira Gabon ingururako.

Koxiten daudezan presetatik sobretan dana, gorde egiten daude, beste gosea daukien denpora

arte, lurpean, erpakaz zulotuz, ta gero tapau anka eta musturregaz.

Orrez gain, jaten daudezan arratoi, koneju, txarrikume, musker, korral-egaztiak, arrautz, artxo eta abar. Baita be, gero argituko dan moduan, ardi eta auntzen odol goxoa zurrupatu.

Bakarrik ibilten dira ezkon zeloak etorri arte.

Egunez, kobako gordegelan; gauez, lapurtu al dan guztia. Iñoz edo bein egunez be ikusten dira, baia gitxitan.

Deiak klase askotakoak: ausi, irrintze eta abar, batez be batzandu gura daudenean, sexu bearrak egiteko.

Nire eritxiz, pizti guztietan jakintsuena eta instintorik geien daukana.

Ni gaztetxua nintzala, bizi zan, Arrankudiagako Bakiola auzunean, Anjel Borde eritxon gizon kazari bat —Jaunak zeruan dagiala—, oso famadua; eta ark esaten auen lukiak eun tranpa eukiezala, eta areri oratuteko eun da bat bear zireala. Au da, lukiak baño bat geiago.

Nire eritxiz ez da gauza erraza edo fazila, eta zeozergaitik esango auen ori. Ez dakit zeinbat luki koxiko auzen beren denporan, baia eun baño geiigo duda barik.

Ori izan zan, beste batzueri errespetatuz, ezagutu genduzanetan kazaririk onena. Korriduten auena Bizkai erdia, eta Araba be zati andi bat.

Anjelentzako egun triste baten, akordetan naz Gorbai alderdian ebilela luki bila, beren txakur *Montes* eta *Perla* izenekoak arturik lagun. Axe zan ezbearra: pastore batzuek, lukiak beneno edo pozoiaz tragau daitezcan, ifini audezan non edo non bat tostada edo sebo edo pastela deituten dan jateko gozo orreik; eta, alan bearrez edo suerte txarrez,

Montes eritxon txakur ori, jan da beste barik, arin baño arinago tragau zen. Anjel gizajoak negar egiten auen gogotik, ikustean beren txakur maitea egoera orretan, ama batek beren semea bestean maite auelako.

Baia mundu onetan zoritxarrez sarri askotan iruntsi bear izaten dira olango traguak; eta biziak bizi-lan egin bearra daukagun ezkerro.

Anjelek be aurrera segidu bear izan auen beren opezio orretan, zartzaroa etorri edo adindu arte.

Gero, bizilegea dogun lez, beste batzuek beren agertzen dira profesioño bardinekoak; eta, gure alderdian lukiak ugari zirean ezkerro, bizkor egon bearra gendun, eta orduan batedobatek susmau be bai Zollo aldean egoala Etxebarria eritxon kazari bat ezin ohea, txakur eta guzti.

Auxe zan lukiak franko egozan alderdi au: Zaldaingo auzunetik Uriondo bitarte dagoan Txakarra deituten dan baso arkaitztsu edo artadia, eta atx-zulo eta koba asko dagoan leku edo tokia, gordege-la orreitan ostondurik ezin koxiak. Eta bai be Leku-baso deituten dan lekuan; au da, Azezingo artadian; eta baso batetik bestera pasakeran egiten audezan ardi iltze negargarriak.

Aldi orretan, akordetan naz, Txakarreko atx-zulo baten sartu auden lukia txakurrak estukeran. Poz-pozik egozan pastore eta kazariak, urtekeran tranpa bat ifinirik, an jausiko zala, goseak il baño lenago. Baia ai zelango tranpea sartu eutsen daneri! Inhor kontutan jausi barik, albotik zulotu lurra kenduz, ta ospa egin. A zan asarrea artu audena alde biak!

Ordurik eta geiago ifini auden gau eta egun jagolea, barriz burlarik ez egiteko; eta tira: alan koxi audezan iru edo lau tandetan lukiak, eta atzenez bat tiroka.

Lukiak be, otso bat koxiten zanean lez, eroaten zirean, anka-musturak amarraurik, erririk erri limosna batzen, erantzun edo pagetakoz kazarien gastuak eta abar. Lenengo lukiakaz joaten zireanak diru asko batzen auden. Baia lau edo bost luki segiduan koxiteak diru emoten aspertu auzen base-rritar guztiak. Orduan iñok ez auen joan gura izaten lantegi orretan.

Au, kasu au, jazo zan 1943-ko udaberrian, ni soldaduskatik baimen edo permiso bategaz nengoa-la etxean.

Abisau genduzan auzune dana batzar batera, ebazpidea emoteko asunto oneri. Iñok be ez auen joan gura, eta urratu jatan ondora —Jaunak beragan dagiala— Iturritxako Boni Ugalde eritxona, esanez:

— Aituik; Lino: gura dok gu biok joan gaitezan?

Eta nik emon erantzuna baietz. Itanduz nondik nora joan bearra egoan, errespuesta:

— Emen Uriondon asi eta Zeberion Mandoia alde guztia; eta Argiñanotik, Amolar, Arraño, eta Ereño barru dala.

Arlo oso andia zan, baia, *bueno*, preparau ginean orretarako.

Luki ori egoan ia erdi ilik gose ta penaturik tristezaz, ze lukia da pizti bat gizonen aurrean jaten ez dauana; eta, gure eskuetan jausten danean, peneagaz ilten dana.

Esateko daukat pasadizo bat, Madrilleko Zooloji-koan edo pizti guztien etxean ikusia: zelan orreik jatorduan euren zeldan pizti guztiak jaten daudela pertsonen aurrean, lukiak izan ezik. Onek, emoten jakon janaria artu eta eroaten dau gordegelara, an bakarrean jateko. Begitu zelango malizia daukan bitxo orrek.

Lengo arlora joanik, jarri ginean urrengo goizeko zortziak inguruan mogiduteko, komeniduz nik eroa-

teko lukia eta diruaren ardurea; eta Bonik, esperimentzia geiago eukalako, berbak poliki edo esplika-ziñoak emoteko jenteari, ardi-pastore eta auntz-pastoreak oso asperturik egozan-da limosna emoten.

Orduan, egaztiak eukiezan guztieri be esaten eutsen zelan lukientzako egaztiak direala jatekorik gozoenak, eta arrisku ikaragarria eukiela.

Eta olan, asikeran akordauko moduan, bako-txak geure janaria morralean arturik, mogiduz lenengo Mintegi, andik Artiñano, Ereñotza, Zeberio-gan, Etxaso eta Barañano, au izan zan bazkal aurreko ibilbidea.

Baia auzune andietan inguratzen jakozan Boniri gizon, andra, neskatila eta abar; eta, orrek pikareska apur bategaz konbentzidutean, limosna andiak emoten euskuezan.

Bazkaiteko berandu egin jakun, baia oso gustu-
ra limosneagaz.

Gero, Argiñanotik aparte, Ereñorarte oso baserri gitxi dago, eta Bonik esaten eustan etxe gitxi dagon lekuan denpora gitxi galdu bear dala.

Olan, iluntzerako eldu ginean Ereñoko auzune-
ra, eta an akordetan naz Ereño-beti deituten dan baserri bakarrean zelan merienda-afaria emon eus-
kuen, ardao ta guzti, oso begitasun onean.

Gaua ilundu jakun, eskertu eta etxe orretatik urten ordurako, eta kilometro bat bide edo gitxiago dago beste baserri bakar bat, Zeata deituten dana. An bizi zan geure ezagun eta Boniren lagun andi bat, Manu eritxon mutilzar bat, beren ama oso adinduagaz.

Eldu eta kisketa jo orduan, erantzun euskun atsotxu orrek, eta esan geuntsan lukiagaz limosna batzen genbizala, ta:

— Manu non dago?

Berak:

— Usansolora bajatu da, ta ez dakit noz etorriko dan.

Itxaronik ordu ta erdi, Manu ez etortean, gaueko amarrak inguruan mogidu ginean etxerantza, limosna batzeari itxita.

Andik gure etxera dago egunez ordu pare bateko bidea, baia gauaz askozaz geiago. Batez be Lekubasoko mendi arro edo sakona paseteak baeukan meritua.

Aldi orretan Lekubason egoan piñadia, Bizkaian ez bezalakoa, ogeitamar metro baño luzeagoko piñuak, altz, leizar eta abar, ezertxu be ikusten ez zana.

Nik pasatu nenduzan senperrak arri latz orreik gurutzaten ainbeste bider lukia paluan, eta Boni lagun maitea eskutik artu eta ekartean jausi barik. Jaunari eskerrak, noz edo noz infernu ori akábau zan, da lukia be tragau zan, eta oso gustura eldu goxeko laurak ingururako etxera, ekarriagaz diru geiago beste iñok baño atzenengo limosna biletzan.

Lukia ardi artera etorten danean, ardiak lenengotan ikaratu egiten dira. Baia gero orrek, tranposo orrek, olgetako siñuan engañau egiten dauz, beren koipekeritan eta itzulipurdika asiaz.

Jakina dan moduan, ardirik indartsuen edo sasoirik onenekoan dagozenak beren maliziz aurrenengo ifintzen dauz saltoka.

Orduan lukia, ondo esanik kariziakaz, lagun egiten jake, konfiantza emonez. Baia konfiantzarik andiena artu orduan, salto eginez beren samara, sartzen dautsez agin zorrotzok, lurrera botarik odolak txupetako.

Odol-utsitu orduan, itxiaz lurrean ilda, oraindiño ez bada bete ondo, segiduten dau ardi geiago ilten, kontsolau arte guztiz; eta, azertetan bada

umeak azten, orduan askoz txarrago. Eurak mante-
niduteko, eroaten deutse aragi edo okelarik onena,
bai artxo jaiio barria edo olan, erditik ebagi eta atze-
ko alde bertan itxiz, umei eroanez aurreko alde,
goxoagoa dalako.

Egun baten, gure auzoko Justo Amondaraini, ni
mutikoa nintzala, udabarri edo apiril erdian, usadio
zan moduan, ardiak, barruti edo soloko jatekoa
kenduz, itxiten zirean basora bialdurik, aro orreta-
rako jateko barriak urtetan audelako basoan.

Zoritxarrez, urte orretan, arittoa gaixo edo makal
xamarrez egotean, ardiak lenengo arkara-aldian ez
zirean ernaldu, bigarrenen baño, eta orduan
umeak egin audezan beranduago. Orregaitik, umeak
oso gazte xamar zireala, artalde ori basoan itxi bear
gauaz, nai ta jakin lukiagaz arrisku andia egoala.

Pentsamentu orregaz, orreik jagoten pastorea
lotu zan gaueko amarrak ingururarte, jatekoa
morranean eukalako, eguerdiko bazkarian sobraua;
eta, ori jan da gero, ifini auzen ardi jagole alde
baten txakurra amarraurik, eta beste aldean txori-
malo andi bat, erropa zar batzuekaz egina, ta mar-
txau etxera, morrala aiztuta itxirik bertan,
pentsauz orreik ikusirik librauko zala lukiaren
eskarniotik. Eta bai alan jazo be!

Luki madarikatuak, ikustean artalde orretan
ezin bete audela triparik, pastoreak itxitako morra-
laren ganean kaka eginik, andik urrin barik egoan
lez Zaratamo-Gutiolako Sabino Arriagaren artaldea,
amurraldian, dozenerdi axuri edo artxo ilik itxi
auzen, odolak txupau edo zurrupatuz, eta ospa egin.

Lukia da pizti bat kirats andia botaten dauena,
eta orregaitik fazil edo erraza dana txakurrak sus-
metako. Baia, aurretik esan dodan moduan, oso
tranposo edo azpizapoa. Sarritan txakurreri naaste-
-borrasteak armetan dautsez bi bider leku batetik
paseteagaz; esate baterako, leku beretik paseteagaz

arantza ta onantza. Orduan txakurrak errastoa dauka, baia ez daki norantza fijo, eta an ibilten da bueltaka, eta lukiak bien-bitartean ospa egin da atx-zulora sartu.

Gure Anjel kazaria —Jaunak beragan dagiala— egin auen pruebea, lukikumak gazteak zireala, euretako iru beren olloakaz ifiniz ollategian, inguru guztitik alanbradureaz zarratuz, ta berak sorotsi leiotik zer mogimendu edo zelan konponduten zirean olloakaz. Eta, *bueno*, txikiak zirean artean formal egoten zireala, baia apur bat azi orduan, okerkeriren bat egin ez dagien bildurragaz, lukikuma bi apartau audezala beste erri batera, eta bat bakarra itxi ollo artean.

Andik egun gitxira, lukikuma ori asi zala olloei laztankeriak edo laban-siñuak egiten; eta, alango baten, ollorik ederren edo indartsuenari samatik elduz, aginak sartu eta odolak txupauagaz il aude-la; eta, aziñõ ori eginik, oratu aginakaz eta jaurti egin audela alanbrada ganetik kanpo aldera, ugazabak igerri ez dagion bera izan zala kriminal ori.

Anjel gixajoa, koleraz beterik, su ta gar ikustez aziñõ ori, koxitu eskopetea eta geiagoko barik leiotik tiro eginez il auen lukikuma madarikatu ori, eta segiduan beste biak be bai, esanez ez audela ikusi gura beren etxean alango deabrurik.

Lukiarentzat dira kanta oneik, umeak lo ifinteko:

Txirin-txaketan akarra jantzan,
astoa bibolin joten,
eta lukia zueri puzka,
erbia urun eralten.

Ababatxue lo txarrin gorri,
ez egin lorik basoan,
luki gaiztoak jan ez dagian
artxoa zaralakoan.

Pastorearen ogia dira
artxoa eta ardia,
ondatuteko naikoa barriz
luki zarran pikardia.
Odola txupauz ilik itxita
emoten dau eperdia,
begitu nora doian paretan
gizajoen izerdia.

Pizti artean jakiturian
errege dogu lukie,
deskuidu baten kapaz da joten
pastorearen ankie.
Garbitu edo deseginduten
naiko zeregin daukie,
kazari, txakur ta eskopetak
tiroz il al balaukie.

Alabatxue lo txirrin gorri



A - ba - ba - txu - e lo txi - rrin go - rri, ez e -



gin lo - rik ba - so - an lu - ki gaiz - to - ak jan ez de -



gi - zen ar - txo - a za - ra - la - ko - an Txi - rin -



txa - ke - tan a - ka - rra jan - tzan, as - to - a bi - bo - lin jo -



ten, e - ta lu - ki gai - zo - e ri



puz - ke er - bi - a u - run e - ral - ten.

Otsoa

GORPUTZEKO tamañuz, txakurra besteko andia; buztan uletsua; begiak txikerrak; puntak zorrotzak; anakak luzeak; tipo pardo iluna; luzaria eun ta berrogei zentimetro; buztaneko luzaria berrogeitabat zentimetro; alturea, larogei zentimetro; pisua berrogetamar kilo; emeak apur bat gitxiago.

Bizibidea, basamortu edo mendi lerroetan. Ugaritzea, urtailetik martira. Ernal-denpora, irurogei edo irurogetairu egun. Bost edo sei ume ernaldi bakotxean, Iskimili orren jagole, aita-amak, euren kobako abian ostondurik, batez be ama. Janariak, basauntz, ugaztun txiki abereak, bai ardi, bai auntz eta abar, Ibilerak, bakarka edo familiz. Jateko edo kaza, egunez leku fijoetan, gauetan eginik ibilera andiak.

Udan egoten da beren familiagaz, eta neguan batzanduten dira beste senide-moltso bat, alkarri lagunduz menperatu al izateko, nai ta izan animalia andia, il eta jateko.

Familiari deituteko, irrintze, ausi edo oiuminak egiten daudez, euren maliziagaz.

Onegandik aparte, ori bai dogula Euskal-Errian, eta bai beste leku askotan be, pastorearen arerio bizia, batez be egiten dauzelako benetako ilkuntzak

ardi-talde edo errebañoetan, gose diranean, okela jaten; eta, ori asetu orduan, odola txupauaz.

Ori, bat bakarrik etorten danean. Ez dago zer esanik, etorten badira moltso bat.

Pasau dira kasuak berrogetamar ardi edo geiago ildako gauak kriminal orreik.

Begitu, ba, zelango egoeran aurkituten zan ezbe- ar ori toketan jakon pastore koitadua. Bakotxak igerri begi.

Olango albiste bat agertuten zanean, oso arritu- rik lotuten zirean inguruko jente guztia. Erruki arturik ori pasau jakonari, bear guztiak bertan bera itxiz, al bait arinen alberri guztietako kazariak abi- saurik, eskopeta, txakur eta janari apur bat artu- rik, joaten zirean otsoen bila eta ilten basora.

Nozik beiñean agertuten zirean ori lango kasuak neguz kanpo, eta ez da zer esanik neguko ekaitz gogor edo edurtze andietan egiten audezan krimi- nalkeriak.

Egia esan, Euskal-Errian ez dago mendi altu edo mendi-lerro askorik. Baia, zoritxarrez, urratuten dira Urduña eta Gorbeia mendi orreitatik.

Negu-partean, edo Domuru Santuetara ezkerro, edurraren bildurragaz, jetxiten dira pastore guztiak mendietatik ur-bazterretara, edo segurantza apur bat dagoan lekuetara beintzat. Jakina dan moduan, zeinbat eta altuago, edurra lodiago egoten da; eta mendi altuan ardiakaz egotea batez be oso arrisku- tsua da.

Baia alan da guzti be, bat edo bat deskuidatuten da, nai ta gero negar egitea tokau, metro bat edo geiagoko edurtzagaz ardiak bidatu ezinik ito egiten dira eta.

Pastorearen bizitzea be ez da arrosa kolorekoa. Udan gerizpe onak gozetan dauz, baia neguan page- tan daituez senperrak pasauaz. Alde batetik, bat-

zuetan kortatik ezin atara, eta pentsuaz mantenu bear; eta, bestetik, otso madarikatuak jagoten txandaka gauaz, adar andi bategaz korneta joten edo zarata andi batzuk egiten, otsoa urratu ez daiten; eta iñoz edo bein, loak artu ezkeru, otsoa etorri txabola ondora.

Badago gauza ikusgarri geiago be, gaztediak ikasi bearrekoa, eta auxa da bat: otsoa beor edo zaldiakaz.

Au da: otsoak mendietan ez eukitean janaririk ganaduakaz, danak jetxi diralako ur-bazterretara, jexten da jateko bila eta biderdian topetan dauz beorak.

Orreik, gorputz altuago edo anka luzeagoak daukezalako, ez daukie ardiak beste arrisku otsoak ilteko. Orregaitik, ez dira ainbeste estututen jaubekak, orreik jetxi eta jagoten.

Orduan, edur-ekaitz gogorra etorten danean, ipar-aize otza eta afruntaduagaz, otsoak alkarri deituz euren auzi tristeak eginik, mogiduten dira basoan bera, eta lenengoz topetan dauz beor edo zaldiok, eta ez da zer esanik tripea bete gura be bai.

Beorak, otsoak ikusi edo susmatu orduan, deituten dautse alkarri irrintze biziak eginik, lenbailen urratu daitezana korroa formetako, umeak barruan sartuz salbetako; eta eurak, eperdia emon otsoa urratuten danean, ostikoka agin eta musturak apurtuteko pizti madarikatu orreri, eta betiko bakea ifini.

Baia otsoak be ez dira leloak; eta, arerio gogorra topetan daudenean, ospa egiten daude beste leku batera, gosea kenduten.

Bada beste usu edo oiturarik beren inportantzia daukana. Kazariak basoa arakatuz il ezkeru otsoren bat, eroaten da erriz erri, makila baten arturik, limosna bila, pagetako pastore koitaduak euki dau-

zen galtzaiak, eta bai be beste kazarien soldata eta abar.

Egun bi edo iru pasauaz, pizti tragauak kiratsa botaten dau; eta, polito-polito narrua kendurik, barrua galtzuz bete eta josi barrero, alantxe itxurea galdu ez dagian; eta korriduten audezan erri-alde guztiak. Zeinbat eta diru geiago batu, obe izaten zan galtzaiak eukazanentzako.

Ori bai, alan jazoten zan: gaur bateri eta bigar beste bateri toketan jakon txanda; eta alan, danak parte artu auzolan beartsu orretan, alkar maite izanik. Ona emen gaurko norberekeri orrentzat ejenploa.

Ardi ta auntzen okela-jale
bildurgarrizko otsoa,
baita batez be etorten bada
beraren lagun-moltsoa.
Uxatuteko gau iluntzetan
pastorearen zantzoa,
origandikan libre ez danak
akabetan dau kurtsoa.

Polbora eta eskopetarik
asmau ez balitz munduan,
kazariari burla eginda
parauko ziran tronuan.
Besteri bear eginazo ta
emen baltzari moduan,
ilik trokara jaurtiaz gero
odola txupau orduan.

Basurdea

LARRU lodi eta sendoa daukan txarri-itxurako basapizti ugaztuna; ule luze eta latza; agin ederren aparte, matrail-agin zorrotz aundi bi dauzena; gorputzeko neurriak dira, buru ta guztiko luze-rea, eun ta irurogetamazortzi zentimetro; pisua, segun zer tamañu, ogetamar kilotik eun ta berrogetamarrera bitarte.

Zelo-denporea, zemenditik zezeilera; ernal-denpora, lau ilabete; jeneralean jaioten dira martitik maiatzera. Euki leikez amabi umerarte, arrai marroi eta pardo koloreagaz gaztetan. Umaldi bi euki leikez urtean. Sexual elduerea artuten daude bi urteakaz.

Jaten ditu aretx, ezkur eta pago-ezkurrez gain, koneju gazteak, mamarroak, karakolak, musker eta sugeak, txori-arrautzak, patatak, zuzterrak, azelgak, maats-ondakinak...

Zelo-denporan izan ezik, arra bakarrean ibiltenda; eta emea, beren kumak lagun arturik, gauaz mantendu eta egunez lo edo deskantsau beren koba-zuloko abian.

Oso murgil-zalea potxingoetan. Baita industu mustur luze orregaz janari bila. Eritu orduan, bel-durgarria ta arriskutsua.

Basamortu edo atx-zuloko kobatan daukazan gordegeletan ostonduten dana. Andik atarateko

kazari asko joaten dira txakur-pilo bategaz, bat-banan aurre emonik ezin daudelako.

Jeneralean iges egiten dau pertsonagandik, estu-aldiren baten aurkituten ez bada, txikitatik nik ezagutu dodazenak beintzat.

Basurdeeri be, beste animala batzueri lez, gauzarik inportanteena edo amurrurik geien emoten dautsona da beren umeak kentzea.

Inoz edo bein pasauko gauzea da pertsona batzuek joanda, amek kanpotik janari bila diranean, orreik kentzea. Ori bai dala arriskua!

Jakina dan moduan, kumeak, beste batzuen eskuetan jausten diranean, irrintze egiten daude. Orduan amek, ori entzunik, lenbailen etorten dira. Zorionez suertatu zan leku orretan aretx andi batzuek egotea, eta ara ganera igon kume ta guzti, justo basurdea etorri baño len.

Jakina da basurdeak aretx ganera ezin dauela igon. Baia amurraldian aginakaz arbola orreri zezpal edo zati ikaragarriak kentzen dautsazala, eta gizonari soltau-azo basurdekumeak, orreikaz barriz kobara joan daiten. Baita gizonak, larrialdi ori pasau ta gero, pozik etxera, barriro lantegi orretara joateko gana barik.

Beste batzuetan be pasau da, basurdea txakurrak ekarririk kazarien ondotik, orreik tiro egin eta eritu. Orduan, zezena gizonagana etorten dan moduan etorten da momentu orretan ilteko; eta suertez, barriz tiro eginik, il justuan, gizonari oratu ordurako.

Beste asko, basurdea ondotik etorri orduan, larrialdi orregaz pultsua dardar daukala tiro egiteko, arbola ganera igon eta pasetan itxi, urrengo kazarieri deituz:

— Or joak! Or joak eta tiro egiok!

Nik dakidala, onek ez dau ilten edo jaten basaganadurik, ez ardi, ez auntz, ez bei, ez txal, beor

edo zaldi eta abar. Beren janariak dira gaztaña, aretx, pago eta abarren ezkur edo frutuak; eta bai be zuaitz-eperdi igertuko zuzterretan edo ganaduen korotz ustelduetan egoten diran kakarraldoak, industuaz beren mustur zorrotz luze orregaz.

Sasoirik onena izaten da, gizendu edo loditu daitezcan, udagoiena. Au da, urrian asi eta abendurarte bitartean, gero, negua sartu orduan, janariak eskastuten direalako.

Gitxi gora-bera, onein pisua izaten da berrogei-tamar kilotan asi eta eun edo eun ta ogei kilo inguru, andienak. Janari au oso goxoa da, txarrikien moduko mamitsua eta giarratsua.

Ez da zer esanik, ainbeste larritasun gordegelatik atara txakur-moltso andiegaz; ainbeste gizon atzetik; beren zur-txistuak sasi arteetan entzun eta iru edo lau metroko saltuak eginez, basotzean ibili ta gero, koxi eta kazuelaratu ezkeru pozik egotea.

Basapiztien artean be badagoz euren jakituriak eta, jakina, zaarrak badira geiago barriz. Kazari eta txakurrak eukiagaitik inguratuta, nozik beinean ziria sartuz ospa egiten daude, nai ta sutan geratu kazariak eta barriz joaten beartu.

Kazari danak alkar arturik basurdea koxi ezkeru, bakotxak beren eskopeta lepoan arturik, okelaz ontzia beterik baño lenago bakotxari toketan jakona taberna baten egiten auden bankete edo oturuntza ezin bestekoa.

Gero, barriz, zeinbat kazari ainbeste zati eginik, gitxi gorabera tamañu bardinekoak bai okela ta bai azurrez, bakotxari numero bat ifiniaz, gero, erremate edo subasta modura, gizon bat ifinten auden bost bat metro alboraturik beste aldera begira edo atzez, eta preguntau erremantanteak, numeroa kantauaz:

— Au norentzako da?

Eta besteak erantzun:

— Urliarentzako.

Alan, baxotza beren okela-pilo orregaz etxera oso pozik, loteria tokau balitzakio moduan, bear izanak be izaten zirean gaurko egunean baño andiagoak eta.

Egia esan, gure txiki-denporan etxerik geienetan famili andiak izaten ginean, eta umetxuak be zer pozez beterik basurdekia jateko, bai txitxi burrunntzi edo kazuelan, amatxuk ederto ifinia.

Nekeak franko izaten bazirean be, merezidu auen olango pozagaz ikusteak familia. Ondasun andirik ez zan izaten jente artean, baia bai bizi-poza alkarregaz.

Txakur-moltso ta gizon-zaratak
abitik altzau zaitue,
bildurrez dardar ifin dozu zuk
kazari askon pulstue.
Bestek ez lango matrail-agin da
mustur luze indartsue,
bide estuan aurre-emailea
erituten badautzue.

Basurde koxten ez dau ondiño
iñok ikasi eskolan,
orrelangorik ez dagolako
libruetako formulan.
Ilik badozu pisatu barriz
eundogei kilo baskulan,
gose batzuek kentzeko beste
bada okelarik kazuelan.

Erbia

UGAZTUN, birrintzaile, basapiztia. Kaza estimatua, okela goxoa daukalako. Izatez korrikalari trebea. Konejuen antzekoa, diferentzi txiki bategaz: atzeko anakak luzeagoak, belarriak puntan eta ule baltzagoa.

Buztana altzetan dau leporantza, ganea baltza eta azpia zuria dala, bost edo sei zentimetro luzerakoa. Bi bider mudetan dau ulea urtean. Luzerea, buru ta guzti, berrogetamar zentimetro. Pisua, bi edo iru kilo. Baso librean bizi da. Pastua inarra, sasi, garo arte eta abar

Sorkuntza sexuala derrigortu gurakoa, arren partetik burruka eta pertsekuziñoz; udabarriaren asikeran umetuteko denpora.

Ernaldia, berrogetabi edo berrogetalau egun, urtean umaldi bigaz, baktxean bi edo iru umegaz.

Abia, bedar siku luzeakaz egina. Jaioten dira begiak zabalik, ule laburragaz. Umeak, zutik ibilteko kapazak jaio eta laster, euren abiaren inguruan.

Amarengandik bakartuak ilabete barru, zortzi ilabetegaz logretan daude sexual eldutasuna. Baia ez daude umerik egiten lenengoko urtean.

Gau guztian kanpotik ibiltzen dira, eta kaltegarriak arbola gazteen kimuetan, batez be mentu

barri, mintegi edo lorategietan, plaga modura, joanik euren abitik urrinera, jateko bila.

Janariak dira azalak, garauak, zuzter, landare, zanaori, letxuga, nabo egoskarri, trebol, kardua eta abar. Ibilerak jeneralean bakarrik. Estualdietan kapaz dira lau edo bost metroko saltuak egiten.

Anka-arrastoak erredoblatzen daude, arerioari erratuazo al izateko. Ugerlari ezin ohea, eta bikotuteko zaratak diferente eginez.

Defektu bat daukana: aurreko anakak laburrago atzekoak baño. Orregaitik, txakurrak errastoari segiduz entzun orduan, jeneralean aldatz gora mugiduten da, baia berantza be gure alderdiko txakurrak ezin al izaten daudez koxi.

Gauetz soloetara etorten da janari gozoen bila: bai alfalfa, bai bedar, letxuga eta abar. Ala ta guztiz be, ez da beste pizti batzuek lez kaltegarria.

Euskal-Erriari erbi asko egonagaitik, beren okelea kazari jente artean estimadua izan da beti, bai patata eta bai idar eta abarregaz gisadu eder bat eginik.

Lengo arira joanik, eguraldi ona edo gaueko inontza izaten zan ona txakurrak arrastoari segiduteko. Ostantzean, egoaize edo denpora aserreagaz ezin izaten auden ondo topau erbia; eta or ibiltan zirean buelta ta buelta ausika. Bestea ixil-ixilik abian ostonduta, eta ondo-ondora joan ezik ez auen urtetan andik. Baia, zorionez, aldi orretan goxalderik geienetan egoten zan inontz ederra, eta kazariak ondo jakitun zirean. Bide-kurtzeetan etxonik tiro eginez, erbi asko ekarten audezan etxera, eta beste batzuetan tabernara.

Beste aldetik, badira kasualidade batzuk be. Onan neu eta neure anaje Boniri —Jaunak beregan dagiala— pasau jakuna.

Egun baten, etorri ginean ira-gurdikada bategaz basotik etxerantza, geure etxeko txakur baltzagaz,

Nabarro deituten geuntsana izenez, Solobarriondo deituten dan lekutik.

Baso orretan erantau auen erbi bat txakur orrek. Paraje orretan egoan ia sei metroko alturea atx mustur bategaz. Erbia aurretik dala, ta txakurak segiduan, estualdi orretan salto egin auden bata bestearen atzetik, geuk pasa bear gendun gurpidera, justu geu allegatuteko momentuan. Jausi zirean geure anketara, txakurak elduaz zaputzetik erbi ori, agoan artuz emoten guri. A bai zala sorpresea! Itxura dagon moduan, txakurra astunago izatean, aidean urratu jakon koxi al izateko.

Esakera bat dago, gitxien pentsetan dan lekuan urtetan dauala erbiak, eta alaxe da izan be.

Euskal Erri guztia izan zan leku erbitsua gure gazte-denporan, ta batez be Zeberio alderdia. Non-gura agertuten zirean gitxien pentsetan zan orduan ota moltso, inarrarte, gari arte eta abar.

Orrez ganera, badagoz beste tranpa batzuk be erbiak koxiteko; au da, alanbrezko lazukak ataka edo sasi-bitarteetan edo pasa-bideetan ifiniaz lazua deituten jakenak, pasakeran sartu dagien burua; eta zeinbat eta tirakada geiago egin estuago aurkiturik, bertan ito ta ilik jausten dira lurrera.

Aziño orretan oso jakintsuak zirean Iturritza deituten geuntsan baserriko Boni Ugalderen mutikoak: Kandido, Juan eta Paulino, oso erbi asko koxitutakoak. Baia, egun baten, auzoko Juan Salzedoren ardi eder solari bat eta txibixa; ardi orrek sasi bitarteko bedar gozoaren intziguegaz sartu auen burua alango lazuk baten, eta tiraka ito eta il.

Ardi orren ugazaba egoan ezer ez ekiala, eta joan zan ardiak ikustera. A zan sorpresea edo disgustua, ardi eder ori sasi ondoan itorik ikustean!

Goiak eta beiak joten asi zan, mutikoak zigortu bear auezala-ta, Bonigana joanik. Aserre-aldi orretan, amurruaz ez ekian zer esaten auen be; eta Bonik, atera urtenik, diñotso:

— Nasaitu zaitetz, Joan, gizona, ori baño andia-goak be pasetan dira ta!

Bueno, biak errazoirra etorriaz, konpondu zirean auzo onen moduan, Bonik emonagaz arkazta polit bat.

Ona emen kontseju bat erbi-koxitzaile ibili gura daudenentzako.

Koñatu bat euki nendun nik, gaur Jaunak eroa-nik daukana, erbi-kazari ona eta orrein atzetik pauso asko emonekoa, Remijio Abrisketa eritxona, ni baño amasei urte zarragoa, Bilboko *Diques de Euskalduna* fabrikako langilea. Baita be beste gizon bat, neure ezagun andia, Ugaoko *Ramón Pradera*-enean langile zana, Joan Jose Goikuria eritxona.

Domeka edo jai-egunik geienak enplegau aude-zanak afeziño orretan goxaldez, eta euren denporan erbirik geien ildakoak, gure alderdian beintzat.

Eta axe zan orrein kontsejua: erbiak lo egiten dauala begiak zabalik, eta ori koxi gura dauanak be ondo itxarririk ibil bearko dauala.

Guzurra esate ez jat gustetan,
eta bai egi garbiak,
gure denporan zelan ugari
egozan emen erbiak.
Bonin umeak lazuak eta
lagun zituen itargiak,
erbi bearrez koxi leikezan
Juan Salzedoren ardiak.

Azkonarra

NARRU lodi zuri baltza, ugaztun, okela jalea, ule bastu eta arein artean dau erdia baltza eta beste erdia zuria: narruaren ondorantza klaroagoa, baltza erdian eta zuria puntan, segun zer parajetan kolore diferenteagaz. Jeneralean zar egikeran zurizkatu egiten dira begiondoetan.

Belarriak txikerrak, puntara zurizkak, Begiak txikerrak. Mustur luzea eta zorrotza. Gorputz sendo eta fuertea. Ankak laburrak, bost atzamarrakaz baxotxean. Buztan laburra, oso indartsua. Gorputzeko luzerea, berrogetabost zentimentrotik larogetamairura. Altorea ogetamar. Pisua, arrak amaika kilo; bat edo batek amazortzi be bai. Emeak gitxiago.

Basamortuetako koba-zuloetan biziten da. Gustetan jakoz leku aldatzak. Artzen ditu erbi-abiak beretzat. Gustetan jakoz egoteko basolarra sastrakatsuak, ostondurik umeak azteko, iñok ikusi barik.

Zelo-denporan olgetea gustetan jako emeakaz. Bereganduteko usain andia botaten dauelako almizklearen moduan. Ernalduten da jeneralean garagar ilean, baia erabil laike urrietararte.

Umeak jaioten dira maiatzetik garagarlera. Orrein numeroa izaten da batetik bostera. Baia jeneralean bitik irura. Urtean umealdi bat. Umea-

ren neurria euntamabost milimetro, eta jaiokeran dira itxuak, kolore zuri eta loiagaz, ule barik tripean. Begiak zabalduten daudez amar egunakaz, eta egoten dira sei astetik zortzira lurpe edo gordegelan. Esnea kenduten dautse amabigarren astean, amagaz egonarrik negurarte.

Emeak artuten daude sexual unea amabi ilabetetik amabostera, eta arrak amabitik ogetalauera. Bizi leitekez amabi urterarte.

Okela-jalea dan lez, umeak mantentzeko jaten dau guztitik: pago-ezkur, basa-frutuak, bedar gozo, sekulabedar, zuzter, mamorro, bare, koneju txiki, musker, txori, etxeko egaztiak eta okela tragauak.

Bizi da koba sakonetan, batzuetan sarrera bigaz, bat tapaurik ida, bedar, oroldi eta abar, estualdiren bat izan ezkerro, andik ospa egiteko.

Jan barik egon leiteke amalau astetan, beren koipe edo erreserbak mantenduz.

Kumak, bildurtu orduan, zarata andi batzuk egiten daudez. Nagosieri irrintze edo ausi, inor susmau ezkerro.

Gizona da orreïn areriorik andiena. Belarri eta begiak txikerrak daukaz. Entzumena ona bai; ikusmena ez.

Jatekorik goxoena, nire eritxiz, emen Euskal Errian da orreintzako arto ondo zoli bakoa edo esnean dagoana, zeozer zoli edo eldu danean gogorturik dagolako. Beren goseak asetuteko, gauaz egiten dauz baztar-solo edo basotik dagozen soloetan arto-jateak, lurrinduz inguru guztia, alboko indaba, erremolatxa eta abar zurituri ixteko. Orregaitik emengo labradoreak dauka begitan arturik.

Au da, beste basapizti batzuen moduko, uxo edo deskonfiadua eta tranposoa dalako, personengandik urrin ibili gura dauana. Orregaitik, azkonarrak be egiten dautsez gaiztakeriak baserritarrerri.

Au da sistema enplegetan dauana: arta-lasto edo arta-palo orreri barrenetik emoten dautsez aginkada pare bat. Gero, zutik atzeko anka ganetan geratuaz, bultza eta itzuli arto ori buru eta guzti lurrera, an jateko.

Begiratu, ba: gau bakotxean amar artaburu jan ezkerro, zelango kalteak eukiten daudezan labradore gixajoak.

Baztar-solo orrein jagole ifinten audezan txakur-
rrak, taket andi bat lurrean sarturik, ara kate bate-
gaz amarrau edo loturik; ze, erramalagaz ifini
ezkerro, orreik aginakaz ebagi eta ospa egiten dau-
delako; eta, ori egin ez dagien, ez auden beste erre-
mediorik bertan egon baño, ausika gau guztian.

Alan ta guzti be, azkonarrak igerten eutsen txakur-
rrak amarraurik egozala, eta konfiantza osoan
jaten audezan artaburuak txakurraren ondoan.
Urrengo goizean, joatean ikustera eta topau destroz-
zu ori, ugazabak, eskuetan eukan makilegaz, joten
eutsan txakurrari, beren ondoan jaten audelako
azkonarrak artoa.

Aldi orretan gure auzo bateri zer pasau jakon
daukat esateko. Uriondoko iturri ondoan egoan
baserri bat, Iturrikoa eritxona; eta an bizi zan Pedro
Iturri deituten geuntsana.

Gizon orrek basartean eukan basa-txabola bat,
ganaduak legortuteko denpora txarrakaz. Bai be
solo andi bat beraren goi aldean; eta, urte askotako
moduan, artasolo ikusgarri bat, baia beren etxetik
bastante urrinean, Makatzaga deituten deituten
zan lekuan.

Solo orren goi aldean ifini auen txakur eme bat
arto-jagole, len esan dodan moduan, konturatu
barik txakur ori alta edo arreske egoala. Ez da zer
esanik, urratu jakozan auzuneko txakur guztiak;
eta orreik bai egin audela iñoiz ez lango sarraski

edo destrozua, alkarregaz burrukan asiz, danak gura izaten daudelako ekintza sexuala.

Animalietan badago indartsuen legea, eta asarre orretan txakur eme orren taket ori bota auden, atararik, pikutara, mogidutean danak burruka solo erditik bera, itzulipurdika doiazala. Orduan, zeozer gauza onen barri dakianak, au irakurtean konturatuko da zer egoeratan aurkituko zan solo ori.

Destrozu edo birrintze orren gain, zoritxarrez, solo barreneko urteera edo ataka orretan katigu edo trabauta geratu zan txakur eme ori, narras eroatean taket ori.

Ugazaba, sasoi orretan beartsu edo ume txikerak azten egoan eta ez zan joan egun pare baten ikustera. Baia, ikusi auenean zer pasau zan, negarrari emon eutsan, esanez barriz berak ez audela txakur emerik ifiniko azkonar-jagole.

Azkonarra pizti narru lodi, anka labur eta oso sebotsua da. Sebo edo koipe ori izaten da oso ona gurtedeak eta zapata bortzegiak koipatuteko. Karraka edo korrikan abilidade edo trebetasunik ez daukana. Ori dala-ta, pertsona gazte sasoi onekoak koxi edo arrapatu al daudena.

Beste askori errespetatuz, neure lengusu Simon Ayesta Jaunak eroanekoak, larunbat edo sapatu iluntze baten auntzetatik etorrela beren txakurragaz, koxi edo arrapatu auen azkonar eder bat, Zeberio-Uriondoko deituten dan basoan; eta, urren-go egunean, domekan, auzune guztiko albistea zan zelan Simonek azkonar eder bat koxi auen, eta garriko ugelagaz oraturik ekarri audela etxera.

Ermita aurrean, Elaurta deituten dan lekuan, bildu ginean auzuneko mutil edo gizonezko geienak beintzat, esaten Simoni ekarri dagiala azkonar ori. Ekarririk eta korrua formaurik, erdian pizti ori gendula, nire koñatu Remijio Abrisketa —gaur Jaunak

beragan dagiala— kazari jakintsuak, esan auen txakurrik onena ez dala kapaz azkonarra ilteko borrokan.

Orduan, Juan Krutz Barañanok —Jaunak beragan dagiala— eukan polizi-txakur eder andi bat, eta akordau jakun burruka ifintea.

Asirik norgeiagoka, txakurra zan askozaz andiago, pisu geiago eta indartsuagoa. Orduan orrek zapuzetik eldu eta jaurti egiten auen lenengoetan. Baia, azkonarrak agina ifinten auen lekuan, odolak urtetan eutsan txakurrari. Alan ebizan ia ordu bian, burruka larrian, narru guztiak kenduaz matrailetik txakurrari, ikusgarri modu tristean.

Suertatu zan guk geunkan arratoi-txakur txiker batek, iñor konturatu baño len gure ankapetatik korru orretara sartuz, oratu eutsan azkonarrari barrabletatik; eta a zan amurraldia azkonarrarena! Zezena gizonagana moduan salto egin auen txakur txiki orren ganera; eta momentu orretan, Juan Krutzenak ago andi aregaz oratu eutsan bizkar-azurretik ta tragau. Ezpabe, ez zan kapaz ori ilten.

Ona emen sinistu ezinezko gauzea auxe, ikus ezik. Baia egi santua benetan. Eta sekula santan ikusi ez gendun lango borroka txakur eta piztiagaz.

Gure txakur txikia izan ez balitz, ez egoan azkonarra bentziduteko esperantzarik iñondik be.

Pasaurik arrato txar ori, Santa Gurutzeko meza entzunik, etorri zan neure aitatu Manuel Ayesta, Jaunak zeruan dagiala, eta esan euskun narrua kendu eta koipeak aprobezetako, gurtede eta zapa-tak koipatuteko koipe espeziala daukalako.

Beste egun baten be, aurretik esan dodan moduan, basoko atx-zulo edo koba sakonetan ostonduten dana izanik txakur ta kazariak segidu orduan, suertatu zan Anjel Borderen txakurrak sartu koban. Andik atarateko eurak be joan bear

barrura; eta, an borroka ebizala, txakurrak, beren burua txarto ikustean, kanporantza urtetea, eta besteak segidu. Orduan Bordek, eskopeteagaz tiro eginik, azkonarra il, amurraldian tarras atarateko kanpora.

Narru zuri-baltz, anka labur ta
agin fin, mustur luzea,
basoan jaio zinean baia
gustau soloko gauzea.
Betik ebaita goitik bultzauaz
aurrankaz dozu trazea,
labradorean izerdiagaz
kentzean dozu gosea.

Europaldetik etorri eta
Euskadin artu pastua,
zure erruaz txakur emeak
jaubeentzat disgustua.
Koipe on eta asko dozula
ez daukat zugaz aiztua,
geio bazendu bere ez dozu
pagetan askon gastua.

Arkibidea

Gure etxea	9
Nire mundura etorrera	23
Eskola	27
Labrantza	35
Errentadoreak	51
Ermandadea	53
Artzantza	55
Basabeiak	67
Ikazgintza	71
Gerrako ibilerak	83
Landiletza	87
Gerra ostea	93
Gabon jaiak	97
Gazte denporako erromeriak	103
Santa Ageda	129
Sorginak	141
Martin errotaria	143
Diruzale zekenak	147
Kaprortuko Txomin	151
Zirilo eta Patxa	155
Abade listo jakitunak	159
Lontzo, Josepe eta Bernabe	165
Mutil galanta	173
Billarrealeko erdalduna	175
Mariano Bilbao	177

Lapur famadu bi	179
Kiko tunantearen ipuiñak	183
Jitanuak	205
Beor solariak	217
Antxineko ezkon tratu edo usadioak	221
Perretxiku batzailea eta eskupetaduna	225
Andra sarjentonea eta alabea	229
Anton eta Pepa	233
Bearginak	235
Maatsa	237
Jose Laño aita-semeak	239
Lukia	245
Otsoa	255
Basurdea	259
Erbia	263
Azkonarra	267



Lino Ayesta

Begiak eta belarriak ditu gizakiak bizitzan zear bere ikasbide nagusiak. Beste iturririk bai al du eskoletako eta erriaren jakintzak?

Ala, berak bere denboran *ikusiak eta entzunak* dituan gertakizun, kontaera, kanta eta ipuien berri eta lekukotasuna ematen digu liburu ontan Lino Ayestak.

Nungoa, ordea? Euskal Erriaren ertz batean dagoan Zeberio erriaren Uriondo auzuneko.

Baiña ango garai bateko bizimodua gure begien aurrean ipintzearekin, antziña bateko Bizkai guztiko mendi-baserrien kondaira eskeintzen digu, ispillu batean bezin zeatz eta garbi.



Zeberioko Udalaren
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-52-6

